ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-05-30
ASTELEHENA
323. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Kortazar nagusi Aizkorrin

Kilian Jornet onena gizonezkoetan | 24



Oihana Kortazar. | XABIER URTZELAI

Erabiltzaileak pozik Bilborako autobus zerbitzu berriarekin | 14



Markel Mendieta hirugarren Elgetan, Boulderrean | 26

G·PUNTUA

Jokin Labaien nagusitu da Aretxabaletako saioan | 32



Elgetako Mundumira, borobil

Munduko ikuskizun eta jan-edanek arrakasta handia izan dute aurten ere, eta jendetza batu du Los Delinqüentes taldeak | 29

Artea Teatro taldekoek kale antzezlan polita egin zuten zapatu goizean, jendearen parte-hartzearekin.

JULIO CALLEJA

Irakasleak omendu dituzte orain 50 urteko ikasleek

Arrasateko Eskola Profesionalean ibilitakoen jaia | 12

Erretiratu egin da Bilduren Elgetako alkategaia

Boto bakarragatik galtzeak mindu du Koldo Goenaga | 20

Omenaldiak eta agurrak futbol denboraldiaren amaieran, Arrasaten eta Oñatin | 22

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Txopebenta Landetxea



Mundumirako Sariak



ETA ZURETAKO BADIRA?

▶ Zoaz 31. orrialdera

'Vespa velutina', Asiatik ailegatu zen etsai ikaragarria

- Oso liztor mota kaltegarri bat bailarara iritsi da
- Erleak jaten ditu, eta ingurumen arazo larria da



Zubillagako erlauntza batzuk; lehenengo planoan, ezkerrean, *Vespa velutina*-rendako tran

ESANAK

"Jendarte osoaren arazoa da, erleek landareak eta zuhaitzak polinizatzen dituztelako"

JULIAN URKIOLA | ERLEZAINA

"Erreginak ernalduta daude, eta udan 2.000 liztor egon daitezke; orain harrapatu behar dira erreginak"

JON URTZELAI | ERLEZAINA

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Asiatik ailegatu da Europara, eta badirudi luzaroan geratzeko asmoa duela. *Vespa velutina* da, liztor hiltzaile moduan ezagunagoa. Euskal Herriraino ere etorri da, eta kostaldetik agudo asko Debagoieneraino ere bai; Oñatin antzeman dute erlezainek. Etsai izugarria dute, gauza asko oraindik ez baitira guztiz jakinak liztor horren gainean, habiak topatzen oso zailak direlako, eta oso azkarra delako hedatzen eta bere kaltea egiten. Erleak dira bere jomuga eta helburua; haietaz elikatzen da eta lauzpabost horrelako liztor 30.000 aleko erlategi bat bi ordutan birrintzeko eta erle guztiak akabatzeko gai dira.

Baina arazoa ez da bakarrik erlezainena. Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko presidenteak, Julian Urkiolak, esaten du "jendarte osoaren arazoa" dela, erle xume eta langileak ezinbestekoak direlako ingurumenaren osasunarendako: "Jendeak uste du erleak eztitarako direla, baina ez; erleen zeregin nagusia polinizatzea da". Landareak eta arbolak polinizatzeko modu nagusia erleen bidez da; hau da, loreen polena eurekin eramaten dute loretik, iturritik, landare edo arbola hartzaileraino. Prozesu horren bidez, lorearen obuluak ernaldu egiten dira, lore eta fruitu berriak sortuz. Hortaz, erlerik gabe, ekosistema larri zaurituta geratuko litzateke.

Horregatik, erlezainek denon laguntza behar dute liztor hiltzailearen aurka.

"Eskemak puskatu dizkigu"

Etsaiaren aurka egiteko, ahalik eta ondoen ezagutu behar da lehenengo. Itxura aldetik oso samur antzematen zaio: erle arrunta baino hiru aldiz handiagoa da, gutxienez, hiru bat zentimetro luze da –erreginak handiagoak izaten dira–, eta gehienbat beltz kolorekoa, hanka horiztekin. Asiatik dator, eta Europara Frantziatik, Bordeletik sartu zen. Itsasoz ekarritako kargamentu baten etorri zen; uste dute fruta edo egur kargamentu baten etorri zela. Gero, euskal kostaldera ailegatu zen eta, handik, azkar asko ugaldu eta zabaldu da: "Ez genuen espero hain barrura sartzea. Uste genuen Pirinioak muga bat izango zirela, baina ez da horrela izan. Eskema guztiak puskatu dizkigu", esaten du Julian Urkiolak. Are okerrago, "ingurune menditsua eta hezea, Kantaurian duguna, aproposa da *Vespa velutina*-rendako".

Liztorra oso erasokorra eta kaltegarria da. Erlauntzen inguruan egoten da, hegaldian, baina geldikor. "Kanpotik datorren erlea nahiago izaten du. Polenez edo nektarrez zamatuta dator, nekatuta, eta liztorrak eraso egiten dio. Dena dela, txarrena ez da hori, baizik eta, liztorra ikusita, erleak ez direla erlauntzetik irteten, eta gosez eta gaixotasunez hiltzen direla", esaten du Julian Urkiolak.

Erlauntzak ere ez dira behin betiko gotorleku, hala ere; liztorrak horietan ere sartzen dira. Erleei burua errotik kentzen diete eta gorpuak jan egiten dituzte.

Habiak, erdi ezkutuan

Liztor hiltzaileek duten beste defentsa bat, erlezainei begira, habiak egiteko modua eta lekua da. Habiak erraldoiak eta ikusgarriak dira: zirkunferentzia 1,50 metro ingurukoa da, eta gutxienez 60 zentimetro hartzen ditu altueran. Udaberritik udazkenera bitartean, handitzen joaten dira, liztorraren zikloarekin bat.

Altuera handian egiten dituzte habiok: zuhaitz-buruetan, teilatu azpietan... Zuhaitz hostotsuetan-edo egiten badituzte, ordea, antzematen zailak dira. Are gehiago, udaberria dela kontuan hartzen badugu Oñatiko Jon Urtzelai eta Miguel Angel Ormazabal erlezainek Zubillagako euren erlauntzen inguruan ikusi dituzte, eta honakoa esaten digute: "Oraingoz, ez dakigu inguruan habiarik dagoen ala ez. Hostoak jausten direnean ikusiko dugu".

Erlezainen presidenteak esaten duenez, "habia handienak Irunen eta Oiartzunen daude. Besterik dagoen ez dugu jakingo udazkenera arte. Oraingoz, ez dugu beste abisurik jaso, eta ez dakigu agerraldi esporadikoa ote den". Beste habia txikiago batzuk topatu berri dituzte erlezainek: "Altzatik eta Lasartetik sartu ziren liztorrak. Habia txikiak zeuden, biak egiten hasiak, bat teilatupe baten eta bestea itxitura baten inguruan".

Habiak antzematen zailak izan arren, orain da garai onena haiek kentzeko: "Negua pasatzen denean hasten dira habiak egiten. Orain, erreginak ernalduta daude, eta udan 2.000 liztor berri baino gehiago egon daitezke. Horregatik, orain komeni da erreginak harrapatzea", esaten du Jon Urtzelai erlezainak. Liztor langile batzuk dagoeneko jaiota daude, baina gutxienak dira oraindik.

Norberak ez ukitu

Horregatik, erlezainek denon laguntza behar dute. Julian Urkiolak esaten digu zer egin habia bat edo liztorrak ikusiz gero: "Deitu segituan Gipuzkoako Erlezainen Elkartera, edo Foru Aldundira edo Udaltzaingora. Haiek badakite zer egin behar den". Erlezainen elkarteko telefonoa hauxe da: 943 80 56 51; eta e-mail helbidea, hauxe: *erleak@erleakgipuzkoa.org*.

Norbera ez da inoiz habia kentzen saiatu behar, liztorrek eraso egitea eragin dezakeelako. Etxe ondoan bat topatuta ere, dagoenetan uztea komeni da harik eta adituak etorri arte.

Frantzian oso zabalduta dago *Vespa velutina* izurritea, 2004 inguruan ailegatu zirelako lehenengo aleak. Han, gertatu izan da noiz edo noiz liztorrek jendeari eraso egitea; baina, normalean, liztor horiek ez dira bereziki erasokorrak pertsonon aurka. Bestelako himenoptero sozial batzuen antzera –erleak, liztor arruntak...–, erasoa sentitzen denean bakarrik ziztatzen du.

Bestalde, liztor horren ziztadura, mingarria bai, baina ez da arriskutsua. Salbuespen batekin: "Alergikoen kasuan, segun eta ze mailatako alergia duten, erreakzio bat eragin dezake". Beraz, larrialdi zerbitzuetara jo beharko dute segituan alergikoek.

Beroketa globala, errudun

Vespa velutina-ren inbasioak mahai gainean ipintzen du berriz ere ingurumenarekiko dugun harremana. Hala, zientzialariek uste dute "beroketa globalarekin lotutako tenperatura gero eta beroagoek" azaltzen dutela, neurri handi baten, *Vespa velutina* hain agudo eta hainbeste lurraldetan ondo egokitu izana. Horrez gain, tokian tokiko harraparirik ez du liztor hiltzaileak. Akitanian, habiak harrapatzen dituzten eskinoso eta okil berde batzuk agertu dira, baina hemen oraindik ez.

Erle garrantzitsu eta gutxietsia arriskuan dago, beraz; baina errua ez da bakarrik liztorrarena. Gero eta ale gutxiago dago, eta badira urteak dagoeneko populazioa txikitzen doala. Julian Urkiolak esaten duen moduan, "lehen, basoan libre zeudenak desagertu egin dira. Orain, erlea bizi da bakarrik gu, erlezainok, zoro horiek gaudelako, baina ez doa gehitzen, ez. Pestizidekin, herbizidekin... akabatu ditugu asko. Ez dakigu naturan zer egiten gabiltzan".



npa bat. | JON URTZELAI



Julian Urkiola, Goiena telebistan habia bat erakusten. | ARRITXU BARRUSO



Lasarten topatutako habia bat. | JULIAN URKIOLA



Julian Urkiola, habia kentzeko gertu. | J.U.

Plastikozko botila, tranpa hiltzailea

Erlezainek honela egiten dituzte Vespa velutina-rendako tranpak: plastikozko, litroko ur-botila bat lepotik ebaki; barauts txikiarekin potearen goialdean zulo txiki batzuk egin (sar daitezkeen erleek, baina ez liztorrek, ihes egin dezaten), eta, behealdean, zulo handiago batzuk (liztorrak sar daitezen). Metalezko xafla txiki bat potearendako tapa gisa egokitu, urik sar ez dadin; gero, moztu den goiko zatia, tapoi eta guzti, buruz behera sartu potean. Bukatzeko, xafla atxiki behar zaio poteari, horren gainetik atxikita, teilatutxo modura.

Pote barruan lata bat garagardo beltz, baso bat ardo zuri eta goilarakada bat ahabi-zuku ipintzen dira. Koktel hori oso erakargarria da liztor hiltzailearendako, baina ez erleendako. Gero, erlauntz inguruan ipini behar da, zuhaitz-adar batetik zintzilikatuta.

Tranpa hori egokia da ere liztorrak dabiltzan susmoa dutenendako.

Intsektuak akabatzen dituzte

ITXURA *Vespa velutina* oso samur ezagutzen da; handia da (3-5 cm luze) eta torax ia osoa beltza du, behealde horizta batekin. Liztor arrunta (*Vespula vulgaris*) oso desberdina da.

HABIAK Oso habia handiak egiten ditu; borobil edo madari itxurakoak dira, zuhaitz-azalez, hostoz, txistuz eta egur erdi ustelez eginda. Bat ikusiz gero, udaltzainei edo erlezainei deitu.

BEROA Klima beroak gustuko dituzte. Eme bakoitzak kolonia bat sor dezake, eta beroa hastearekin bat has daiteke erruten. Arrak uda bukaeran agertzen dira.

BIZI-IRAUPENA Erreginek urte bete inguru hartzen dute, eta langileen kasuan ez dago datu ziurrik; uste da 30 eta 55 egun bitartean bizi direla.

JANA Intsektu askoren harrapari beldurgarriak dira: erleak, beldarrak, tximeletak, euliak eta beste batzuk. Denboraldi bukaeran, fruitu helduak jaten dituzte.

KALTEAK Erlauntza sarreran geldi egoten da, hegaldian, erleak noiz bueltatuko zain, haiek erasotzeko. Irail eta abendu artean batez ere, erlauntzean sartzen saiatzen da.

DEFENTSA Asiako erleek asmatu dute zelan defendatu: liztorraren gainean pilatzen dira, 45ºC-ko tenperatura sortuz eta liztorra akabatuz. Europan, babes taktika hori oraindik ez dute hain garatuta.



Liztor hiltzailea erlea erasotzen. | GOIENA





Iaz Arrasaten ospatu zuten Mintza eguna. | GOIENA

Ekainaren 4an Mintza egunaren 6. edizioa ospatuko dute Elizondon

Euskaraz hitz egiten trebatu nahi dutenen jaia da zapatuan ospatuko dutena

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Euskara elkarteek, euskaldun berrien eta euskaraz hitz egiteko aukera gutxi duten pertsonek hizkuntzaren erabileran trebatzeko Mintzapraktika izeneko ekimena egiten dute. Hurrengo zapatuan, aurtengo ikasturtean Mintzapraktika programan parte hartu duten pertsonek Mintza eguna ospatuko dute Elizondon, Nafarroan.

Mintzapraktika egitasmoaren helburua da euskara jakitetik euskaraz aritzera egiteko jauzian laguntzea. Horretarako, euskaraz aritzeko, euskaraz naturaltasunez hitz egiten duten lagunak eta euskara trebatu nahi duten pertsonek osaturiko taldeak egiten dituzte. Talde horiek astean behin elkartzen dira euskaraz hitz egiteko eta noizean behin, taldekideen gustuko ekintza osagarriak egiten dituzte.

DATUA

3.600

LAGUN

Aurten 3.600 pertsonak parte hartu dute euskaraz hitz egiteko egitasmoan.

Urtero haziz doan ekimena

1993. urtean Donostian Bagera euskara elkarteak Mintzalaguna izeneko ekimenetik sortu zen Mintzapraktika, eta ordutik, haziz doa urtero parte hartzea. Aurten, 3.600 pertsonek parte hartu dute ekimena egin den 60 herrietan.

Herriz herri eta eskualdetik eskualdera, Mintzapraktika ekimenak izen desberdinak ditu, adibidez, Berbalaguna, Mintzalaguna, Solaskide eta Zahar-Berri. Izen desberdinak baina helburu berdina dute: euskaraz hitz egin nahi duenari laguntzea.

'Nork epaitzen gaitu', Castells, Alvarez, Ferrer eta Zarcorekin

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hitzaldi sorta antolatu du zapaturako, ekainak 4, Bergaran Jose Luis Elkororen askatasuna lortzeko sortu zen plataformak. *Nork epaitzen gaitu* da saioaren goiburua, eta hizlariak izango dira Juanjo Alvarez, Miguel Castells eta Artemio Zarco abokatuak eta Mariano Ferrer kazetaria.

Antolatzaileen deialdian ondorengo hitzak darabiltzate gaia azaltzeko: "Audientzia Nazionalaren jatorria *Tribunal de Orden Público (TOP)* frankista bada eta bere izateko arrazoi bakarra euskal gatazka, orduan ez du etorkizunik".

Saioa Bergarako UNEDen izango da, eguerdiko 12:00etan hasita. Hizlari bakoitzak hamar minutuko hitzaldia egingo du.

Esklerosi anizkoitzari buruzko informazioa banatu zuten zapatuan

ANDER MONEDERO | BERGARA

Egubakoitzean esklerosi anizkoitzaren nazioarteko eguna izan zen eta gaitz honek pertsonengan eragiten dituen arazoak ezagutzera emateko Gipuzkoako Esklerori Multiplearen Elkarteak informazio kanpaina eta diru-bilketa egin zuten zapatu goizean Bergarako azokan.

Esklerosi anizkoitza nerbio sistemaren gaixotasun kronikoa da eta 20-30 urteko adin tartean agertu ohi da. Oraingoz, gaixotasunak ez du sendabiderik, baina gaixotasunaren garapena geldiarazten duten botikekin gaixoek bizitza normala izateko aukera dute. Koordinazio eta sentsibilitate arazoak dira gaitzaren ondorioetako batzuk.

Gipuzkoan 600 gaixo

GEMEk emandako datuen arabera, EAEn 2.000 pertsonek jasaten dute esklerosi anizkoitza, horietatik 650ek Gipuzkoan. GEMEk 400 bazkide baino gehiago ditu eta gaixoei eta euren familiei laguntza eskaintzen die elkarteak.

Elkartearen helburuak dira gaixoei informazioa ematea; gaitzaren inguruko ikerketak bultzatzean; eta administrazio publikoa, erakundeak eta gizartea gaitzarekin sentsibilizatzea.



Esklerosi anizkoitzaren elkarteko kideak Bergaran. | ANDER MONEDERO



ANDER MONEDERO

Presoen aldeko kontzentrazioa egin zuten egubakoitzean

Dozenaka lagun bildu ziren Arrasateko herriko plazan egubakoitzean, euskal presoen eskubideen aldeko kontzentrazioan. Hilero, azken ostiralean egiten dute bilkura, baina egubakoitz honetakorako deialdi berezia zegoen egina. Maiatzaren 7an Arrasaten 'Bizi osorako kartzela zigorrik ez!' leloarekin egindako protestaren osteko lehenengoa zen. Orduan gertatutakoak gertatuta, antolatzaileek ostiralekoa bezalako kontzentrazioetan parte hartzeko deia egin zuten aurreko astean.



AITOR GONZALEZ

Goienagusiren batzarra, egoitzaren kezkarekin

Goienagusi elkarteak Batzar Orokorra egin zuen egubakoitzean Bergarako Migel Altuna institutuan. Bertan, bazkideekin hizpide izan zuten gaietako bat izan zen egoitzarena; Esperientzia Eskolan jardundako lagunek osatu dute Goienagusi elkartea eta lokalak behar dituzte formazioarekin eta bestelako ekintzekin jarraitzeko eta baita honek antolatzeko batzarrak egiteko ere. Arrasaten ez dute topatzen, eta beste herri batean kokatzea ez dute baztertzen. Ekainean hartu behar dute erabakia.

Jaurlaritzak 12,5 milioi euro pasatxo bideratuko ditu euskara sustatzeko

Iazko dirulaguntzekin alderatuta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 356.000 euro gutxiago bideratuko ditu aurten

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurten euskara sustatzeko bideratuko dituen dirulaguntzak onartu zituen joan den martitzenean; hain justu ere, 12.536.000 euro emango ditu euskararen sustapenera zuzendutako proiektuak diruz laguntzera.

Aurreko urtearekin alderatuz, %2,7 murriztu dute laguntza hori; 356.000 euro gutxiago bideratuko ditu (12.892.010 eurokoa izan zen 2010ean). Eta 2009ko dirulaguntzen aldean, %4,3koa izan da jaitsiera.

Behera egin badu ere, egungo egoera kontuan hartuta, "oso zenbaki baikorrak" direla nabarmendu zuen martitzenean Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Gasteizen egindako agerraldian. Honakoa esan zuen:"Sekulako ahalegina egin dugu euskararen sustapenera bideratutako dirulaguntzei eusteko eta lortu dugula esan daiteke, %2,76ko jaitsi baita bakarrik aurrekontuetan. Oso zenbaki baikorrak dira eta orain gure egitekoa da kopuru horiek ahalik eta hobekien kudeatzea".

Bost lerro

Dirulaguntzak bost lerrotan banatuta emango dituzte: Euskalgintza (1,28 milioi), Hedabideak (5,48 milioi), Informazio eta Komunikazio Teknologiak (1,576 milioi), Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (1,8 milioi) eta LanHitz (2,4 milioi).


Euskarazko hedabideei zuzenduta daude, besteak beste, laguntzak. | GOIENA

Hedabideak deialdian euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak sartzen dira, eta aurrekontua 5.480.000 eurokoa da; iazkoa 5.725.000 eurokoa izan zen. 117 proiektu lagundu ziren orduan. Dirulaguntza lerro honen hartzaileak hedabideen jabe diren erakunde pribatuak dira. Helburua da euskarazko hedabideak sendotzea eta, oro har, euskararen presentzia indartzea hedabideetan. Era guztietako hedabideak sartzen dira deialdi honetan: irratiak, telebistak, egunkariak, aldizkariak eta webguneak.

DATUA

%2,7

GUTXIAGO

Horixe da iazko laguntzekin alderatuz aurtengo kopurua murrizten dena.

Bestalde, batez besteko murrizketa handiena euskalgintzak izan du; hain justu ere, 58.000 euro gutxiago bideratu ditu aurten Jaurlaritzak. 2010ean 190 proiektu lagundu ziren diruz. Laguntza mota honen hartzaileak euskararen erabilera gizartean oro har sustatzeko egitasmoak bultzatzen dituzten erakundeak dira.

2012an, urtarrilean

Aurtengo laguntzen berri emateaz gain, datorren urteko asmoez egin zuen berba Auzmendik. Hitzeman zuen datorren urtean dirulaguntza eskatzeko deialdia urtarrilean egina egongo dela. Honakoa esan zuen: "Garai berrietara egokitzen jakin behar du euskarak eta zentzu honetan aurreratu nahi dut hurrengo urteko aurrekontuen diseinuan jada lanean ari garela. Aldaketak datoz, eta aurten hasitako norabide honetan jarraituko dugu lanean".

Udal ordezkari berriei zuzendutako harrera liburua gertatu du Eudelek

Horrekin batera, 'Gobernagarritasunerako akordioa' ere bidali die ordezkariei

M.B. | ARRASATE

Eudelek *Harrera Eskuliburua. Udal Gobernuak ordezkatzen dituzten kargu publikoak gehitzeko gida* gertatu du, zinegotzi berriek udal bizitzan egingo dituzten lehenengo urratsak bideratzen laguntzeko asmoarekin. Bertan, hainbat kontu jasotzen dira, hala nola kargu publiko batek kargua hartzean dituen eskubide eta betebeharrak; Udaleko antolaketa, lege testuingurua eta testuinguru teknikoa; kudeaketa sistema eta erabakiak hartzea; antolaketa egitura; udal politikak eta toki gobernagarritasuna.


Udal ordezkariendako harrera liburuaren azala. | GOIENA

Lehen aldiz sartzen direnei

Eskuliburuarekin batera, *Gobernagarritasunerako akordioa* ere eransten da; dokumentuak Eudelen hainbat gomendio jasotzen ditu, bereziki udal karguen estatutua definitzerakoan, baita oinarrizko zenbait ordainketa irizpide ere. Harrera eskuliburua udaletako egitura politikoetara eta bereziki tokiko gobernuetara lehen aldiz sartu diren pertsonendako da gida hori, eta udaletara gehitzeko prozesuan laguntzea du helburu. Hain justu ere, bakoitzaren udalean kokatzen eta hainbat alderdi garrantzitsu kontuan izaten laguntzeko mapa edo gida da.

Hain justu ere, besteak beste, honako gaiak jorratzen dira gida horretan: herritarrak zerbitzatzeko kargu publikoa, balioak eta etika publikoa, buruzagitza politikoa eta gobernua eta oposizioa bezalako balioak; kargu publikoen eskubideak eta betebeharrak; lehenengo urratsak toki-administrazioan; erakundeen funtsezko hainbat ideia; udal baten esparru legal eta teknikoan orientatzeko oinarrizko ideiak; kudeaketa sistema eta erabakiak hartzea.

Herritarrekiko harremana

Horretaz gainera, Udaleko politika publikoak eta toki gobernagarritasuna, antolaketa-egitura, planak eta programak, zerbitzuak eta prozesuak, talde politikoa, talde teknikoarekiko harremana, herritarrekiko harremana, denbora eta agenda kudeatzea, bilerak eta arau-testuingurua atalak ere badaude aurreikusita *Harrera Eskuliburua. Udal Gobernuak ordezkatzen dituzten kargu publikoak gehitzeko gidan.*

Gabaundiko biaduktua eraikitzen hasi dira AHTrako

M.B. | ARRASATE

Abiadura Handiko Trenaren obren harira, Adifek jakinarazi du Arrasate eta Elorrio artetik pasatzeko Gabaundiko biaduktuaren egitura eraikitzen ari direla. Egiturak 223 metroko luzera izango du eta Arrasaten egongo da.

Trenbideko Azpiegitura Administratzailearen esanetan, biaduktuarekin Gabaundiko erreka babestuko da. Biaduktu hori hiru zatitan banatuta dago eta hiru horietako batek, Bilborako noranzkoan egongo denak, 14 metroko zabalera edukiko du. Noranzko bakarreko beste bi zatiek zortzi metroko zabalera izango dute. Donostiarako noranzko trafikoa desbideratuko duten bidegurutzearen adarrak izango dira horiek.

Ingurumenarekiko eragina

Egitura zati bakoitza gehienez 41 metro neurtuko duten lau zutabek eutsiko dute. Adifek jakinarazi duenez, prozesu konstruktibo berezia zehaztu da horiek egiterakoan, ingurumenarekiko eragina gutxitu nahian. Egitura horiek ez dute oinarrian babesik beharko.

Arrasate eta Elorrio arteko zatiak 4,4 kilometro luze ditu; horietatik 3,6 lur azpitik joango dira, Karraskain (437 metro) y Udalaitz (3.185 metro) tuneletatik. Horiei Kobate eta Gabaundi biaduktuak gehituko zaizkie.

Urretxu eta Antzuola arteko bide berria 57 milioi euro kostako da

Aurrera doa Urretxu eta Antzuola arteko bide berria egiteko proiektua. Errepide berriak 2,7 kilometroko luzera edukiko du eta 57 milioi euro balioko du. Deskargako portuaren azpitik pasatuko da, tunel baten bidez. 30 hilabetean eginda egotea da asmoa; hain justu ere, 2013. urte amaierarako egon beharko luke amaituta.

Izena eman daiteke Debagoieneko pintxo lehiaketan

Mondragon Unibertsitateko ikasle bik antolatuta, Debagoieneko pintxo lehiaketa egingo dute ekainaren 11n Arrasaten. Bailarako taberna guztiak daude gonbidatuta plazan egingo den ekitaldira. Parte hartu gure dutenek *gallastegi.ego@gmail.com* edo *jondileinn@gmail.com*-era idatz dezakete.

Enpresak hobetzen doaz, baina ez dira nahi adina lehiakorrak, dio Adegik

Gipuzkoako enpresaburuen presidente Eduardo Zubiaurrek egoera ekonomikoaren gaineko analisia aurkeztu zuen eguenean

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hitzarmen kolektibo berria negoziatzeko azken epea bukatzeko gertu dagoenean –oraingo astea dute epemuga–, Adegik, Gipuzkoako enpresaburuak batzen dituen erakundeak, Eduardo Zubiaurre bere presidentearen ahotan, soldatak produktibitatearekin lotuta egotea ezinbesteko neurritzat jo du Gipuzkoako enpresek bizi duten "kinka larria" gainditzeko; alegia, enpresok lehiatzeko dituzten "zailtasun handiak" gainditzeko. Adierazpen horiek egin zituen Zubiaurrek joan den eguenean, Adegiren batzar orokorra ixteko ekitaldian.

Gipuzkoako egoera ekonomikoaren analisia eta enpresaburuei egindako inkestaren emaitzak ere joan den astean aurkeztu zituen Adegik, eta lurraldeko ekonomiaren bi aldeak azaldu ziren.



Ramon Zenarruzabeitia, Jose Miguel Ayerza, Eduardo Zubiaurre, Ana Belen Juaristi eta Patxi Sasigain. | ADEGI

%21 gehiago esportatu

Hasteko, Zubiaurrek esan zuen honakoa izan dela Adegi sortu zenetik egin duten lehenengo Urteko Batzarra ETAren "estortsioaren mehatxu eta xantai" barik. Hauteskunde osteko giroan, esan zuen Adegik "beharrezkoa" duela "gobernu egonkorra".

Batzarraren eta Adegik egin duen analisiaren edukiei dagokienez, albiste onekin hasi zen Zubiaurre; Adegiren arabera, lehenengo hiruhilabetean %21 handitu dira esportazioak 2008an –Gipuzkoako esportazio bolumen handieneko urtea– adina esportatu da. Industria jarduera ere bere onera bueltatzen hasi da, %3,5 hazi baita epe horretan. Bi motore horiei esker, aurreko hiruhilabetetik hona %0,3 hazi da Gipuzkoako ekonomia. Adegik uste du BPGa %1 handituko dela aurten, eta urteko bigarren erdian lanpostu garbiak sortzen hasiko direla.

DATUA

%3,5

HAZI

Industria jarduera %3,5 handitu da. Eraikuntza, aldiz, %4,4 txikitu da.

ESANAK

"Soldatak produktibitateari lotuta egon behar dira"

EDUARDO ZUBIAURRE
ENPRESABURUA

Egoera "jasanezina"

Gipuzkoako enpresen hiru kezka nagusiak esan zituen: Espainiako ekonomiaren ahulezia, lan-kostu handiak eta lehengaien kostuak. "Gipuzkoako enpresek lehiakortasun erronka itzela dute", esan zuen Zubiaurrek. Soldatak produktibitatea baino gehiago handitzeaz gain, Gipuzkoak Euroguneko lan-kostu handienetarikoak ditu langile bakoitzeko, eta egoera hori "jasanezina da epe ertainean. Bi neurri mota behar ditugu: epe luzera produktibitatea bultzatzen dutenak eta soldaten kostua produktibitatea handitzearekin lotzen dutenak", gaineratu zuen.

Aurrera atera ezinik dagoen hitzarmen kolektiboaren erreformaz, hauxe esan zuen: "Lan-erreformen prozesuan, hitzarmen kolektiboa falta da. Gure lan-harremanak zurrunak izatearen eta lan-merkatuaren ajeen erru handia zor diogu hitzarmen kolektiboari".

Eneko Knörr | Ideateca enpresaren sortzailea

"Edozein ideiak balio du enpresa bat sortzeko; ez du apartekoa izan behar"

Ekintzaile izateko gomendio batzuk eman dizkie Eneko Knörr-ek MUko ikasleei



Eneko Knörr. | TXOMIN MADINA

L.K./TXOMIN MADINA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak ekintzailetasuna sustatzeko egindako Ekiten izeneko topaketan Eneko Knörr izan zen gonbidatuetako bat. Bilboko Ideateca enpresak poltsikoko telefonorako jokoak egiten ditu, eta Silicon Valleyraino ailegatu da.

Ideateca enpresa gaztea da oraindik. Zein da zure esperientzia orain arte?

Hasierak beti dira gogorrak, baina oso pozik gaude. Lehia handia dagoen arlo baten, dagoeneko 86 herrialdetako jendeak dauzka guk sortutako jokoak bere telefonoan, eta enpresa handiekin euren maila berean lehiatzen gara gaur egun.

Gehienek uste dute enpresa bat sortzea zaila dela. Zer esango zenieke?

Nik Ekiten topaketetan esandakoarekin lortu nahiko nuke hamar bat lagunek pentsaera aldatzea eta enpresa bat sortzera animatzea. Gaur egun jende gehienak nahi du funtzionario edo soldatapeko izan, baina ekintzaileok sortzen ditugu lanpostuak, eta behar-beharrezkoak gara.

Askotan esaten da euskaldunok izaera eta espiritu ekintzailea dugula, baina hori aspaldi bukatu zen. Eta jendarteak behar du lanpostuak eta enpresak sortzen dituen jendea.

Ze gomendio emango zenioke bere enpresa sortu nahi duen bati?

Motibazio handia behar da, eta argi izan behar du norberak enpresa aurrera atera nahi duela. Zorte pixka bat ondo dator beti, baina lana da gakoa.

Bestalde, jendeak uste du oso ideia berezia, berritzailea edo apartekoa behar dela enpresa bat sortzeko, eta ez da horrela; edozein ideiak balio du, nahiz eta mota bereko enpresak existitu.

Eskola jangeletan normal dabiltza lanean, egubakoitzetik

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola jangeletako auzian aurre-akordioa lortu zuten zuzendaritzak eta UGT, ELA eta LAB sindikatuek eguen arratsaldean. Langileen batzarrek akordioa berretsi behar dute orain. Lau aste egin dituzte greban langileek, euren lan baldintzak aldarrikatzeko; batik bat, Hezkuntza Saileko langileekin parekatzea.

Lujua bizkaitarra, ondo kokatuta Lazpiurren ordezkoa izateko

Miguel Angel Lujua ekonomialari bizkaitarrak, Mutualiako zuzendari gerente eta Euskalit fundazioko presidenteak, aukera handiak ditu Miguel Lazpiurren ordezkoa izateko Confebask-en presidente gisa, uztailetik aurrera. *Deia* egunkariaren arabera, Cebek enpresaburu bizkaitarren elkartearen babes ia osoa du Lujuak.

Euskadiko Kutxako 200.000 bezerok dute Postamail zerbitzua

Euskadiko Kutxako 200.000 bezerori baino gehiagori alta eman zaie Postamailen, eta urtean 3.500.000 gutun baino gehiago bidaltzeari utzi dio Mondragon taldeko kreditu kooperatibak.

Postamail banku-korrespondentzia elektronikoaren zerbitzua da, eta paperezko gutunen bidalketak ordezkatzen ditu.

Banketxetik 155 euro ateratzeko dei egiten dute 'suminduek'

Gaurko, hilak 30, 15-M delako mugimenduko kideek dei egiten dute norberak banketxetik 155 euro atera ditzan, eguneko edozein unetan. "Bankuak eta espekulatzaileak izan dira krisiaren errudun handienak; horregatik, eurak izango dira gure ekintzaren jomuga". Gaineratzen dute "borroka masiboa" eta biolentzia bakoa egingo dutela.

Lan-gaixotasunak 106 milioi kostatu zitzaizkion Osakidetzari

Lanak eragindako gaixotasunak tratatzea 106 milioi euro baino gehiago kostatu zitzaion Osakidetzari 2008an; hau da, urte hartan Euskadik izan zuen BPGaren (67.924,5 milioi euro) %0,16, eta Euskadiko osasungastu publikoaren (3.200 milioi euro) %3,3. Euskadiko lanbide gaixotasunen lehenengo mapa egin du Osalanek, eta datu horiek eman ditu.

Sol Picciotto eta Angela Melville | Lege Soziologia Institutuko zuzendari zientifikoak

"Oñatiko Lege Soziologia Institutua erreferente da nazioarte mailan"

- Giza ekonomia landuko dute uztailaren 6tik 8ra egingo duten udako kongresuan
- Irailean emakumezko lehen zuzendaria izango dute: Angela Melville australiarra

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Sol Picciotto 2009ko irailean heldu zen Oñatira, Nazioarteko Lege Soziologia Institutuko zuzendari zientifiko lanak egitera. Bi urteren ondoren, irailean emango dio lekukoa Angela Melvilleri. Dena den, kargua utzi aurretik, udako kongresua antolatu eta zuzendu beharko du. Angela Melville izango da emakumezko lehen zuzendaria. Haiekin egin dugu berba, orainaz eta etorkizunaz.

Udako kongresua egingo duzue uztailaren 6tik 8ra.

Sol Picciotto: Ikasturte bukaerako ekitaldi potoloena egitea falta zaigu. Guk antolatzen dugu, Mondragon Unibertsitate, Deustuko Unibertsitate, EHU eta Euskal Herriko Kooperatiben Kontseiluaren laguntzarekin.

Urtero gaia aldatzen duzue. Zein izango da aurtengoa?

S.P.: Oro har, giza ekonomiari buruz egingo dugu berba, pertsonak aurretik jartzen dituzten jarduera ekonomiko eta antolaketa formak aztertuta. Krisi ekonomikoko egoeran, premiazkoa da azkeneko urteotan ontzat jo diren ikuspegi batzuk birpentsatzea, beste negozio sistema eta antolakuntza ekonomikoen esperientzia berriro diseinatuta eta ideia eta erreforma berriak aztertuta. Horren barruan, kooperatibismoak leku zabala hartuko digu. Kooperatibismoa oso inportantea da, bai hemen eta baita mundu zabalean ere. Mondragon Taldea erreferente da askorendako.

Gai hau aukeratu dugu krisiaren ondoren gori-gori dagoen gaia delako. Irtenbideak ematen ahaleginduko gara.

Gai horren inguruan berba egiteko, mundu mailako espezialistarik onenak etorriko dira gurera. Oraingoz, 70 bat lagunen izenak ditugu. Dena den, aurreko urteetako parte-hartzea ikusita, 200 bat espero ditugu. Argentina, Brasil, Mexiko, Miami, Hong Kong eta Portugalgo ikertzaileak etorriko dira. Eta baita Mondragon Unibertsitatekoak ere.

Bi eguneko kongresua da, baina ekintza askorekin.

S.P.: Udako kongresua oso intentsua izaten da. Irekiera ekitaldiaren ondoren, hitzaldi eta mahai inguru asko izango ditugu. Dena den, informazio gehiago gura duenak *www.iisj.net* atarian begira dezake. Hor zintzilikatu ditugu kongresuaren egitaraua eta izen-emate orria.



Sol Picciotto eta Angela Melville, unibertsitateko klaustroan. | MIREIA BIKUÑA

Udako kongresuaz gain, beste hainbat ekintza antolatzen duzue.

S.P.: Udako kongresua da ikasturteko azken ekitaldi nagusia, baina urtean zehar beste bospasei ekitaldi antolatzen ditugu. Adibidez, irail bukaeratik martxo bukaera arte masterra antolatzen dugu. Nazioarte mailako 15-20 ikasle hartzen ditugu. Eskolak hartzen bukatzen dutenean, euren herrialdeetara bueltatzen dira tesina egiteko. Bestalde, apiriletik uztailera arte *Work Shop* direlakoak antolatzen ditugu. Astero gai ezberdin baten inguruko tailerrak egiten ditugu. 20 bat lagunek parte hartzen dute.

> **"Lege soziologiako espezialista onenak etorriko dira udako kongresura"**

> **"Lehen emakume zuzendaria izateak 'plus' bat ematen dio karguari"**

Nazioarteko Lege Soziologia Institutua erreferente da?

S.P.: Bai, hala da. Mundu mailan oso ezaguna da lege soziologia lantzen duten ikerlari eta espezialisten artean. Lege soziologiari buruz berba egiten dugunean Oñatiko unibertsitatea hartzen dute oinarri moduan.

Irailean utziko duzu kargua. Nola laburbiltzen duzu bi urteko egonaldia?

S.P.: Oso gustura egon naiz. Oso aberasgarria izan da. Alde batetik, norberak ematen duenagatik, eta beste alde batetik, nik jaso dudanagatik. Aurrerantzean, bi urtean, zuzendarien ordezkaria izango naiz Patronatuan, eta urtean bitan etorriko naiz Oñatira bileretan parte hartzera.

Nola aukeratzen duzue zuzendari zientifikoa?

S.P.: Patronatuan daude Lege Soziologiako Ikerkuntza Komiteko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Lege soziologiako adituek hautagai zerrenda proposatzen diote Patronatuari; azken horrek aukeratzen du.

Irailetik aurera, lehen aldiz, emakume zuzendaria izango duzue. Angela, pozik zaude?

Angela Melville: Bai. Ardura handia duen postua da, baina gustura egingo dut lan. Oñati ezagutzen dut. Aurretik zazpi alditan egon naiz unibertsitatean masterreko ikasleei eskolak ematen. Hori horrela, ez zait arrotza egingo. Gainera, langileak ezagutzen ditut.

Urduri nago, baina Solen aholkuak kontuan hartuko ditut. Bestalde, lanera eta aisialdirako oso aproposa da Oñati: mendiak, hondartza oso gertu... Erronka handia da. Dena den, iraila heltzeko gogoa badaukat.

Lehen emakume zuzendaria izango zara.

A.M.: Bai, orain arte gizonezkoek bete dute kargu hori. Lehen emakume zuzendaria izateak, beste *plus* bat ematen dio karguari. Dena den, moldatuko naiz.

Langileak ezagutzea ere abantaila izango da, ezta?

A.M.: Elkarrekin lan egitera ohitu egin beharko dugu. Nork bere ohiturak ditu, baina euren laguntzarekin azkar ohituko naiz.


Australiarra zara, baina Manchesterren bizi zara.

A.M.: Zazpi urte daramat Ingalaterran ikerketak egiten. Zuzendari zientifiko kargua bete ondoren, Australiara itzuliko naiz Adelaidako unibertsitatera irakasle lanak egitera.

Dena den, unibertsitateko lana egiteaz bat, zure ikerketekin jarraitzeko aukera izango duzu.

A.M.: Arduragabekeria-medikuen gaineko ikerketarekin dihardut, gaixoek eta euren senitartekoek izandako arazoak ikertzen. Zuzendari kargua hartzen dudanean, ikertzen jarraituko dut.

ZABALIK



ENEKO BLANCO
'http://goiena.net/iritzia/'

Amets egitea librea da

Hauteskundeak bukatu dira, herriko kaleetara normaltasuna bueltatu da. Hitzaldi, promesa, propaganda eta abarretako mezuak bidali dizkigute. Kanpainan aurkeztutako aukera ezberdinak kolore guztietakoak izan dira; Euskal Herrian gertatzen den errealitatearen itzala da, nonbait. Bi erreflexio konpartitu gurako nituzke:

Nire lehenengo erreflexioa da nola gauzatu diren hauteskunde hauek. Biolentziarik gabeko hauteskundeak ez ditut ezagutu oroimena heltzen zaidan arte. Egia da kanpaina hasieran hauteskundeak kutsatzeko mugimendu indartsua izan zela Bildu alderdia legez kanporatu nahian; zorionez, errugabe printzipioa nagusitu zen politikarien interesen gainetik. Beharbada, Strauss-Kahn kasuan ezin genezake gauza bera esan, baina hori beste erreflexio bat idazteko nahikoa da. Gizakiak ahazteko daukan ahalmena kontuan hartuta, iraganeko akatsetik ikastea eta etorkizunean harri berean berriro ez jaustea izango da gizarte honen erronka. Beraz, gaur egungo eta etorkizuneko kanpainak esparru garbi batean gertatzea izango da desafioa. Ez ditzagun ahaztu bizitzako garai gogorrak eta ez diezagutela blokeatu etorkizunera itxaropenez begiratzeko daukagun ahalmena.

"Iraganeko akatsetik ikastea da gizarte honen erronka"

Nire bigarren erreflexioa 15-M mugimenduaren haritik doa. Historiak erakutsi digu gizarteak antolatzeko sistema diferenteen aurrean demokrazia dela sistemarik hoberena. Akatsak dituela... noski... pertsonok gestionatzen dugu eta. Horrela ikusita, 15-M mugimenduak demokrazia bera hobetzea duela helburutzat ikusi nahi dut, gaur egun politikarien eta gizartearen artean dagoen tartea murrizteko era bat. Soka tentsioaz mantentzeko. Esan daiteke ameslari batzuen ametsak izan daitezkeela hor nonbait. Tamalez, nire pragmatismoa amets egiteko gaitasunaren aurrean indartsuagoa da, baina inork ez zuen esan amestea libre ez zenik.

USTEAK USTE


XABIER URTZELAI | 'xurzelai@goiena.com'

Hiltzeko moduak

Atean gertatu den Xavi Tondoren heriotzak eman dit zer pentsa; izan ere, heriotza guztiak ez dira berdinak. Kirolarien kasuan, gehien maite duten jarduera horretan hil badira, heriotzak, eta bizitzak berak, beste esangura bat hartzen duela dirudi. Airton Senna edo Gilles Villeneuve ez ziren belarra mozteko makinak harrapatuta hil, ezta Iñaki Otxoa de Oltza, edo, gertuago etorrita, Felix Iñurrategi ere. Gehien maite zuten hori egiten, muturreko kirol jardueran zebiltzala hil ziren, eta halaxe gogoratuko ditugu. Zenbatetan jaitsiko zituen Tondok mendateak topera, kurba bakoitzean larruazala jokoan jarrita. Baina garaje bateko ateak harrapatuta hil da.

KALE INKESTA

Nola ikusten duzu Realak Martin Lasarte kanporatu izana?



XABIER ARBIZU
ARRASATE

"Realak aldaketa bat behar duela uste dut. Lasartek oso ondo egin du lana, eta eskertzekoa da, baina Reala handi geratzen zaio".



FERNANDO URANGA
ARRASATE

"Oso txarto. Helburuak bete ditu eta jarraitzea merezi zuen. Beti bezala gabiltza, entrenatzailea aldatu eta aldatu. Hori ez da ona taldearendako".



ANE BERAZA
ARRASATE

"Gaizki. Jarraitzea merezi zuen, helburuak bete dituelako. Baliteke Realari aldaketa ondo etortzea, baina gauzak ez dira horrela egiten".



BITTOR ARRIARAN
ARRASATE

"Txarto. Helburuak betetzeaz gain, taldea eta zalegoa batu ditu. Gainera, ordezkoa aurkitu aurretik bota dute, eta moduak ez dira batere egokiak izan".

HANDIK ETA HEMENDIK

Ikuspegi estrategikoa

Pello Urzelai
http://www.berria.info/blogak/pello/

Aldaketa garaian ezinbestekoa da ikuspegi estrategikoa, are gehiago herri baten etorkizunaren inguruko kezka izanez gero. Maiatzaren 22ko hauteskundeen emaitzak ikusita, bi indar nagusi ageri dira, haien bizkar Euskal Herriaren geroaz erantzukizun berezia dutenak: EAJ eta Bildu. Gainera, nahiko parekaturik gelditu dira. EAJk 333.307 (NaBairen emaitzak kontuan hartu gabe) eta Bilduk 315.977. Haien esku dago, nagusiki, garai berria sendotzea. Espazio abertzalearen barneko norgehiagokak alde batera utzita, herri osoari begirako konponbide plan bati heldu beharko liokete, herri ikuspegiz eta ikuspegi estrategikoz.

Erantzukizun hori nabarmenagoa da, beste eragile nagusien jarrera eta apustuak ikusita.

PPk eta alderdi sozialistak egungo egoerari eustearen aldeko apustua egin dute.

PPrengandik aurreikusita zegoen.

PSEren kasuan zailagoa da ulertzea PPrekiko aliantzari eustea, zein emaitza txarrak jaso dituen eta zein oinarri faltsutan sostengatzen den kontuan hartuta.

Ez da harritzekoa horregatik Iñigo Urkulluk Patxi Lopezen dimisioa eskatu izana.

Patxi Lopezek garrantzi handiko bi mugimendu egin ditu hauteskundeen ondoko bere lehen agerraldian.

Batetik, bat egin du PPrekin Bildu baztertzeko estrategian.

Ez da modurik hoberena bakerako aukera sendotzeko ekarpenik egiteko.

Ez zeukan horren beharrik, Eusko Jaurlaritzaren ituna iraunaraztea ez bada.

Hau da, gobernuan jarraitzeko helburuari lehentasuna ematea tartean ez badago.

Jesus Egigurenek eskatzen duen jarrera aldaketa "erradikala" egin beharrean, PPrekiko menpekotasuna Bigarren mugimendua nabarmena eta esanguratsua izan da: PSOEren aparteko kongresuaren alde agertu da, Jose Luis Rodriguez Zapateroren planen kontra, eta haren nagusitasuna auzitan jarrita.

Kongresu aurreratuaren irtenbideak Zapateroren denbora politikoa murriztuko luke eta agintea indargagabetuko.

Hau da, bake prozesu bat bultzatzeko aukera baztertuko luke.

Irudi luke, gainera, Patxi Lopezen mugimendu hau (Rodolfo Aresen laguntzaz) Bildu Auzitegi Konstuzionalak legeztatu izanaz damu agertu den Alfredo Perez Rubalcabaren mesedetan egina dagoela.

Patxi Lopezen aipatutako mugimenduetan gehiago sumatzen da alderdi ikuspegia (aparatuaren jokamoldea) agintari ikuspegia baino.

Horregatik, udal eta foru erakundeen inguruko itunak mahai gainean jartzean ezin da alde batera utzi ikuspegi orokorra, alderdi sozilistaren barruko egoera, Espainiako Gobernuaren egoera eta hauek euskal auzian eduki lezaketen eragina.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Julen Iriondo
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

VII XABIER ORTIZ DE LUZURIAGA BTT


LEGAZPI Hegialde

2011ko ekainak 5



- Inkripzioa 08:00/09:00 (10euro)
- Omenaldia 09:00
- Irteera Jarraian
- Hornidura Brinkola/Korosti/Hegialde
- Ibilbidea 37Km

- Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen frogan sortzen diren kalteak.
- Opariak, dutxak eta mangerak egongo dira.
- Kaskoaren erabilera derrigorrezkoa izango da.



Laguntzaileak:
Hegialde auzoko elkartea

Antolatzailea:
Legazpiko Udala

OIARTZUN BIZIKLETAK - KARABANAK

MGS Mutua General de Seguros euromutua
ENRIKE BEZUNARTEA
Santa Kutz 3, Legazpi
Agente de Seguros Exclusivo M006772462820D
www.mgs.es

ZURIZURI labandegi industriala
Telf:943 73 12 34
Legazpi

ALKAIN elektronika
Telf./ Fax: 943 73 13 25 - Lau-bide, 29 bajo - 20230 LEGAZPI (Gipuzkoa)
e-mail: electroalkain@ gmail.com

gizarte kutxa

GOIERRIKO hitza info

vesga sustrai FRUTA - DENDA
Nafarroa Kalea,11 Tel.943 73 10 74
Lau-Bide Kalea,27 Tel.943 73 17 20
LEGAZPI

TTT EJES, S.A

HIZKUNTZA liburudenda
Laubide 29 20230 LEGAZPI T. 943 72 41 48

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

U.Z. S. Coop. Ltda.
ASPIRACION FILTRACION CALDERERIA

GARA

zabadis BANAKETAK

EROSKI city zurekin

ZERKI Kirol Zerbitzuak

PEUGEOT ZERBITZU OFIZIALA
HEGIALDEAUTO
LEGAZPI-URRETXU

ONA industria gráfica

MENDILAN LEGAZPI, S.L.
Baso lanak - Trabajos forestales

legazpiko GAZETXA

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Koldo Pereira | EAJko zinegotzia (1980-1993 eta 1997-2003)

- Diktadura amaitzean, Udalaren lana erdialdetik atera eta herri guztira zabaldu genuen
- San Juango industrialdea biziberritzeko plana Jaurlaritza berriak gelditu zuen
- Biztanle kopuruagatik, Diputazioak Bergaran antzoki bat eraikitzeari uko egin zion

"Errege Seminarioan zegoen tresneria, herriko ondarea den heinean, Udalari zegokion zaintzea"

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Koldo Pereira ziurrenik ez da inoiz politikatik aldenduko. Zinegotzi izateari duela 8 urte utzi bazion ere, oraindik bere inguruan dabil. Harekin hitzordua ere batzokiko bere bulegoan egin dugu. Horrelakoa da Koldo, demokrazian parte hartzen duen bergarar horietako bat.

Ia demokraziarekin batera iritsi zinen zu Udalera, ezta?

Ba, bai. Hainbat aldaketa izan ziren urte hartan eta aldaketa haiekin batera ni sartu nintzen. 1980ko abuztua zen eta Larragaña hil ostean sartu nintzen ni lehenengoz Udalera, zinegotzi.

Zelako egoera aurkitu zenuen?

Erronka handia izan zen hura. Guztia egiteko zegoen. Guk herri inkesta egin genuen eta galdeketa haren emaitzei begira ekin genion lanari. Herriak zein behar zituen jakiteak izugarri erraztu zigun lana. Hala ere, ez zen erronka erraza izan.

Ordura arte alkateek ez zuten erabakitzeko tarte handirik izango, ezta?

Ez tarte, ezta dirurik ere. Diputazioak eratu arte herriek oso diru gutxi jasotzen zuten eta udalak ez zeuden herritarren esku.

Kultura eta Kirol zinegotzia izandakoa zara. Bi arlo horietan egiteko lan asko zegoen.

Udalera iritsi nintzenean, Bergarak frontoi pare bat eta igerilekuak besterik ez zuen. Labegaraietako kiroldegia egin genuen, eta ez zen lan erraza izan, lurrak Cerrajera lantegiarenak ziren, Udalak erosi egin behar zituen eta gero kiroldegia eraiki; ez zen egun batetik bestera egiteko moduko lana.



Koldo Pereira, Errege Seminariotik berreskuratu zituzten hainbat objekturen aurrean. | IMANOL GALLEGO

Egindako proiektuez hitz egin dugu, baina zein proiektu geratu zaizu hor nonbait galduta?

Ez guri bakarrik, udalbatza gehienek hilerri berria eraikitzeko nolabaiteko tramiteak egin dituzte, baina, oraingoz, paperean geratu da dena. Nik dakidala, hiruzpalau proiektu egon dira, baina arrazoi bategatik edo besteagatik ezin izan dira aurrera atera. Dena den, esan dudan moduan, ia udalbatza gehienek arazo hori konpontzeko ahalegin bat edo beste egin dute.



Koldo Pereira, bilkura aretoan. | BERGARAKO UDAL ATXIBOA, JUAN IDIGORAS FONDOA

"Udalbatza gehienek hilerri berria eraikitzeko asmoa izan dute"

"Labegaraietako kiroldegia eraikitzea ez zen tramite erraza izan"

Zure arlora bueltatuz. Bergara, kultura kontsumitzeaz gainera, kultura asko sortzen duen herria da. Zergatik ez da inoiz tamaina handiko antzokirik eraiki?

Bere garaian Diputazioak zenbait azpiegitura kultural egiteko diru partida bat atera zuen eta Bergarak diru horrekin antzoki bat egiteko asmoa azaldu zuen, baina ezin izan genuen. Partida bakoitzak plegu asko zituen, eta, Diputazioaren iritziz, biztanle kopuru minimo bat behar zen antzokia eraikitzeko. Azkenean, denok dakigun moduan, Arrasatek Amaia antzokia dauka eta Bergarak ez.

Aurrera ateratako zein ekintzarekin gelditzen zara?

Gogoan daukat lan handia izan genuela Errege Seminarioan zeuden animalia disekatu eta kimikako tresneria guztia bertatik atera eta behar bezala gordetzen. Guk hauts pila batzuen artetik zenbait pieza baliotsu berreskuratu genituen, eta hori oso garrantzitsua dela uste dut. Seminarioan zegoen patrimonioa berreskuratzea lan izugarria izan zen arren, Bergararen ondarea den heinean Udalak zaindu beharra zuen.

Etorkizuneko proiektu bat aipatu duzunez, galdera erraza datorkit burura: ze falta zaio XXI. mendeko Bergarari?

Gaur egun, industrialde indartsu bat falta du herriak. Gogoan daukat Udalean nengoela Eusko Jaurlaritzarekin San Juan inguruan industrialdea beste modu baten kudeatzeko tramiteak hasi genituela, baina Jaurlaritzan egondako gobernu aldaketak proiektu hura bertan behera utzi zuen.

MAGAZINEA
GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

HERRIAK

ARETXABALETA

Autobus geltoki berriak Lausittan, Txarapean eta Araba etorbidean

- Herritarren eskaerari kasu eginez, markesinen kokaguneak berrantolatu ditu Udalak
- Lanean dabiltza orain; Araba etorbidekoak izan ezik, gainerako geltokiak jarrita daude

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aldaketak daude Aretxabaletako autobus geltokietan. Herritarren eskaera kontuan hartuta, geltokien berrantolaketa egitea erabaki du Udalak. Orain arte norabide bakoitzean erdialdeko eta Araba etorbideko geltokiak izan badira, laster hiru izango ditu herriak norabide bakoitzean; hain justu ere, Lausittan, Txarapean eta Araba etorbidean.

Inaxio Garro jarduneko alkateak azpimarratu du urteekin handituz joan dela herria, eta, ondorioz, aretxabaletar askorendako urruti geratu direla egungo geltokiak. Honakoa azaldu digu: "San Migel, Santakurtz, Lausitta eta Otalora kaleetako hainbat bizilagun dira azken urteotan autobus geltoki berria etxebizitzetara hurbiltzeko eskean ibili direnak. Eskaeretako batzuk idatziz eta beste asko ahoz transmititu dizkigute".

Horretaz gainera, orain dela urtebete inguru, zaharren egoitzara bisitan etortzen diren beste 160 lagunek sinatutako eskaera jaso zuten Udalean. Alkateak gaineratu du kontuan hartu beharra dagoela laster eskaera handitu egingo dela, Mondragon Unibertsitatea martxan jartzen denean.



Dagoeneko jarrita dago Lausitta kaleko autobus geltoki berria. | MIRIAN BITERI

Datozen asteotarako

Datozen asteotarako gertu izan nahi dute guztia. Arabako ibilbideko markesinak dira oraindik jarri barik daudenak. Garroren esanetan, horiek amaitutakoan, Pesak autobusen ordutegia bidaliko du eta hori markesinetan txertatuko da, herritarrek informazioa erabilgarri izan dezaten.

Alkateak azaldu du markesinen aurrekontua 93.000 eurokoa dela. Horren zati bat Foru Aldundiak ordainduko du. Kopuru horri igeltsero eta argiketarien kostua gehitu behar zaio; hain justu ere, 25.000 euro.

Bi enpresak egin dituzte horiek. Ikerlanek teknologia jarri du eta Arrasate Kristaldegiak kristal bereziak jartzeko ardura dauka. Bestalde, Construlan enpresak du Araba ibilbideko eta Lausittako lanen ardura. Txarapeako obra zibila, ostera, Bruesak egingo du.

Geltoki berrietako markesinak ez dira nolanahikoak izango; punta-puntako teknologia izango dute. Honakoa esan digu alkateak: "Autobus geltokiak tokiz aldatzeko erabakia hartu genuenean, eta markesina berriak jarri behar zirenez, iruditu zitzaigun une egokia zela markesinei balio erantsia ematen dien teknologia berriaz hornitzeko". Besteak beste, erabiltzaileendako interesgarria izan daitekeen informazioa eskainiko duen ukimen pantaila, argi artifiziala eta irratia izango dituzte horiek.

Gaur egun, Arrasaten, esperientzia pilotu moduan, Aretxabaletan jarriko diren markesinetako bat dago jarrita. Horren harira, Garrok azaldu du Aretxabaletan jarriko den sorta ez dagoela beste inon jarrita. Hortaz, esan daiteke alor horretan "aitzindaria" izango dela, eta beste herri batzuei "bidea" egingo diela. Proiektu horren helburuaz ere jardun du alkateak. Haren esanetan, plana oso-osorik ikusita, bi dira helburuak: alde batetik, autobus geltokiak ahal den eta aretxabaletar gehienengana hurbiltzea garraio publikoa sarriago erabil dezaten; eta bestetik, markesinetan herritarrei beste informazio bide bat irekitzea.

Azbeko geltokia

Bestalde, orain arte Azbeko geltokia zen erdiguneko geltokia. Berrantolaketarekin, hori desagertu egingo da. Alkatearen arabera, hasiera baten, esandako geltokia mantentzea zen aztertutako aukeretako bat, eta autobusa Sankurtz kalean behera joatea. Errepidearen zabalera kontuan izanda, eta Kurtzebarri Eskola ondotik igaroko zen trafikoa handitu egingo zela pentsatuta, aukera hori baztertu egin zuten herriko udal ordezkariek.

ESANAK

"San Migel, Santakurtz, Lausitta eta Otalorakoek eskatu dituzte"

INAXIO GARRO
ARETXABALETAKO ALKATEA

Puntako teknologia duten geltokiak

UKIMEN PANTAILA
Informazio asko eskainiko duen ukimen pantaila izango dute; besteak beste, autobus eta osasun zentroko eta larrialdietarako telefono zenbakia.

ARGIA
Argi artifiziala ere izango dute Lausitta, Txarapea eta Araba etorbidean jarri diren geltoki berriek; automatikoki piztuko da hori, erabiltzaile bat sartu orduko piztuko dena.

IRRATIA
Aisialdian ere pentsatu dute; markesina berriek irratia izango dute. Argiekin bezala, erabiltzailea sartu orduko irratia piztuko da, hark entzun dezan.



Garaian egin zuten familia argazkia Eskola Profesionaleko ikaskide ohien ospakizunean batutakoek. | JULEN IRIONDO

ARRASATE

Ikasle eta irakasle batera, mende erdi geroago

- Arrasateko Eskola Profesionalean elkartu dira berriz
- Urte batzuk eta gero berreskuratu dute ospakizuna

JULEN IRIONDO | ARRASATE

2002. urtean galdutako ohitura berreskuratu eta berriz ere elkartu ziren zapatuan 1958 eta 1964 urteen artean Arrasateko Eskola Profesionaleko ikasle izandakoak eta irakasle izan zituztenak. Industria maisutza, ofizialtza eta delineatzaile ikasle izan zirenendako zen hitzordua, eta aukera zuten 90 ingurutik 65-batek erantzun zioten deialdiari. Eta hauekin batera, hamazazpi irakasle ohik: hain justu ere, hauek omentzeko helburuarekin –eta baita guztiak elkartu eta batera egun eder bat pasatzekoarekin– antolatu zuten egun-pasa ikasle izandakoek.

Meza entzun zuten aurrena; hamaiketakoa egin gero; Arrasaten barrena ibilalditxoa egin ondoren Garaiako MUren eraikin berrian aurreskua egin zieten dantzariek; instalazio berriak, gainetik bada ere, ezagutu eta betikoetara, unibertsitateko areto nagusira. Han, Bixente Atxa Eskola Politeknikoko egungo zuzendariak eta Josu Zabala MUko errektoreak azaldu zieten zertan den garaiotan martxan jarri eta urte batzuetara –1943an sortu zen Eskola Profesionala– eurak protagonista izan zituen proiektu hura. Bedoñan bazkaria eginaz jarraitu zuten jaiarekin, eta arratsaldean *Gure maisuak gogoratuz* izeneko liburua –Anton Elorza ikasle ohiaren gidaritzapean egin dute– aurkeztuz amaitu.

1964. urtean ikasketak amaitu eta hemezortzi urtera, 1982an, hasi zen ikaskide talde hau ospakizuna egiten, eta zintzo egin izan zuten hainbat urtez, lau urtean behin. Orain, ohitura berreskuratuta, jarraitzeko asmoa dute; lehengo martxara egokitzeko, hiru urte barru egingo dute hurrengoa, 2014an.



JESUS OSINAGA
IKASLE OHIA

"Bizitzak erakutsi digu maisuok ez zigutela bakarrik arlo teknikoa erakutsi, pertsona moduan ere gertatu gintuztela, arlo etikoan eta moralean, bizitzeko eran."



JUAN LEIBAR
IRAKASLE OHIA

"1958an neskak hasi ziren Eskola Profesionalean; ordura arte joskinetarako ikasten-eta ibiltzen ziren. Arizmendiarrietaren ideia inportantea izan zen."



JOSEFINA ABARRATEGI
IKASLE OHIA

"Nesken lehenengo promozioa izan zen gurea. Delineatzailetarako ikasketak egin genituen, eta gero lanerako erabili nuen ikasitakoa, elektronikako kalitate kontrolean."




JULIO GORROÑOGOITIA
IRAKASLE OHIA

"Teknologia eskolak ematen nituen. Txikiteoan ere ibiltzen ginen ikasleekin; familia giroa genuen, nahiz eta baliabide asko izan ez. Polita izan da gaurkoa."



JAVIER RETEGI
ESKOLAKO ZUZENDARI OHIA

"Bitarteko gutxirekin baina borondate handiz eta armonia handian egiten genuen lan ikasle eta irakasleek; gaurkoa orduko oinarrietatik sortua da."



BIXENTE ATXA
ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Ohore bat da orain eurekin konpartitzea Eskolaren proiektua eta garapena; ikuspegi luzeko jendea izan zen. Hemendik atera zen kooperatibismoaren hazia."



ARETXABALETA

JULIO CALLEJA

Haurrek dantzan jarri zuten herria

Haur Dantzarien Eguna ospatu zuten domekan Aretxabaletan. Herrikoekin batera, Arrasate, Antzuola, Oñati eta Soraluzeko neska-mutikoak ibili ziren dantzan, eguerdi partean Aretxabaletako kale eta plazetan; arratsaldean, berriz, alardea egin zuten plazan. Eguraldia lagun, 200 inguru izan ziren guztira dantzariak: herriko Leizarra taldekoak, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxukoak, Oñatiko Oñatzekoak, Antzuolako Oinarinekoak eta Soraluzeko Urratsekoak.



ARRASATE

ANDER MONEDERO

Eneko Perez eibartarra nagusi

Arrasate Errugbi Taldeak antolatzen duen Garagardo jaiaren XIII. edizioak bi asteburu hartuko ditu aurten, eta aurrenekoa pasa da. Poker txapelketa egin dute, besteak beste, eta Eneko Perez eibartarra izan da nagusi. Aitor Fernandez arrasatearra izan da bigarren.

BERGARA

Sendabelarrez egindako Bergarako eta Oiartzungo errezetak trukatu dituzte

'Erremeixuak' DVDaren bitartez kontaktuan jarri ziren bi herrietako taldeak



Sendabelarrez osatutako ukendu bat prestatzeko azalpenak eman zituzten. | ANDER MONEDERO

ANDER MONEDERO | BERGARA

Zapatuan Oiartzungo 30 bat pertsona Bergarara etorri ziren sendabelarrez egindako errezetak elkar trukatzera. Horretarako, 'Erremeixuak' ikus-entzunezko lanaren sortzaileek bi orduko saioa egin zuten Bergarako Artaz elkartean. Bertan, sendabelarrez egindako errezetak egin zituzten eta bestelako gaitzak sendatzeko erremedioak ere egin zituzten.

Anaje Narbaizaren esanetan, 'Erremeixuak' lana egin zutenean finkatutako helburuetako bat bete da: Bergaratik eta bailaratik kanpo gure sendabelarren jakinduria ezagutaraztea. Orain arte Bergara eta inguruari oso lotuta egon dira eta Euskal Herriko beste bailaretan antzerako erremedioak nola prestatzen dituzten ezagutzeko bidea dela uste du.

Saioa bukatu eta gero, bi herrietako sendabelarren elkarteetakoek Artatzen bazkaria egin zuten. Zapatukoa bi elkarteen arteko harremanaren hasiera baino ez dela izan esan zuten. Biek belaunaldiz belaunaldi transmititu diren errezetak ez galtzearen garrantzia azpimarratu zuten.

DVDari esker elkar ezagutu

2010eko azaroan kaleratu zuten 'Erremeixuak' izeneko ikus-entzunezko lana eta *Berria* egunkariak egindako albiste baten bitartez izan zuten oiartzuarrek DVDaren berri. Lanean protagonistek sendabelarrak noiz, nola eta zertarako erabili zuten azaltzen dute eta oiartzuarrentzat hori da DVDaren berezitasuna. Sendabelar antzerako erabilera ematen dietela ikusi zuten eta bergararrekin harremanetan jartzea erabaki zuten.

Oiartzungo taldeak 14 urte daramatza sendabelarren inguruko ikastaroak antolatzen eta urtero Euskal Herriko herriren bat bisitatzen dute euren errezetak ezagutarazteko. Zuzeneko tratuan uste dena baino askoz gehiago transmititzen dela esan zuten.



ANAJE NARBAIZA
BERGARA

"Bakoitzak dituen errezeta tradizionalen elkartrukea egin dugu. Gure gizarteak belaunaldietan zehar izandako jakinduria zabaltzeko balio du".



ZUHAITZ ROCH
OIARTZUN

"Esperientzia onuragarria izan da. Bergarako jendearen esperientzien eta ezagutzen berri izan dugu eta gurekin konparatu ditugu. Gaurko saioan asko ikasi du ".



ONINTZA AZPIROZ
OIARTZUN

"Sendabelarren inguruan gehiago jakitera etorri gara eta asko ikasi dugu. Gainera, gai honetan interesa duen jendea ezagutu dugu".



XABI IGUARAN ETA ANASTASIA LEUNDA
OIARTZUN

"Esperientzia aberasgarria izan da Bergarara egindako bisita. 14 urte daramagu sendabelarren inguruko ikastaroak egiten eta urtero, beste herrietako pertsonekin harremanetan jartzen gara ikasitako errezetak elkar trukatzeko. Galtzeko zorian daude gure aurrekoek erabilitako sendagaiak eta hauek erabili eta transmititu beharra dagoela uste dugu".

ARAMAIO

Punk-rock eta jai giro aparta Eguzkierripa Rock-en 3. edizioan

Bazkari herrikoia eta punk kontzertua egin zituzten Andramari ermitan

A.M. | ARAMAIO

Zapatuan ospatu zuten Aramaioko Eguzkierripa auzoko Andra Mari ermitan Eguzpierripa Rock jaialdiaren 3. edizioa. Ermitan bazkaria eta kontzertuak egin zituzten, baina bazkariaren aurretik, poteoa egin zuten Ibarran.

Goizean jai giro polita izan zen Ibarran egindako poteoan. Hori bukatzerakoan kalejiran igo ziren Andramarira eta han egin zuten bazkaria.

Iluntzean hasi zen rock jaialdia. Misteria, Gazte Iraultza, Alta Tension, Kate's Maniacs eta Kañeria 13 taldeak izan ziren. Jaialdia Misteria Aramaioko taldearen punk emanaldiarekin hasi zen. Beraien abestiak eta bertsioez osaturiko emanaldi bizia eskaini zuten. Ondoren, Aretxabaletako Gazte Iraultza, Aramaioko Alta Tension eta Arrasateko Kate's Manics taldeek jo zuten.

Kañeria 13 izan zen jaialdia itxi zuen taldea. Beti bezala, punk -rock biziko kontzertua jo zuten eta musika bakarrik ez, ikuskizun paregabea eskaini zuten.



Misteriako baxujolea zapatuko kontzertuan. | ANDER MONEDERO



Illarramendi, atzo Eskoriatzan egin zioten harreran. | JULIO CALLEJA

ESKORIATZA

Mikel Illarramendi preso ohiari harrera egin zioten domekan

A.M. | ESKORIATZA

Atzo Mikel Illarramendi preso ohiari harrera egin zioten Illarramendiri egiten dioten bigarren ongietorria izan zen, lehenengoa bere jaioterrian, Oñatin, jaso zuen.

2003ko uztailaren 30ean atxilotu zuen Frantziako poliziak. Epaitua izan ondoren, 10 urteko espetxe zigorra ezarri zioten eta maiatzaren 19an bete zuen. Frantziar estatuak ipinitako zigorra amaituta, kanporatua izateko eta Espainiako polizien eskuetan geratzeko arriskua zuen eta, horren kontra, gose greba egin zuen kartzelan pasatuko azken egunetan.

Jende ugari batu zen herriko plazan, Eskoriatzan bizi den preso ohiari ongietorria egiteko. Ordu batean iritsi zen Illarramendi herriko plazara eta, bertan, besarkada ugari jaso zituen oñatiarrak.

Harreraren ostean, triki-poteoa egin zuten eta ondoren, Apotzaga auzora joan ziren bazkaltzera.

Presoen aldeko Elkartasun Eguna ekainaren 4an

Portaloira taldearen eskutik, egitarau oparoa: zuzeneko musika izango da protagonista

J.B. | ARRASATE

Aurten ekainaren 4an ospatuko da Portaloira taldeak antolatzen duen euskal presoen aldeko Elkartasun Eguna. Urtero moduan, egun osoko egitaraua prestatu dute eta aurten ere zuzeneko musika izango da protagonista. Hori bai, antolatzaileek jakinarazi dute aurten aurrekontua murriztu gura izan dutela eta horregatik ez dutela kanpoko talde "garestirik" ekarri.

Egun osoko egitaraua

12:30ean bertso eta trikitixaz bustitako poteoaz ekingo diote egunari, Jokin Labaien eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin batera. Gero parrilada herrikoia egingo dute Biterin, 14:30ean. Arratsaldean helduko da zuzeneko musika: 17:00etan hasi eta 20:00ak arte herriko 13 tabernetan egongo dira kontzertuak. 13 talde eta, urtero legez, askotariko estiloak.

Gaueko kontzertu handian, bestalde, lau taldek joko dute gaztetxean, 22:30etik aurrera: Berlingo Slamtilt!, Bizkaiko Sermonds eta Itziarren Semeak eta The Motherfuckers. Aurten azken horiek izango dira herriko ordezkaritza. Sarrera bost euro ordaindu beharko da.

Herri txiroen aldeko eguna izango da zapatuan

Gobernuz Kanpoko erakundeek antolatuta, hainbat ekintza eta postu Seber Altube plazan

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Harreman eta beste Gobernuz Kanpoko erakunde batzuen eskutik, herri txiroekin elkartasuna adierazteko eguna izango da zapatuan, ekainak 4. Aurten 13 urte beteko ditu ekimenak eta urtero moduan egun osorako egitaraua prestatu dute, Seber Altuben: 10:00etan irekiera ekitaldia, 12:00etan txikienendako puzgarriak, 12:30ean Arrasate Musikalen banda txikiaren emanaldia, 17:30ean Iker Diaz ipuin kontalaria, 18:30ean dantza saioa eta azkenik, 20:30ean, Eroski Bidaiak-en eskutik zozketa.

Bestalde, ekintza ezberdinak izango dira egun osoan zehar; postu ezberdinak: bidezko merkataritzaren aldekoa, te dastatzearena, Ankur-eko (India) umezurtegiaren aldeko Ibai-Arteren tonbola, GKE ezberdinen erakusketa, umeendako puzgarriak eta Arizmendiko ikasleek antolatutako elkartasun euroa.

Pintxo pote solidarioa

Eguenean, bestalde, Harreman eta Arrasate Bizirik-ek antolatu dute pintxo pote solidarioa. Pezetak batzea gura dute antolatzaileek, herri txiroei begira. Euroekin ere lagun daiteke. Nola? Bada, txanponak Arrasate Bizirik elkartea osatzen duten tabernetako itsulapikoetan botata.

Erabiltzaileak pozik Bilborako autobus zerbitzu berriarekin

Maiatzaren 16tik aurrera zerbitzua bikoiztu egin da, Gipuzkoa eta Bizkaiko Aldundien akordioari esker

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasatetik Bilborako autobusa hartzen zuten arrasatearren artean aspaldiko kexa zen Lurraldebusen zerbitzu eskasa. Bada, maiatzaren 16tik aurrera, Arrasate Bilborekin lotuko duen autobus zerbitzu berriak hasi dira funtzionatzen. Ordutik A3923 linea, abiapuntua eta helmuga Elorrion zeukana, Arrasatera iristen da.

Hala ere, badago oraindik zerbitzua nahikoa ez dela uste duen erabiltzailerik. Hori bai, Garibaiko geltokian galdetu diegun erabiltzaile gehienek zerbitzua handitzea "albiste pozgarria" dela uste dute.

Hiru beharrean, sei autobus

Bizkaibusek kudeatzen du A3923 linea eta hori posible izan da Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundien arteko akordioari esker. Hala, zerbitzua bikoiztu egin da, egunero hiru autobus izatetik sei izatera pasa da: Arrasatetik Bilborako zerbitzuak 7:45, 8:45, 9:45, 13:45; 19:45 eta 20:45ean izango dira eta Bilbotik Arrasaterakoak, berriz, 6:00, 7:00, 8:00, 12:00,18:00 eta 19:00etan. Linea bakoitzak funtzionamendu autonomoa izango du, hau da, Lurraldebusekin bidaiatzeko txartel bakarra erabil daiteke eta Bizkaibusekin bidaiatzeko, berriz, Bizkai osoan indarrean dagoen *creditrans* txartela da erabil daitekeena.

Akordioa indarrean egongo da 2012 urtearen amaierara arte eta modu automatikoan luzatu ahal izango da urtebeteko aldietan.



Bizkaibuseko autobusa Arrasateraino heltzen da orain. | JOKIN BEREZIARTUA



JULEN BORDES
IKASLEA

"Oso ondo iruditzen zait, bazen ordua autobus gehiago jartzeko. Durangarra naiz eta orain arte askotan unibertsitateko autobusa hartu behar izaten nuen. Datorren ikasturterako aukera gehiago izango ditugu; albiste ona da".



NATALIA DIQUE
LANGILEA

"Ia egunero erabiltzen dudan zerbitzua da, eta orain artekoa ez zen nahikoa. Asko pozten naiz autobus gehiago jarri dituztelako. Gaur bertan [egubakoitza] enteratu naiz, Bizkaibuseko autobusa ikusi dudanean".

Ander Etxeberria | San Juan jaietako irudiaren egilea

"Jaia nolakoa den azaltzen duten ideia deskribagarriak hartu ditut aintzat irudian"

SUDC elkarteak, Udalak eta pintura taldeak erabaki dute Etxeberriarena izan dela irudi politena

J.B. | ARRASATE

Ander Etxeberria arrasatearraren irudia aukeratu du epaimahaiak San Juan jaietarako. Ez da lan erraza izan, izan ere, 49 lan aurkeztu dituzte lehiaketara. Etxeberriak 750 euro jasoko ditu eta haren irudia jaietako programaren azalean ikusiko dugu aurten. Sei aldiz hartu du parte lehiaketan eta lehenengoz irabazi du aurten; albistea "sorpresa atsegina" izan dela dio.

Nondik etorri zitzaizun ideia?

Jaia zer den ikusi, jaian parte hartu eta egitarauan irakurri ondoren jaia paper baten nola isla dezakedan galdetzen diot nire buruari halako lehiaketetan parte hartzen dudanean. Bada, aurrekoetan eta oraingoan ere hala egin dut: ideia deskribagarriak eta errealistak hartu ditut aintzat irudia egiteko. Finean, jaia zer den adierazten duten elementu ezberdinak irudian sartzea gustatzen zait.



Ander Etxeberria, kartelarekin. | J.B.

Azalduiguzu zuk zeuk zer erakusten duen irudi irabazleak.

Kanpotar bati, eta baita arrasatearrondako ere, jaia zer den azaltzea eta identifikatuta sentitzea da nire helburua. Irudian, atzealdea horia duela, agertzen dira sua eta haren bueltan makala eta beste hainbat pertsonaia eta elementu, jaiaren adierazgarri direnak. Betiko elementuak eta berritzaileak sartu ditut, bai pertsonaiak eta bai ekintzak. Izan ere, ez da ahaztu behar 2011rako kartela egin dudala, hots, irudian badaude elementu batzuk azken urteetan indarra hartu dutenak. Adibidez, skate festa.

Albiste pozgarria izan dela suposatzen dut. Sorpresaz jaso duzu?

Ez da lehen aldia lehiaketara aurkezten naizena eta aurkezten naizen une beretik esperantza badaukat saria eskuratzeko. Sorpresa atsegina izan da, bai horixe.

Sei aldiz hartu dut parte eta aurten irabazi dut lehenengoz. Lehen aldia 1994an izan zen eta orduan akuarelekin egindako irudia aurkeztu nuen. Ordutik aurrerako guztiak ordenagailuz egin ditut; teknika ezberdinak erabili izan ditut. 1994tik hona, beraz, urte mordo bat dira lehen aldiz parte hartu nuenetik.



Kooltur ekimena posible egin dutenetako batzuk, joan den eguenean: Lazkano, Zubiate, Cascon eta Beltran. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Estiloak estilo, kalitatezko taldeak ekartzea izan da gure asmoa"

"Pozik gaude; lehen saioetan batutako jende kopuru altuak asko harritu gintuen"

HARITZ ZUBIATE | KOOLTUR EKIMENA

Eguenak kalitatez musikatu dituen taldeari, irailera arte

Kerobia taldeak itxiko du asteon Kooltur Ostegunak ekimenaren lehen urtea; eman duenaz "pozik" daude

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Leku itxietan egiten diren kontzertuetan beherakada igartzen da maiatza aldera. Eguraldi ona edota jaiak direla, jende gutxi izaten da musika aretoetan. Horregatik eta guk geuk ere deskantsu bat behar dugulako erabaki dugu irailera arte kontzertuak etetea", azaldu du Haritz Zubiate Kooltur Ostegunak ekimenaren antolakuntza taldeko kideak.

Zubiatez gain, musika munduan esperientzia handia duen taldea egon da atzetik, eguenero kalitatezko taldeak gaztetxera ekarri eta ekimenak aurrera egin zezan bermatzen: Igortz Iturbe, Iker Barandiaran, Iñaki Bengoa, Iago Cascon, Unai Lazkano, Aitor Urizar, Maier Uranga eta Josu Beltran, besteak beste. Eguen honetan Iruñeko Kerobia taldeak itxiko du lehen urtea eta, beraz, heldu da baloraziorako ordua: "Pozik gaude; jendeak, oro har, ondo erantzun du. Lehen kontzertuetan jende kopuru altua mantendu genuen eta horrek asko harritu gintuen. Estilo ezberdinetako taldeak ekarri arren, batezbestekoa ez zen asko jaisten. Azken saioetan, hori bai, parte hartzeak behera egin du, baina ez dugu uste taldeen kalitatea jaitsi delako gertatu denik, lehen esan dudan moduan, sasoi honetan jendeak beste plan batzuk egiten dituelako baizik". Azaroaren 4an ireki zuten zikloa, eta ondo ireki, gainera: Gari izan zen lehen gonbidatua, eta agertokian denetariko musika aparailuak zituela, bete egin zuen gaztetxea. Lehen kontzertua egin aurretik, baina, antolakuntza taldea hasia zen lanean. Duela urte eta erdi inguru Arrasateko kultura eskaintza nola indartu pentsatzen ari zirela, eguenak egun aproposak zirela pentsatu zuten. Eta gaztetxearekin elkarlanean musika ekipoa erosi ostean, motorra hasi zen martxan.

DATUA

30

EGUEN AZAROAREN 4TIK HONA

29 kontzertu eta antzerki bat lehen urtean. Fiachras-en saioa izan zen jende gehien erakarri zuena, abenduaren 30ean.

Kantitatea baino, kalitatea

Kooltur Ostegunen formatuak ondo funtzionatzen duela dio Zubiatek: "Hasieratik oso argi genituen oinarriak: beti gaztetxean, 22:00etan puntuan, talde bakarra eta saio guztiak prezio berean. Taldearendako erosoa izatea ere oso garrantzitsua da".

Kooltur Ostegunen beste zeinu bereizgarri bat da kantitateari baino kalitateari ematen diotela lehentasuna: "Estiloak estilo, kalitatezko taldeak eskaintzen saiatu gara. Musika zaleak gara aspalditik eta izenak ekarri ditugun arren, saiatu gara jendearendako horren ezagunak ez diren taldeak ere ezagutzera ematen". Helburua lortu dutela ezin ukatu: pintxo poteoa errotu den moduan, arrasatearrek badakite eguenetan gaztetxean badagoela 'zerbait'. Kerobia asteon eta gero, agurrik ez, irail erdialdera arte baizik.

'Photomiradas' lehiaketa, Arizmendiren eskutik

J.B. | ARRASATE

Arizmendi ikastolak erizaintzako laguntzaile lanbidearen garrantzia azpimarratzeko *Photomiradas* deritzon argazki lehiaketa antolatu du lehenengoz. Lanbide horretan ezinbestekoak diren kontzeptuen ikuspuntutik deitu du lehiaketa Arizmendik: besteak beste, humanitatea, enpatia, profesionaltasuna eta duintasuna.

Erizain laguntzailea gaixoen laguntza hobetzeko lanean ari den profesional gisa aurkeztu gura dute. Gaia eta leloa honakoak dira: *Erizaintzako laguntzaileak eta gure nagusiak: adeitasun handiko lana*.

Ekainaren 20ra arte

Izena emateko azken eguna da ekainaren 20a, eta bi modu daude izena emateko: 943 77 20 25 zenbakira deituta edo *www.arizmendipro.eu/ekimenak/photomiradas* webgunean eskaera orria beteta.

Lau sari egongo dira. Bi argazki onenei zuzendutako sariez gain –lehenarendako 800 euro eta bigarrenarendako 200 euro–, publikoaren eta bilduma onenaren saria ere egongo dira; 200 euro eta 800 euro, hurrenez hurren. Publikoaren saria eskuratzeko edota publikoaren bozketan parte hartzeko, argazkiak *www.facebook.com/photomiradas* webgunera igo behar dira.

Arrasate Musikaleko 19 piano jolek joko dute etzi Oñatin

Arrasate Musikaleko gaztetxoek beste hitzordu bat dute asteon, Debagoieneko beste musikari gehiagorekin batera. Eskoriatza, Bergara, Aretxabaleta eta Oñatiko musika eskoletako piano joleekin kontzertua eskainiko dute etzi, ekainak 1, 18:30ean. Oñatiko Santa Ana aretoan izango da kontzertua. Arrasatetik 19 piano jole joango dira.

Usaetxeko ludotekaren kalera irteteko ekimena, eguaztenetan

Txatxilipurdik kudetzen duen Usaetxeko ludotekako haurrek eguaztenero izango dute kalera irteteko aukera, ekainaren 18ra arte. Etzi, esaterako, Arimazubiko plazan jolas erraldoiak egingo dituzte, 17:00etatik aurrera. Bestalde, egubakoitzero Usaetxeko plazan bertan ekintza eta jolas ezberdinak egingo dituzte.

Gazteluondo eta pasealekua lotuko dituen lanak ondo doaz

Gazteluondo eta Arrasate pasealekuaren arteko bidea egiteko lanak martxa onean doaz, Obra Sailaren arabera. Lanak azarorako amaituta egon behar dute. 800.000 euro pasako aurrekontutik Jaurlaritzak ordainduko du %65a. 120 metroko luzera izango du eta autoak pasa ahalko diren arren, oinezkoek izango dute lehentasuna.



J.B.

Jaioberriei ongietorria eta idi probak aurten Mendekosteetan

Berrikuntzokin batera, molto ibilaldia eta volley water-a egongo dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dagoeneko guztia prest dago ekainaren 10ean, Pazkoei hasiera emateko. Bost egunez, ekainaren 14ra bitartean, askotariko ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da eta horien artean ez da berrikuntzarik faltako. Hain justu ere, iazko Pazkoetatik aurtengoetara jaio diren umetxoei ongietorria emateko ekitaldia egongo da, volley waterrean jolas egiteko aukera, idi proben erakustaldia eta molto motoen karrera.

Umetxoen ongietorri ekitaldiari dagokionez, iazko Pazkoetatik aurtengoetara bitartean jaio direnei egingo diete harrera. Gonbidapen gutuna jasoko dute gurasoek etxean, eta nahi dutenek, zapatuan osoko bilkuran egingo den ekitaldian hartuko dute parte. 11:30ean izango da eta txikitxook jaietako lepoko zapia jasoko dute opari.



San Martin plazan jendea Bitorianatxoren zain. | GOIENA

Idi probak ere bai

Idi probei dagokienez, martitzenean izango dira, eta azken urteetan egon izan diren herri kirolen erakustaldiaren lekua hartuko dute. 12:00etan hasiko dira, San Martin plazan. Joxe Ramon Salegi Belarreta-k eta Pako Badiola Bentaoste-k jardungo dute buruz buru.

Volley water-a

Volley water-a ere egongo da aurten berrikuntza moduan. Domekan, 10:30etik 14:00etara, igerilekua egokituko dute San Martin plazan eta nahi duenak uretako volley-an jolas egiteko aukera izango du. Horrekin batera, urez betetako puxikak botatzen jolas egiteko aukera ere egongo da.

Molto motoei dagokienez, martitzenean izango da saio hori ere. Nahi duten guztiek har dezakete parte eta hitzordua 17:0etan egin dute, Fraiskozuri plazan. Handik Ipintzako jolas parkeraino egingo dute ibilaldia parte -hartzaileek. Norberak bere moltoa eroan beharko du.

Txupinazoa

Iaz hasitakoari jarraituz, aurten ere herritarrek botako dute jaien hasierako txupinazoa. Hain justu ere, San Antonioko txirrindulari lasterketak 75 urte betetzen dituela eta, probarekin lotura duten herritarrek botako dute.

Sorkunde Agirrebeitia izan da aukeratua. Sorkunde, Honorio Agirrrebeñaren alaba da eta bere omenez egingo duela aitortu dugu "gure aitak ohoretzat hartuko luke txupinazoa botatzea eta horregatik onartu dut". Urduri dagoela aitortu digu eta beretzat, oso momentu unkigarria izango dela esan digu.

Osterantzean, errekortadore txapelketa, herri bazkaria, barrakak, txosnagunea ekitaldi ugarirekin, goitibehera lehiaketa, rock maratoia, Udal Musika Bandaren emanaldia, dantza askatuko txapelketa, askotariko dantzaldiak, pilota partiduak eta haurrendako barrakak eta jolas parkea egongo dira, besteak beste.

Gogoan izan herri bazkariako txartelak erosteko azken eguna Maiatzaren 30ean izango dela. Nagusien menua 15 euroko kostua izango du eta umeena aldiz 10 eurokoa. Txartelak kulturetxean salgai daude.

Urteurrenarekin eta inaugurazioarekin datoz aurten San Antonio jaiak

Ekainaren 13an auzotarrek San Antonioren kapera berria inauguratuko dute

ASIER ALKORTA | BERGARA

Txirrindularitzako San Antonio sariketaren 75. urteurrenarekin eta auzoko kanpandorrearen inaugurazioarekin, aurten inoiz baino gogorrago datoz San Antonio jaiak. Ekainaren 9an hasi eta 13ra arte, jaiak ez du etenik izango auzoan.

Ekainaren 9an hasiko da jaia, hitzaldiarekin eta afariarekin. *Auzoko karrera baten 75 urte* izenburupean, hitzaldiak duela 75 urte San Antonio txirrindularitza lasterketaren hasiera gogora ekarriko du. Behin historiari errepasotxoa eman eta gero, auzotarrek afarian elkartzeko aukera edukiko dute. Izena emateko Gure Ametsa elkartera edo Cristina estankora hurreratu beharko dute interesatuek.

Zapatua eta domeka

Zapatuan, ekainak 11, jaiak aurrera jarraituko du. 16:00etan, 75. San Antonio saria jokatuko da eta ondoren, 18:30ean, sariketa egingo da.

20:00etan bederatziurrena egingo zaio San Antoniori, kaperan, eta ostean sardina-jana egongo da. Gauean, DJ Angelen eskutik disko festa egingo da.

Domekan txistularien dianak emango dio hasiera egunari (10:00). 19:30ean auzoko kanpandorrearen inaugurazioa egingo da.

Astelehenean, jaiak amaitzeko, San Antonio kapera berrira eramango dute auzotarrek, 11:00etan. 12:00etan kapera berria inauguratuko da eta gero luncha eta umeentzako jolasak egongo dira. Amaitzeko, 15:00etan, auzotarren arteko bazkariarekin aurtengo jaiei amaiera emango zaie, plazuelan.



Domekan inauguratuko duten San Antonioko kanpandorrea. | IMANOL GALLEGO

Etxebizitza erabilera edukiko duten lokalak zozketatuko dira

A. ALKORTA | BERGARA

"Epe laburrean" etxebizitzen erabilera izango duten lokalak zozketatuko ditu Udalak. Zozketan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da aurretik izena ematea.

Oraingoz lokalak baino ez badira ere, gerora etxebizitza erabilera eduki ahalko dute. Horretaz baliatuz, Udalak zozketa egingo du herritarren artean. Bide horretatik, lokal horietakoren bat eskuratzeko interesa dutenek udaletxeko Bulego Teknikoan eman beharko dute izena. Izena ematen duten horiek dagoeneko existitzen den interesatuen zerrendara gehituko dira.

Izena emateko baldintzak

Lokalen zozketan parte hartu ahal izateko, ostera, baldintza bi jarri ditu Udalak: azken urtean herrian erroldatuta egotea eta etxebizitzaren baten jabe ez izatea. Baldintza bi horiek betetzea ezinbestekoa da, horrela izan ezean norbanakoak ezingo dira -eta zozketan sartu.

Oraindik Udalak ez du zehaztu zozketa noiz egingo den, baina zerrenda itxi bezain pronto jakin eragingo du lokalen zozketa eguna zein den.

OHARRAK

HITZ GURUTZATUEN LEHIAKETA

Uema egunean hitz gurutzatuen lehiaketa egongo da. Parte-hartzaileek maiatzaren 31 baino lehen eman beharko dute izena Euskara Zerbitzuan.

MONCAYORA MENDI IRTEERA

Pol-Pol MT eta Gorla Alpino taldeek ekainaren 4rako eta 5erako Moncayora mendi irteera antolatu dute. Irteera bi egunekoa izango da eta txartelak elkartearen bulegoan eros daitezke.

TRIKITI EGUNERAKO TXARTELAK SALGAI

Uztailaren 3an San Martzialgo txosna eta kantina ustiatzeko izen-ematea ireki du Udalak. Bergarako irabazi asmorik gabeko elkarteek egin ditzakete eskaerak ekainaren 6ko 12:00ak arte.

"Turistez gainera, herritarrak ere etortzen dira informazio eske"

Egunero egiten diren herriko bisita gidatuek arrakasta handia izan dute eta dagoeneko martxan da Turismo Bulegoko udako ordutegia

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Uda garaian turismoak gora egiten duela ez da sekretu bat, eta Bergarak bere turismo eskaintza prest eta eskuragarri izan nahi du. Horregatik, maiatzaren 23an hasi eta irailaren 5a arte herriko Turismo Bulegoak ordutegi berezia izango du. Lanegunetan 10:30etik 19:00etara egongo da zabalik eta jaiegun eta domeketan, 10:30etik 13:30era.

Herriko eskaintza turistikoari eta zerbitzuei buruzko informazioa emateaz gain, Bergarako hirigune historikoa eta ondarea ezagutzeko bisita gidatuak eskainiko ditu egunero. Bisita horiek doakoak dira eta ez dute ordutegi zehatzik, taldeak eratu ahala egigo dira-eta.

Turismo Bulegoan bertan eman behar da izena horietan parte hartzeko, eta, 90 minutu irauten duen ibilaldian zehar, Bergarak dituen monumentu garrantzitsuenak ezagutzeko aukera egoten da, besteak beste: San Pedro eta Santa Marina parrokiak, Olaso dorrea... eta herriko zenbait eraikin ospetsu. Horien guztien artean garrantzi berezia dute San Martin plazan dagoen Jauregi etxeak eta Errege Seminarioak. Turismo Bulegoko langile Nerea Espinek esan digunez, "turistak ez ezik, bergarar asko ere etorri dira herria hobeto ezagutzeko bisita gidatuak egitera".

Herritarren parte-hartzeaz gainera, Bergarak eta Debagoienak euren turismo datuak hobetu dituzte, eta, Kataluniatik eta Madrildik etorritako ohiko turistez gainera, zenbait frantziar eta ingeles ere egon dira gure inguruak ezagutzen.



Udaletxean dagoen Turismo Bulegoa. | IMANOL GALLEGO

Bergara baino gehiago

Bergarako Turismo Bulegoak informazio eskaintza zabala dauka. Bergarari buruzko informazio guztia eskaintzeaz gainera, non jan, non lo egin, zer ikusi... Debagoieneko gainontzeko herriei buruzko azalpen eta gidaliburuak ere baditu. Hala, gurera etortzen den turistari eskaintza borobila emateko tresna guztiak ditu. Nerea Espinek dionenez. "Oñati da turismo gehien erakartzen duen herria, baina EAE osoko informazio eske ere etortzen dira".

Datu positibo horiekin erlaxatu beharrean, Turismo Bulegoak bisitari gehiago erakartzeko lanetan dihardu; horregatik, herria ezagutzeko egiten diren bisita gidatuez gainera, beste hainbat bisita ere sortuko dituzte udak aurrera egiten duen neurrian. Horiek ezagutu nahi dituztenek, baina, Turismo Bulegotik pasa beharko dute. Aukera hor dago, udaletxeko sarrera nagusian dagoen bulegotik pasa besterik ez dago.

Unai Azkarateren margoak Nahikarin

I. G. | BERGARA

Pintura erakusketa horretan, formatu ertaineko eta formatu handiko 12 pintura misto ikusteko aukera dago. Aipatzekoa da Unai Azkarate herri margolariaren azken lanak ikusteko aukera izateaz gainera, 1999. urtean sortutako artelan batzuk ere badaudela.

Unai Azkarate Ilarduia (Bergara 1980) Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatu zen 2003. urtean. Ikasle urteetan erasmus beka bat jaso zuen eta Ingalaterran ikasturte bat emateko aukera izan zuen 2001. urtean. Handik etorri ostean, artearen mundua bertatik bertara ezagutzeko asmoarekin Bilboko Guggenheim museoan lanean aritu zen. Bilboko museoan, arte garaikidean zituen ezagupenak sankontzeko aukera izan zuen.

Orain, 12 margolanen eskutik bere bidaia eta esperientziak islatzen dituen ibilbidea azaltzera etorri da. Erakusketa eguaztenean amaituko da.

Zubiarre-Martokoko Aszensio jaiak ekainaren lehen aste bukaeran izango dira

Eguenean eta domekan meza egingo da San Migel baselizan

I. G. | BERGARA

Uda gainean dugun seinale asko dauzkagu begi bistan. Bidaia agentzietan maukak pilatzen hasiak dira, egunez egun, eta apurka-apurka eguraldiak ere hoberantz egin du, eta, noski, auzoetako festek ere uda badatorrela iragartzeko balio dute. Zubiarre-Martoko auzoak Aszensio jaiak ekainaren 2tik 5era ospatuko ditu.

Eguenean emango diete hasiera festei, eta egubakoitza ajea pasatzeko erabiliko dute, zapatu eta domekan berriro festei gogotsu heltzeko. Eguenean, meza entzun eta gero, txupinazoa botako dute, eta ondoren, jai giro horrekin jarraituaz, pintxo-poteoari ekingo diote.

Aipatu bezala, egubakoitza deskantsu eguna izango da eta ez da ekitaldirik egongo. Zapatuan gogoz helduko diote festari. Goizeko 11etan hasi eta eguzkia gorde ondoren amaituko dute. Besteak beste, mus txapelketa, kukaña eta toka txapelketa izango dituzte. Gauean, berriz, Javishou taldeak guztiak jarriko ditu dantzan. Dena den, lasai egon, dantzaldi, txapelketa eta jokoen artean txorizoa eta salda dastatzeko aukera egongo da-eta.



San Migel baselizako erretaula, berriztatuta. | GOIENA

Egunik hunkigarriena domeka izango da. Goizeko 9etako dianaren ostean, esnatzea lortzen dutenek San Migelen meza entzungo dute eta ondoren omenaldi txiki bat egingo diete antolatzaile eta laguntzaileei 12:30ean. Arratsaldean, tute txapelketa jokatu ostean, amaiera ekitaldiari ekingo diote.

San Migel baseliza

Zenbait urtean baseliza itxita egon ostean, duela bi urte eraberritzeko lanak amaitu ostean baseliza auzotarrek erabiltzeko moduan geratu zen. Aurten, itxura berria erakusteaz gainera, auzoko jaien programaren barruan sartzea erabaki dute eta Zubiaurre-Martoko Aszensioko jaietako bi meza nagusiak bertan esango dira.

Mezak eguen eta domekan izango dira, eta, elizkizuna amaitu ostean, giroa berotzeko asmoarekin salda banatuko dute bertara meza entzutera igotzen direnen artean.

1.000 aukera bigarren eskuko auto bat erosteko orduan; guztiak, baina, ikastolako patioan

Durangon antolatutako lehen edizioan 170 auto batu zituzten; oraingo azoka txikiagoa izango da

I.G | BERGARA

Ekainaren 18an goizeko 10etan hasita Bergarako Aranzadi ikastolako patioan (Seminarioan) egingo den bigarren eskuko ibilgailuen azoka antolatu dute. Azoka saltzaile partikular eta profesionalei zuzenduta dagoen arren, antolatzaileek mundu guztiari egin nahi izan diote gonbita. Herrian egingo den azoka hori ez da lehena izango, duela bi hilabete Durangon egin zuten antzeko bat eta arrakasta erabatekoa izan zen, antolatzaileek 170 auto batzea lortu zuten -eta.

Ekainekoa, berriz, ez da horren handia izango, ikastolako aparkalekua Durangokoa baina txikiagoa da-eta. Dena den, antolatzaileek arrakasta bera lortzea espero dute.

Autoak saltzeaz gainera

Azoka sortu zenetik antolatzaileak saltzaileez gainera jende gehiago erakartzeko lanean ibili dira; horretarako, Bergarako azokan haurrentzako ludoteka eta lambreta erakustaldia antolatu dute. Azokaren helburu nagusia bigarren eskuko autoak saltzea den arren, azokara ahalik eta jende gehien erakarri nahi dute.

Ander Iturriagagoitiaren hitzetan: "Interneteko iragarkiei begira sortu zitzaidan ideia. Interesgarria da erosleek ibilgailuak ukitu, ikusi, konparatu eta probatzeko aukera izatea". Hor dago azokaren gakoa, antolatzaileek eroslea eta saltzailea elkartu nahi dituzte-eta.

Bigarren eskuko auto bat eduki eta hura saltzeko gogoa duetenek lan erraza dute. Antolatzaileek *http://1000aukera.wordpress.com/* bloga sortu dute argibide guztiekin. Dena den, parte hartzea oso erraza da, 15 euroko kuota ordaindu eta autoa bertara eraman besterik ez dago. Azokan, antolatzaileek auto bakoitzaren datuak azaltzen diren karteltxoa emango diete parte-hartzaileei, eta, hortik aurrera, lan guztia jabearen abilezian dago, antolatzaileek ez baitute salmentan parte hartzen.



Ikastolako neska-mutikoak saioa egiten, iazko bertso emanaldian. | GOIENA

Eskoletako bertsolariak oholtza gainera igoko dira

Herriko ikastetxeetako ikasleek saioa egingo dute etzi kiroldegiko pilotalekuan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Herriko lau ikastetxeetako ikasleek bertso jaialdia egingo dute etzi Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. Guztira, 400 neska-mutiko igoko dira oholtza gainera, ikasturtean zehar bertsolaritzari eta ahozkotasunari buruz ikasi dutena erakusteko.

Gu ere bertsotan delako emanaldian bi saio egingo dituzte, 17:00etan bata, eta 18:30ean bestea. Lehenengo saioan parte hartuko dute Txantxiku Ikastolako, Elkar Heziko, eta Errekalde Herri Eskolako 4., 5., eta 6. mailetako ikasleek. Bigarrenean, DBH 1 eta 2ko ikasleak igoko dira oholtza gainera.

Oinarrizko kontzeptuak

Guztiek erakutsiko dute bertsolaritzari eta ahozkotasunari buruzko eskoletan zer ikasi duten. Astero ordubeteko eskolak jaso dituzte, eta bi astean behin, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko irakaslearen bisita izan dute. Herriko ikastetxeetan irakasle lanak egin dituzte Iñaki Olaldek, Estibalitz Alberdik eta Nerea Urrak. Hilabete hauetan bertsolaritza erabili dute ahozkotasuna lantzeko. "Bertsolaritzaren oinarrizko kontzeptuak irakatsi dizkiegu: koplak, errimak, silabak, doinuak... Gainera, kontzeptu horien bidez ahozkotasuna, irudimena eta euskara landu dute", esan digu irakasle lanak egin dituen Iñaki Olaldek.

Jendaurrean abesterakoan zer sentitzen duten jakingo dute etzi. Guztiek botako dituzte eskola orduetan landutako bertsoak; alegia, eurek egindako koplak. "Guk gaiak proposatu dizkiegu, eta guztion artean aukeratu ditugu egokienak. Baina oholtza gainean eurek egindako bertsoak abestuko dituzte. Originalak dira bertso guztiak", dio Olaldek.

DATUA

400

NESKA-MUTIKO

Horiek dira etzi Zubikoako pilotalekuan bertsotan ibiliko direnak. Bi saio egingo dituzte: 17:00etan eta 18:30ean.

OHARRAK

DEIALDIA

Ekainaren 10ean egingo dute udako oporren aurreko azken odol-ateratzea. Txantxiku ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

BEKA

Udako Unibertsitatearen udako ikastaroetan parte hartu gura duten ikasle eta langabeek udalaren dirulaguntza jaso ahalko dute; gehienez, matrikularen %50. Eskaerak, udal bulegoetan.

ERRETIRATUEN ASTEA

Erretiratuen Astearen barruan egingo dituzten irteerarako eta bazkarirako txartelak salgai jarriko dituzte ekainaren 1etik 3ra Pake Lekun, 18:30etik 20:30era. Bazkarirako txartela, 30 euro.

UDAKO KIROL KANPAINA

Behin-behineko izenemate egunak izango dira: bihar 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara, eta etzi 09:00etatik 13:30era. Ekainaren 2an zozketaren emaitza ipiniko dute, eta behin betiko matrikulazioa egin beharko da ekainaren 6an, 7an, 8an, 9an eta 10ean.

KZ-GUNEA

Askotariko ikastaroak egingo dituzte ekainean KZgunean. Informazio gehiagorako edo izena emateko: 943 08 16 34 edo *tutor.onati@kzgunea.net*.

TXALOAK ETA TXISTUAK



EGUZKI EKOLOGISTA TALDEA

Pilak daude Lamiategi inguruan

Eguzki talde ekologistak txistu bat bidali digu: "Lamiategi baserri inguruan pilak botata daude. Urteetan bota dituzte pilak hara eta erakunde publikoek ez dute ezer egin. Orain arte herritarrak arduratu dira lekua garbitzeaz. Oñatiko Udalari eskatzen diogu arazoa konpon dezala, errudunak bila ditzala eta inguru hori berreskura dezala".



MUSIKA ESKOLA

Debagoieneko pianistek jaialdia egingo dute etzi

Debagoieneko musika eskoletako pianistek jaialdia egingo dute etzi Santa Ana antzokian, 18:30ean; hain zuzen ere, Oñatiko, Arrasateko, Elgetako, Bergarako eta Eskoriatzako musika eskoletako neska-mutikoek. Ikasleek pieza bana eskainiko dute. "Bigarren aldia da halako jaialdia Oñatin egiten dutena, aretoak duen sonoritateagatik eta han dagoen isats-pianoarengatik", esan digute Jose de Azpiazu musika eskolako irakasleek.

Itziar Ugarterendako Urruzuno lehiaketako lehen saria

M.B. | OÑATI

Txantxiku Ikastolako ikasle Itziar Ugarte Irizarrek Urruzuno literatura lehiaketako sarietako bat irabazi berri du. Hain zuzen ere, poesia arloko B mailako lehen saria eskuratu du. Ugartek *Kanposantu urdinean ihesi* delako lanarekin irabazi du lehiaketa.

Sari banaketa ekitaldia irailaren 2an egingo dute, eta jasoko dituen sariak dira: 10 eguneko bidaia dena ordainduta (irailaren 4tik 14ra); bidaiarako dirulaguntza moduan 300 euro; eta oroigarri bat. Bestalde, *Kanposantu urdinean ihesi* delako lana Sagastiberri saileko liburuan argitaratuko dute.



Itziar Ugarte Irizar. | TXANTXIKU IKASTOLA

Urtzi Urrutikoetxeak, Leire Bilbaok, Castillo Suarezek, Miren Agur Meabek eta Katixa Agirrek osatu dute epaimahaia.

ARETXABALETA

Bost antzezlan, literatura eta musika ekainean

Musika eskolako ikasleen emanaldi asko eta Karmele Igartua eta Tere Irastortzaren poesiak hilaren 17an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Antzerkiak emango dio hasiera ekainari. Eta eguaztenean, hilak 1, bi antzezlan izango dira: batetik, Kurtzebarriko antzerki eskolakoek *Lapurren bidetik* lana, Zaraia aretoan (17:00 eta 18:00); eta bestetik, Debote Enbote taldearen *Argotu* Herriko Plazan (19:00). Eta ekainaren 10ean, egubakoitza, Teatro Interior taldeak *Republicados* aurkeztuko du gurean, Zaraia aretoan (22:00); sarrera, 4 euro.

Eta umeek bi ikuskizun izango dituzte: Logela Multimedia taldearen eskutik *Anaki*, domekan, ekainak 5, (17:00); eta Pirritx eta Porrotx pailazoen azken ikuskizuna, *Ongi etorri, Pupu eta Lore*, ekainaren 15ean, eguaztena, Herriko Plazan (18:00).



Logela Multimedia taldearen 'Anaki' antzezlana. | KULTURA SAILA

Bestalde, Argazki Taldeak gertatutako *Aretxabaleta atzo eta gaur* ikus-entzunezkoa emango dute bi astelehenetan, ekainak 6 eta 13, Zaraia aretoan (19:00). Apirilean ere eman zuten, baina errepikatzea erabaki dute.

Poesia, musikak goxatuta

Literaturak ere izango du tartea oraingoan eta ekainaren 17an, poesia irakurketa izango da (19:00): Karmele Igartuaren, *Eta orain badakit* eta Tere Irastortzaren, *Itsasoa kontra bat*. Itziar Gomezek egingo ditu esatari lanak, eta harekin izango dira Aitor Furundarena, Garikoitz Mendizabal eta Iñaki Telleria musikariak.

Eta ekainaren 7tik 21era bitartean Leizarra musika eskolako ikasleen emanaldiak izango dira Zaraia aretoan: flauta, biolina, perkusioa, pianoa, gitarra... Gainera, ekainaren 12an, domeka (19:00) Iñaki Salvador piano joleak eta Ainara Ortega abeslariak *Kantaginjazz* kontzertua eskainiko dute.

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna gogoan, film emanaldiak eta berbaldia

M.A. | ARETXABALETA

Datorren domekan, ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela gogoan hartuta Aste Berdea antolatu du Ingurumen Sailak. Oihan tropikala ardatz duten film emanaldi bi eta elektromagnetismoaren gaineko berbaldia iragarri dituzte. Arkupeko Zaraia aretoan izango dira (19:00).

Elektromagnetismoa berbagai

Bartzelonan egiten den Ingurumenaren Nazioarteko Zinema Lehiaketan –FICMA– eskuratutako ikus-entzunezkoak emango dituzte. Hala, eguenean, ekainak 2, *Green* filma izango da. Green izeneko orangutanaren istorioa aitzakia hartuta oihaneko biodebirtsitatearen altxorra erakutsi eta palma olioa eskuratzeko egiten dabiltzan triskantzen berri emango du.

Ekainaren 9an, ostera, *Vivamazonia* filma izango da. Brasilgo oihanean, Jauperi ibaiaren alboan, bizi den komunitate baten berri dakar eta bertako neskamutikoak alfabetatzeko sortu duten eskola erakutsi.

Eta ekainaren 16an, Asier Arregi adituak (Geobiotek) elektromagnetismoak osasunarengan duen eraginaren berri emango du: wifi, poltsikoko telefonoak...



Aste Berdea. | UDALEKO INGURUMEN SAILA

Hain zuzen Eskola Agenda 21 barruan ikasleek landu duten gaia da eta egun kezka handia eragiten duelako hautatu dute antolatzaileek.

Merkataritza Kulturan Blai ekimenarekin gustura dago Udala eta uztaila bukatu artean jarraituko du

Merkataritza eta kultura uztartu dituen Merkataritza Kulturan Blai ekimenarekin gustura agertu da Udala. Kultura eta Garapen Lokala sailetatik jakinarazi dute parte hartzen dabiltzan dendek "oso ondo erantzun" dutela. Ekimena abian jarritako lehen hilabetean 800 gonbidapen banatu zituzten dendetan eta horietatik 92 jaso ziren Arkupen (%11). Hala, Kultura Sailak oso ondo baloratu du jendearen erantzuna: "Gainera, Arkupera hurbildu den jendea, orain arteko ikuskizunetara hurbildu ez dena da; horregatik, datu hori oso positiboki baloratzen da".

Ekimenak uztaila bukatu arte jarraituko du, hau da, herriko zenbait komertziotan 20 eurotik gorako erosketengatik Arkupeko ikuskizunetarako gonbidapenekin saritzea.

Odol ateratzeak egingo dituzte datozen hiru astelehenetan

Udaberriko odol ateratzeak egingo dituzte Arabako odol bankuko kideek gurean datozen hiru astelehenetan, gaur hasita: maiatzak 30, ekainak 6 eta ekainak 13.

Osasun etxean izango dira odola ateratzen (16:30-20:00) eta lehenengoz hurreratzen direnei argibideak eman eta azterketak egiten.

ESKORIATZA

Jose Aranaren jaiotetxea salgai jarri dute

Zaharren egoitza da haren jabea eta egoera ekonomiko larriari aurre egiteko saldu gura du

M.A. | ESKORIATZA

Jose Arana XIX. mende bukaerako enpresari eta mezenas eskoriatzarraren jaiotetxea salgai dago. Arana kaleko 13. zenbakian dagoen eraikina da hain zuzen, eta interesatuek ikusteko aukera daukate.

Hiru solairuko etxea

Zaharren egoitza da Arana kaleko etxebizitza horren jabea. Jakinekoa da egoera ekonomiko larria bizi duela egoitzak, eta horixe izan da salgai jartzearen arrazoia; duen zuloari aurre egiteko dirua eskuratzea.

Etxebizitzak katastro azaleran 100 metro koadro eta eraikitako azaleran 306 metro koadro ditu, hiru solairutan banatuta. Aurrealdean errepidea dauka eta atzealdean Santa Mariñe plaza.

Etxea ikusi eta bestelako argibideak jaso gura izanez gero honako telefono zenbakira deitu: 620 06 31 15.

San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa deitu dute eta ekainaren 5a bitartean aurkez daitezke

Sanpedroetan erabiliko dituzten esaldiak hautatzeko lehiaketa deitu du Udalak. 13 urtetik gorako eskoriatzarrek har dezakete parte, hiru eta bost lagun arteko taldeak eginda. Jaiak ondo pasatzeko leloak gura dituzte eta ez dira onartuko neurriz kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak bultzatzen dituztenak.

Ekainaren 5a da aurkezteko azken eguna eta udaletxeko eta kultur etxeko eskapeetan jarritako ontzietan, kartazal batean sartuta, utzi behar dira. Talde irabazleak afaria izango du saritzat sanpedroetan, Eskoriatzako jatetxe batean. Pegatinak egiteko erabiliko dituzten esaldiak asmatutako talde bakoitzari, ostera, 50 euroko saria emango diote.

Euskal dantza tradizionalen ikastaroa egingo dute ekainean, San Juan bezperara begira

Uda partean ohikoak dira erromeria giroko jaiak gurean; horien artean dago San Juan bezperako gaua. Suaren inguruan dantzan egiteko ohitura dago Eskoriatzan beste herri batzuetan legez, eta dantza horiek ikasteko eta gogorarazteko ikastaroa egingo dute ekaineko lau eguaztenetan: 1, 8, 15 eta 22. Kultur etxean elkartuko dira (18:30-20:00).



FÉLIS BELTRAN DE HEREDIA

Gaztetxoak ere dotore bertsotan

Eskoriatza eta Aretxabaletako 10 eta 12 urte arteko ia 200 gaztetxo elkartu ziren joan den eguenean Manuel Muñoz kiroldegian bertsotan jarduteko. Batzuek Realeko kamisetekin egin zuten kantuan, beste batzuek pijamekin; bistan da umore ona izan zela nagusi.

Eta eguenean, ekainak 2, Aretxabaletako Herriko Plazan egingo dute bertso jaialdia (17:00) Kurtzebarriko eta Arizmendiko ikasleek.



Koldo Goenaga Elgetan. | L.Z.

ELGETA

Koldo Goenaga | Bilduko zerrendaburu ohia

"Erretiratu egingo naiz; boto bategatik galtzeak min egin dit"

- Elgetako Bilduren alkategaiak dio beti egongo dela laguntzeko prest
- Uste du Aralarrek dituela diru-laguntzak ekartzeko aukera txikienak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Motza izan da Koldo Goenagaren ibilbide politikoa. 245 boto lortu eta bigarren indar politikoa izatera heldu ostean erretiratzea erabaki du; boto bakar batera gelditzeak "min" egin omen dio. Herrian bolo-bolo ibili den zurrumurrua konfirmatu egin du Goenagak; erretiratu egingo da.

Zergatik?

Irabazteko aurkeztu nintzen. Etxeko kontuak ere badaude tartean. Andreak aurten hartzen du erretiroa, etxe bat dugu kanpoan eta berak ere nahi du elkarrekin egotea. Alkate atera izan banintz jarraitu egingo nukeen. Ardura ardura da, baina zinegotzi... gazteak datoz atzetik eta lekua egin behar zaie.

Boto bakarrera gelditzeak eragina izan du erabaki horretan?

Niretzat, bai. Taldean oso gustura daude emaitzekin, baina ni ez. Beti esan dut irabaztea gustatzen zaidala eta boto bategatik galtzea da Joko Olinpikoetan laugarren gelditzea bezala. Min handia eman dit. Eta *katxondeoa* handia da; Aralarrek herri bakar batean irabazi du eta hemen izan da boto bakar batengatik.

Zer esango zenieke Elgetan Bilduren hautua egin duten 245 hautesleei?

Botoa kasualitatez niri eman didatenei, barkatzeko eta gainerakoei eskerrik asko botoa Bilduri emateagatik.

Zergatik 'kasualitatez'?

Pentsatzen dut botoa zerrendei ematen zaiela eta ez pertsonei. Eta horrela izan behar duela uste dut, gainera.

Nola gelditzen da orain Elgetako Bildu?

Nire ustez oso indartuta gelditzen da, bateratua. Gainera jende gaztea datorrela ikusten dut eta azkenean hori da beharrezkoa. Gazteek aldatu behar dute gizarte hau, ez ni bezalako erretiratuek. Gu kobratu eta etzanda egoteko gaude. Gazteek ikusi behar dute etorkizunerako ze gauza behar diren eta gauzak badaude aldatzeko Elgetan, zein Euskadi edo Europa mailan. Nire ustez gazteek egin behar dute tira.

Bilduk boto gehiago lortu ditu Elgetan Batzar Nagusietarako udalerako baino. Min egin dizu horrek?

Ez du zer ikusirik. Guk emaitza onak lortu ditugu eta pozik gaude. Gertatzen da boto batengatik galtzeak niri kristoren amorrua eman didala. Eta punto.

Jeltzaleekin alkatetza hartzeko aukera baztertu egin duzue hasieratik?

Esango dizut gauza bat; ni zerrenda bozkatuenaren aldekoa naiz. Beti errespetatuko dut irabazlea. Ez naiz jeltzaleen modukoa, zorionez. Ziur nago Gipuzkoako Diputazioa ere kendu egingo digutela.

Nola ikusten duzu Elgetaren etorkizuna?

Elgetan, gaizki. Aralarrek irabazi ditu Udal hauteskundeak eta uste dut Aralarrek dituela kanpotik diru-laguntzak ekartzeko aukerarik txikienak. Batzarkide bakarra lortu dute eta horrek badakigu zer esan nahi duen... Hemen saihesbide bat egitea onartuta dago. Nire iritziz agintaldi honetan ere ez da egingo.

ANTZUOLA

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea bihar, martitzena, bukatzen da

Ordainketa helbideratuta eduki ezean, Udal Zergabilketa Bulegoan egin beharko da

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Trakzio-mekanikodun ibilgailuen zerga ordaintzeko epea maiatzaren 31n, martitzena, bukatuko da. Martxoaren 3an argitaratu zen zergaren errolda eta erreklamazioetarako epea bukatu ostean, apirilaren 1a ezkero dago zabalik ibilgailuen gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea.

Ordainagiri helbideratuen kasuan izan ezik, Udal Zergabilketa Bulegoan egin beharko da zergaren ordainketa. Epe barruan egin ezean, prozedura exekutiboaren bidez eskatuko da eta premiamenduzko errekargua, berandutza interesak eta, bidezko balitz, sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkio.

Lore lehiaketa

Aurten ere martxan da hamabosgarren aldiz Balkoi eta Leihoetako Lore Apainketa Lehiaketa. Parte hartzeko ez da izenik eman behar. Sariak Antzuolako jaietako ostiralean, uztailak 15, banatuko dituzte.

Bi hitzordu eguenean

Ekainaren 2an, 18:00etan, atez atekoaren jarraipen batzordearen bilera egingo da. Ohiko gaiak jorratuko dira: datuen azterketa eta hondakinak murriztea.

Bestalde, joan den martitzenean egitekoa zen jaietako bilera eguenean, 17:30ean, egingo da, udaletxean.

ARAMAIO

Gaur da Sarriako bertso barnetegian izena emateko azken eguna

Ekainaren 10etik 12ra Goikuria aterpetxean egingo da aurten; oraingoz, ume gutxi daude

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako bertsozale elkartearen proposamena aintzat hartuz, Zuiako koadrilako ikasleendako bertso barnetegia egingo da aurten ere, ekainaren 10etik 12ra bitartean. Aurten Sarriako Goikuria aterpetxera joango dira Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak. Ekimenaren helburua da ondo pasatzea, euskaraz, eta bertso zaletasuna gaztetxoen artean zabalduz.

Izenemate epea luzatu dute

Izena emateko azken eguna maiatzaren 26a zen hasieran. Hala ere, antolatzaileek izenemate epea luzatzea erabaki dute; gaur arte, hilak 30. Halaxe azaldu du Manex Agirre antolakuntza taldeko kideak: "Oraingoz [egubakoitz arratsaldean] ume gutxik eman dute izena eta epea astelehenera arte luzatzea erabaki dugu. Hala ere, hori epe ofiziala da eta, kasuak kasu, onartuko dira hortik aurrerako eskaerak".

Zuiako koadrila osoko ikasleendako irteera da eta Aramaiotik 18:00etan irtengo da autobusa, hilaren 10ean. Domekan Aramaioko eskolan izango dira bueltan, 14:15erako. Honakoa eraman beharko dute ikasleek: mendiko botak, lo-zakua, aldatzeko jantziak eta garbiketarako gauzak. Izena emateko, udaletxean aurkeztu behar da 35 euro ordaindu izanaren ordainagiria.



Ikasleak duela bi urteko abenturan. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

LEINTZ GATZAGA

Prototype taldea Bilboko Scratch Egunean izan da

First Lego League-rako egindako proiektua aurkezteko gonbidatu zituzten gatzagarrak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Bilboko Alhondegian egin zuten Scratch Eguna ekitaldia maiatzaren 21ean eta hantxe izan ziren Gatzagako Prototype taldeko kideak. Antolatzaileek gonbidatuta joan ziren First Lego League-rako egindako proiektua erakutsi eta bizitakoa azaltzeko asmoarekin.

Scratch zer den ikasten

Nazioarte mailan egiten den ekitaldia da Scratch Eguna eta Euskadin lehenengoz egin dute. Umeei bereziki zuzendutako aplikazio informatikoa da Scratch eta horren bitartez ordenagailuen programazioari lotutako kontzeptuak ikertzeko eta esperimentatzeko aukera eskaintzen du. 10 eta 12 urte arteko ikasleen topaketa izan zen Bilbokoa, eta euren proiektu eta esperientziak elkarri kontatzeko aukera izan zuten.

Eta bertan izan ziren Prototype taldeko kide guztiak ere: "Gonbidatuta joan ginen, bizitako esperientzia azaltzekotan. First Lego League-n izandako gainerako euskal taldeak ere izan ziren, batzuk proiektu teknikoa eta besteak proiektu zientifikoa erakusten", argitu du Idoia Armendariz taldeko kideak. Eta kontu berriak ezagutzeko tartea ere izan zuten: "Gure lana aurkeztekotan joan ginen, baina han tailer txiki bat ere bazegoen, Scratch horrek zertan datzan ikasteko formazio saioekin, eta gure mutilak han ibili ziren ikasten", jakinarazi du Armendarizek. Gero Bilbon egun pasa egiteko aprobetxatu zuten gatzagarrek.

Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA



EUSKARAZKO
HEDEBIDE
EZ PUBLIKOAK

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz

KIROLA

OHOR. ERREGIONAL MAILA

Mailaz igo zen Hernani Mojategin, omenaldi eta agurren arratsaldean

Lehia parekatuta hasi arren, Mondrak ezin izan zuen hernaniarren festa zapuztu

EMAITZA

MONDRA
0-3
HERNANI

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Gartzia, Loiti (Roa, min.69), Etxeberria (Barranca, min.75), Merkader, Laspiur, Garin (Pavo min.86), Lopez (Tena, min.62), Pavon, Muruamendiaratz (Andres, min.79), Aizpurua eta Zabaleta.

Hernani: Armentia, Aginagalde, Perez, Loinaz, Lujanbio, Oruetazabala, Zabaleta, Gurrutxaga, Oiardui, Olasagasti eta Bereziartua.

Bestelakoak: Denboraldiko partidurik jendetsuena. Hernaniko zale asko eta baita ohi baino arrasatear gehiago ere.

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Amaitu da denboraldia. Eta Mondrako Jon Muruamendiaratz, Ekain Garin, Illart Etxebarria, Iker Laspiur, Ion Loiti, Iban Roa eta Enrike Tenarendako amaitu da futbola. Bai, behintzat, federatu gisa. Partidua hasi aurretik, lehenengo bostei aurreskua dantzatu zieten lagun eta egungo zein iraganeko jokalariek. Dantzarien atzean, lagun talde ederra, pankarta eta guzti: *Futbolien eta jubilaziñuen Peña Txuri-More beti zuekin*. Beteranoak agurtu ostean, nesken taldeari pasilloa egin zieten bi taldeek, igoera lortu eta Gipuzkoako txapelketa irabazi izana txalotzeko. Eta partiduaren aurrekoekin amaitzeko, Mondra azkenera arte bihotzean eraman zuen Jaime Lopez izan zuten gogoan: Iker eta Josu semeei 12. zenbakidun – zalego leiala irudikatzen duena– kamiseta oparitu zien klubak, oroigarri gisa. Partidua hasi aurretik minutu bateko isilunea egin zuten.

Hernani, merezimendu osoz

Partiduari dagokionez, Mondra saiatu zen baina ezin izan zuen denboraldi osoko lana jokoan zuen Hernaniren aurka.

Parekatuta hasi zen lehia, baina minutuak aurrera egin ahala nagusitzen joan ziren kanpokoak. Atzean sendo eta aurrean eraginkor. Gartziaren atera lehen aldiz gerturatu zirenean sartu zuten gola, hernaniarren kapitainaren burukada eder bati esker. 0-1ekoarekin heldu ziren atsedenaldira eta bigarren zatian ere antzera jarraitu zuen jokoak: Hernani ondo jarrita, euren atea ondo zainduz eta aurrean min handia egiten. Falta baten beste burukada bati esker egindako 0-2koak hil zuen partidua. Hirugarrena kontraerasoan heldu zen. Azken minutuetan Hernaniko aulkian festa zen nagusi, eta partidua amaitu zenean, eromena.

Iban Rodriguez Mondrako entrenatzaileak onartu zuen Hernani gehiago izan zela: "Jardunaldi berezia izan da guretako, partidua prestatzea ez da batere erraza izan. Hala ere, gure lana ondo egin dugu baina Hernani oso indartsu eta motibatuta etorri da". Datorren denboraldira begira lanean hasiak direla dio Rodriguezek: "Baja asko izango ditugu eta beraz, kanpoko jokalariak ekartzea ezinbestekoa izango da. Etxekoak ahaztu barik: gazte mailatik eta erregionaletik ere igoko dira jokalari batzuk". Belaunaldi aldaketa dator, beraz; ea nola islatzen den zelaian.


Andoni Aizpurua erdilaria partiduko une baten. | ARGAZKILARIAXX


Emakumeek Gipuzkoako kopa eskuan zeharkatu zuten pasilloa. | JOKIN BEREZIARTUA

Beteranoei agurra, eta Lopez gogoan

Agurren partidua izan zen. Taldeko beteranoetako askok agur esan zioten futbolari, eta ondo merezitako agurra egin zieten: gertukoenen eskutik aurreskua, atzean lagun talde ederra zutela. Halako agurrak hunkigarriak izaten dira eta zapatukoa ez zen salbuespena izan. Bestalde, Jaime Lopez Iker Lopez jokalariaren aita ere izan zuten gogoan. Kamiseta oparitzeaz gain, minutu bateko isilunea egin zen partidua hasi aurretik. Emozioz josita zuten arratsaldea izan zen zapatukoa.



Garin, Laspiur, Loiti, Murua eta Etxeberriari aurreskua dantzatu zioten. | J.B.



Iker eta Josu Lopez, aitaren omenez egindako kamisetarekin. | J.B.

MENDIA | Jornet eta Kortazar nagusi Aizkorrin | 24

OHOR. ERREGIONAL MAILA

Etxean berdinduz agurtu da Aloña, ikusleei joko onez eta aukerez positako partidua eskainita

Partidu politarekin agurtu ziren Igartua, Bernal, Arregi, Moyua eta Millas; kadeteei pasilloa egin zieten

EMAITZA

ALOÑA MENDI

2-2

PASAJES



Jon Igartua aurkari batekin lehian; haren azken partidua izan zen atzokoa. | JULIO CALLEJA

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Aloñak eta Pasajesek ez zuten ezer zelaian sailkapenari begira eta jokoan igarri zen. Oraingoan onerako, izan ere, presio barik eta gozatzera irten ziren 22 jokalariak Azkoagaingo futbol zelaira, ikusleei joko onez eta aukerez positako partidua eskainiz. Falta eta etenaldi gutxiko partidua izan zen, eta beraz, epaileari protesta gutxi. Ohorezko Erregional mailan salbuespena diren horietako bat izan zen atzoko partidua.

Agurren eguna ere izan zen: Jon Igartua, Gorka Bernal, Iñigo Arregi, Unai Moyua eta Alberto Millasek ez dute jarraituko. Bestalde, kadeteei pasilloa egin zieten, ohorezko mailara igo direlako.

Golak bigarren zatian

Golak atsedenaldiaren ostean heldu ziren. 0-1ekoa falta jaurtiketa batetik etorri zen, baina handik gutxira markagailua irauli zuen Aloñak, Julen Palaciosen bi golei esker. 80. minutuan heldu zen 2-2koa, korner baten.

Sailkapeneko 13. postuan amaitu du denboraldia Aloñak, 38 punturekin. Aitor Oruetak Gabonetan hartu zuen gidaritza. Egoera zailari buelta ematea lortu du Oruetak: "Konfiantza falta zen gakoa eta nik egin dudan bakarra izan da jokalariei maila ona dutela sinestaraztea", azaldu du. Datorren denboraldirako Andoni Azkargorta fitxatu du Oruetak; pozik dira Aloñan Azkargortaren etorrerarekin: "Aspalditik gura genuen Andoni gurekin izatea. Ezagutzen dut, eta hasteko, pertsona moduan izugarria da. Eta entrenatzaile moduan, oraindik hobea. Ilusioz beteta gaude, badakigu-eta emaitzak emango dituela", uste du Oruetak.



Ohorezko mailara igo direnez, pasilloa egin zieten kadeteei. | JOKIN BEREZIARTUA

LEHEN ERREGIONALA

Laugarren postua gertu du Bergarak: joanekoan, 0-2

J.B. | BERGARA

Lehen erregionaleko igoera fasearen barruan, laugarren geratzeko lehian dabil Bergarako bigarren taldea. Kanporaketa erara jokatuz erabakitzen dira irabazleak eta mahoneroak Vasconia gainditu beharko dute laugarren geratu eta mailaz igotzen diren jakin ahal izateko.

Bada, zapatuan jokatu zen joaneko partidua eta ezin hobeto ekin diote bergararrek kanporaketari. Izan ere, etxetik kanpo 0-2 menderatu zuten Vasconia eta beraz, kanporaketa ondo baino hobeto bideratu dute.

OHOREZKO GAZTE MAILA

Mondrak eta Aloñak galdu egin dute, etxetik kanpo

J.B. | ARRASATE

Denboraldia ez dute ondo amaitu Ohorezko Gazte mailatik Euskadiko Ligara igotzeko fasean aritu diren ibarreko gure taldeendako. Donostialdean amaitu dute denboraldia eta biak porrotarekin bueltatu dira: Mondrak jipoi galanta jaso zuen Kostkas-en aurka (6-1) eta Aloña Mendi ere esku hutsik bueltatu zen Añorgatik (3-2).

Aurten ere ez da posible izan: Mondrak azken hirugarren postuan amaitu du igoera fasea, 21 punturekin. Aloñak, berriz, zazpigarren amaitu du, 26 punturekin.

OHOR. ERREGIONAL MAILA

Laugarren postua eskuratu du UDAk Trintxerperi irabazi ostean (1-3)

J.B. | ARETXABALETA

"Oso pozik gaude egin dugun denboraldi amaierarekin. Datorren urterako konfiantza ematen digu horren ondo amaitu izanak, batez ere jokalari gazteek egin duten lanarekin". Juanan Cruz UDAko entrenatzailearen hitzak dira, zapatuan Trintxerpe mendean hartu ostean (1-3) denboraldia laugarren postuan amaituko dutela jakin ostean.

Hala ere, zapatuko lehiaren emaitza "engainagarria" izan daitekeela aitortu du Cruzek: "Lehen zatian eurenak izan dira aukera garbienak, atezainak hiru edo lau gelditu on egin ditu. Hala ere, okerren geundenean egin dugu 0-1ekoa".

Batezbesteko adina, 20 urte

Atsedenaldira Beñat Etxabek buruz egindako 0-1ekoarekin heldu ziren baina bigarren zatia hasi eta berehala lehia berdindu zuten etxekoek. UDA ez zen behera etorri eta Julen Eraña eta *Gartzik* egindako golei esker hiru puntuak eta laugarren postua ekarri zituzten Aretxabaletara.

Talde gaztea zelairatu zuen UDAk zapatuan: "Batezbesteko adina 20 urtekoa izango zen", dio Cruzek. UDAk datozen lau edo bost urtetarako harrobia duela uste du, eta datorren denboraldira begira hasi da lanean. Utzita dauden jokalariak –Beñat Etxabe, Julen Eraña eta Andoni Pastrain– taldean geratzea espero du.

OHOR. ERREGIONAL MAILA

Bergara esku hutsik bueltatu da Zumaiako lehia parekatutik (2-1)

J.B. | BERGARA

Bergarak denboraldiko azken partidua galdu egin zuen Zumaiakoren aurka (2-1). Ez zuten ezer jokoan; Zumaiakok, berriz, azken hirugarren postua lortzea zuen helburu. Izan ere, Hirugarren mailatik jaitsiko diren taldeen arabera, aukerak izango dituzte maila mantentzeko. Orain itxaron egin beharko dute.

Partiduari dagokionez, norgehiagoka "parekatua" izan zela adierazi du Mikel Otero mahoneroen bigarren entrenatzaileak. Atsedenaldira 0-1ekoarekin heldu ziren bergararrak, Jon Garitanok penaltiz egindako golari esker. Bigarren zatian, baina, etxeko taldea dena ematera irten zen eta lehiari buelta ematea lortu zuten; 2-1ekoa 85. minutuan heldu zen, etxekoek Bergarak gaizki defendatutako korner bat aprobetxatu ostean.

Entrenatzaile berria, ziur

Datorren denboraldian entrenatzaile berria izango du Bergarak. Taldea bederatzigarren lekuan utzita eta ondo egindako lanaren poztasunaz, Oskar Maiztegi eta Mikel Oterok taldea utzi egingo dute. Zuzendaritzak oraindik ez du ordezkorik aukeratu. Jokalariei dagokienez, oraingoz ziurra den bakarra da Jon Garitanok futbola utzi egingo duela.

OHOREZKO KADETE MAILA

UDA-Arizmendik kale, eta Bergarak jipoia Anaitasunari

J.B. | BERGARA

Aretxabaleta-Arizmendik lehen postuan amaitu du Ohorezko Kadete mailako kopa eta jaitsiera fasea. Azken jardunaldian, baina, kale egin du: Vasconiaren aurka 3-2 galdu zuten zapatuan.

Bergara, bestalde, nagusitasun osoz gailendu zen Anaitasunaren aurka. Jipoi galanta eman zieten mahoneroek sailkapenean euren gainetik zegoen Azkoitiko taldeari: 6-2. Azken jardunaldiko emaitzez haratago, garrantzitsuena da datorren denboraldian bi taldeak maila berean izango ditugula.

MENDIA

Oihana Kortazar igo da Zegamako podiumaren gorenera, Jornetekin

Kataluniarrak irabazi du Aizkorriko maratoiaren X. edizioa, eta elgetarra izan da onena nesketan



Kilian Jornet eta Tom Owen Urbiara iristen, lasterketa buruan batera, ia proba osoan joan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Pronostikoak bete eta laugarren aldiz irabazi du Kilian Jornet kataluniarrak Aizkorriko maratoia: hori bai, oraingoan nahikoa estu ibilita, gertu gertu izan baitzuen uneoro Tom Owen taldekide britainiarra; 35 segundoko atzerapena baino ez zuen izan helmugan.

Jornetek ere aitortu zuen amaieran gauzak zail jarri zizkiola Owenek: "Behin eta berriz saiatu naiz ihes egiten, baina ez zegoen atzean uzteko modurik. Azken igoeretan ikusi dut bera baino zerbait hobeto nindoala, han jo dut eta balio izan du. Oso pozik nago berriz ere Zegaman irabazi izanagatik". Hirugarren Miguel Heras sailkatu zen, baina hau garaipenerako lehiatik urruti ibili zen, bost minututik gora galdu zituen-eta helmugan.

Aritz Kortabarria arrasatearrak lan ederra egin zuen –seigarren– eta Munduko Kopako bi lasterketa korrituta bera da sailkapeneko buru.

Hamargarren garaipena

Emakumezkoetan garaipen bikaina lortu zuen Oihana Kortazar elgetarrak. Inon diren marka guztiak ondu behar ditu martxa honetan; izan ere, denboraldi honetan korritu dituen hamar lasterketak –mota eta luzera guztietako lasterketak irabazi egin ditu. Egindakoak are meritu gehiago du, gainera, kontuan izanda zenbait hilabetez lasterketak albo batera utzita egon eta gero ekin diola, berriz ere, lehiari.

Atzo, hasi eta bukatu, buruan egin zuen lasterketa osoa Kortazarrek. Ez zegoen, printzipioz, irabazteko faborito nagusien artean –kontuan izanda irteeran zirela, besteak beste, bien artean azken sei ediziotatik bost irabazi dituzten Emanuela Brizio eta Corinne Favre–, nahiz eta bazen hautagai, zelako denboraldia daraman kontuan izanda.

Ba Aizkorriko tontorrean (22,58 kilometroa) zazpi kilometro ateratzen zizkion elgetarrak Briziori, azken bi edizioetako irabazleari. Horrelaxe planteatu zuen lasterketa, eta bete-betean asmatu zuen, ikusita azkenean minututik beherako aldea izan zela helmugan aurreneko bi sailkatuen artean: "Nahita igo naiz azkar. Aldea hartu nahi nuen, gero mendizerrako tartea eta jaitsiera teknikoa zetozelako, eta banekielako hor denbora kenduko zidala".

Eta hala izan zen, ze tarte horiek eta gero lau minutura jaitsi zen Kortazarren aldea. "Ni ez nago ohitua hain lasterketa luzeak egiten; asko jota 30 kilometro ingurukoak egin izan ditut". Beste behin baino ez zuen elgetarrak hori baino proba luzeagoa egina, Aizkorrikoa bera, duela bi urte. Ez zitzaion, baina, hain ondo joan, eta orduko eskarmentuak ere balio izan dio oraingoan garaipena eskuratzeko: "Orain bi urte jaten eta edaten ere ez nintzen geratzen, eta izugarrizko beheraldia izan nuen gero". 2009 urteko denbora asko hobetu du aurten helmugan, 40 minutu ia, eta irabazteko balio izan dio.

"Gorputzaldiz aurreko aldian baino hobeto amaitzea zen nire helburuetako bat, baina sorpresa izan da irabaztea. Helmugara iristen nire artean pentsatzen joan naiz: 'Ezin da izan; oraindik pasatu egingo nau'. Zorionez ez da hala izan".

Ez zegoen gainera Aizkorrikoa Elgetakoaren denboraldi honetako helburuen artean. Espainiako Kopa eta Txapelketa ditu buruan, eta aitortzen du bigarren horretarako konfiantza hartzeko ondo etorriko zaiola garaipena. Uztaila hasieran jokatuko da Espainiako Txapelketa Lleidan eta 42 kilometro ditu hark ere aurten; orain badaki distantzia horretan ere ondo moldatzeko gai dela: "Gaurkoa ikusita hara ere irabaztera joango naiz".

Emakumezkoetan podiumeko azken postua Maud Gobert frantziarrarentzat izan da. Helmuga hirugarren zeharkatu duena Corinne Favre izan den arren, epaileek hiru minutuko zigorra ezarri diote zirarik ez eramateagatik –araudiak behartu egiten ditu korrikalariak–.

Parapentearekin ezbeharra

Gainerakoan, dagokion mailaren araberako lasterketa izan da aurten ere Aizkorrikoa: ibilbidea egoera onean –soilik itzaletan zeuden tokietan lokatz apur bat



Oihana Kortazar bakarrik iritsi zen Urbiara. | X.U.



Joseba Berezibar aretxabaletarra –aurrean– eta Andoni Urtaza oñatiarra –atzean–. | X.U.



ziren modura. | XABIER URTZELAI

baina harkaitz guneak-eta lehor–; eguraldi onarekin jende asko animoak ematen; aukeran, hori bai, larregiko beroa egin zuen –zorabio asko izan ziren parte hartzaileen artean–. Eta eguneko beste istripua lasterketaz kanpoko kirolari batek izan zuen, parapentean ziharduen lagun batek, alegia: Aratz gainean zebilela 20 metroko garaieratik jausi zen, eta lasterketako osasun zerbitzuetako kideek hartatu behar izan zuten. Zauritua, 34 urteko altsasuarra, helikopteroz eraman zuten Txagorritxura.



SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

1.	**Kilian Jornet**	3:57:39
2.	**Tom Owens**	3:58:14
3.	**Miguel A. Heras**	4:02:52
4.	**Aitor Osa**	4:04:53
5.	**Nicola Golinelli**	4:06:27
6.	**Aritz Kortabarria**	4:13:04
7.	**Cristobal Adell**	4:13:10
8.	**Michel Rabat**	4:13:17
9.	**Pere Aurell**	4:15:52
10.	**Giovanni Tacchini**	4:16:52

EMAKUMEZKOAK

1.	**Oihana Kortazar**	4:42:50
2.	**Emanuela Brizio**	4:43:29
3.	**Gobert Maud**	5:06:54
4.	**Corinne Favre**	5:08:51
5.	**I. Zubizarreta**	5:12:32
6.	**S. Jimenez**	5:13:51
7.	**Laia Andreu**	5:16:04
8.	**Maite Maiora**	5:17:40
9.	**Nuria Picas**	5:18:16
10.	**Ragna Debats**	5:25:40

DEBAGOIENDARRAK

GIZONEZKOAK

1.	**Aritz Kortabarria**	4:13:04
2.	**Patxi Garcia**	5:08:35
3.	**Jokin Garai**	5:09:11
4.	**Josean Larrea**	5:34:29
5.	**Aitzol Guridi**	5:45:55
6.	**Jose Luis Barrena**	6:00:54
7.	**Joseba Berezibar**	6:01:02
8.	**Andoni Urtaza**	6:08:02
9.	**Jon Altube**	6:12:48
10.	**Josu Cascon**	6:18:26
11.	**Xabier Iñurritegi**	6:46:18
12.	**Arkaitz Sasiain**	6:53:45
13.	**P. Arejolaleiba**	6:53:45
14.	**Jon Urtaza**	6:58:37
15.	**E. Gabilondo**	7:13:36
16.	**Ragna Debats**	5:25:40

EMAKUMEZKOAK

1.	**Oihana Kortazar**	4:42:50
2.	**R. Lasagabaster**	6:42:21



Aloñako jokalariak erasoan; defentsan nabarmendu ziren, baina gora ere ondo egin zuten. | JULIO CALLEJA

ESKUBALOIA

Gipuzkoako Kopako finala galdu arren, denboraldi bikaina burutu du Aloña Mendik

Ez ziren kikildu maila bat goragoko Arrateren kontra, eta defentsa bikaina eginda bi golera ere jarri ziren, nahiz eta azkenean arlo fisikoak erabaki lehia

EMAITZA

ARRATE

30-26

ALOÑA MENDI

JULEN IRIONDO | BERGARA

Berriz ere itxaropena pizteko moduko denboraldia egin du aurten Aloña Mendiren gazte mailako taldeak. Itxaropena, Oñatiko eskubaloia orain ez horrenbeste urte izan zenera gerturatu dadin berriro. Ligan ondo, eta Kopan ere primeran, kategoria bat goragoko Arrate finalean majo estutuz, nahiz eta, azkenean, egindako denboraldi bikaina garaipenarekin borobildu ezin.

Euskal Ligan diharduen Arratek, denboraldi amaiera Asobal mailako taldearekin egin duten gazte mailako bi jokalari ere erabili zituen Bergarako Labegaraieta kiroldegian jokatutako partiduan. Gipuzkoako txapelketan ari den Aloñak, ostera, lehen urteko gazteekin eta kadeteekin osatutako taldea eraman zuen finalera, datorren denboraldira begira, bigarren urteko gazteei Kopa senior mailako taldearekin jokatzeko aukera emanaz. Eta hala ere...

Entrenatzailea oso pozik

Oso partidu ona jokatu zuten oñatiarrek. Defentsa ederra egin zuten, 5-1ekoa aurreneko zatian eta hori eta buruz-buruko bikoitza bigarrenean. Bost goleko aldea eraman zuten eibartarrek atsedenaldira (16 eta 11), baina bigarren zatian bi golera ere hurbildu ziren gorriak (21 eta 19). Erasoan ere ondo ibili ziren, baloia ondo mugituz eta baloi barik ere ondo jokatuz.

Partidu amaierarako, baina, igarri zen Eibarkoek aulki luzeagoa zutela –Aloña 8-9 jokalarirekin ibili da Kopan–, eta arlo fisikoan oñatiarrek behera egin eta hortxe egin zien ihes finalean ezustekoa emateko aukerak.

Baina, galdu arren, partidu amaieran oso gustura zegoen Rafa Zulueta entrenatzailea, bai finalean mutilek egindako lanarekin eta baita denboraldi osoarekin ere: "Oso jarrera ona erakutsi dute; helburua da jokalari hauek izatea bi urte barruko senior mailako taldearen oinarria".

PILOTA

Tainta-Lasa eta Elezkano-Larunbe, Ezkurdia-Jauregi eta Larrañaga-Untoria, Bergarako finalerdian bihar

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Bihar, martitzena, 19:30ean hasita jokatuko dira Udal pilotalekuan Bergara Hiria txapelketaren finalerdietako aurreneko partiduak: 22 urtez azpiko kategorian Taintak eta Lasak Elezkano eta Larunberen kontra jokatuko dute; nagusien mailan, berriz, Ezkurdiak eta Jauregik eta Larrañagak eta Untoriak neurtuko dituzte indarrak.

22 urtez azpikoetan, Taintak eta Lasak Santxo eta Arratibeli 22 eta 17 irabazita lortu zuten finalerdietarako baimena; Elezkanok eta Larunbek, berriz, 22 eta 10 hartu zituzten mendean Urbieta eta Sanchez, partidu ona eginda.

Nagusien kategorian, berriz, Ezkurdiak eta Jauregik sufritu egin zuten finalaurrekorako txartela lortzeko: 20 eta 7 egon ziren irabazten Eneko Muguruza eta Peñasen kontra, baina larri, 22 eta 20 irabazi zuten azkenean. Larrañagak eta Untoriak ez, hauek erraz lortu zuten biharkorako txartela Yoldi eta Gorrotxategiren kontra: Untoriak puntu bat gehiago dela erakutsi eta goitik behera dominatu zuen atzean, eta Larrañagak agerian utzi zuen pilota onak aprobetxatzen ondo dakiela. 22 eta 8 irabazi zuten Larrañagak eta Untoriak.

Beste finalerdiak


Beste bi finalerdiak ze bikotek jokatuko dituzten aurreko martitzenean geratu zen erabakita: 22 urtez azpikoetan Victor eta Rezusta izango dira Jaka eta Irustaren kontrarioak; nagusien mailan, berriz, Mendizabalek eta Iruretak neurtuko dituzte indarrak Azpiri eta Linzoainekin.

Victorrek eta Rezustak 22 eta 9 irabazi zieten Artola eta Ansotegiri. Alde handia izan zen markagailuan, frontoian ikusitakoaren isla; aurrean eta atzean nagusitu ziren irabazleak, nahiz eta partidu borobila ez zuten egin. Mendizabalek eta Iruretak, bestetik, erraz, 22 eta 7 menderatu zituzten Armendariz eta Uzkudun.



Irene Alvarez Castro, 20 urtez azpikoetan txapelduna. | JULIO CALLEJA


Markel Mendieta. | JON BEREZIBAR


Iker Arroitajauregi, iazko txapelduna. | JON BEREZIBAR

ESKALADA

Mikel Ziarrustarentzat Euskal Herriko Boulder txapelketa

- Markel Mendieta arrasatearra hirugarren geratu zen zapatuan
- Maila altua eta giro ezin hobea izan zuen lehiaketak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Euskal eskalatzaile onenak elkartu ziren zapatuan Elgetako pilotalekuan Euskal Herriko VI. Boulder txapelketan, denboraldiko hitzordurik garrantzitsuenetako batean, bai kirolarientzat eta baita zaletuentzat ere. Ikuskizuna, zer esanik ez, ederra izan zen eta zaleak uneoro ibili ziren parte-hartzaileak animatu eta giroa berotzen. Parte-hartzaileek ere ez zuten hutsik egin eta Euskal Herrian dagoen maila berriz ere geratu zen agerian.

Txapeldunak maila bakoitzean hauek: 16 urtez azpiko gizonetan Beñat Arrieta (Eskoriatza K.E.); 20 urte azpiko emakumeetan Irene Alvarez de Castro (Pol-Pol M.T.); 20 urtez azpiko gizonetan Jon Ferrero (Aurrera M.T.); emakumeen maila nagusian Esther Cruz (Inda Mendi taldekoa); eta gizonen maila nagusian Mikel Ziarrusta (Gasteiz Mendi Taldea), lehenengo aldiz mota honetako txapelketa baten hain gora heltzea lortu zuena, hain zuzen.

Ibarreko parte-hartzaileak

Egun osoko eskalada festa izan zen zapatukoa, Mundumira jaialdiko egitarauaren barruan ospatu zutena. Goizean kanporaketak egin eta gero, 17:30ean hasi ziren finalak. Euskal Mendi Federazioak bereziki diseinatutako sei bloke izan zituzten parte-hartzaileek. Pozik zeuden parte-hartzaileak antolatzaileek prestatutako bloke bereziekin.

Aurten ere maila oneko txapelketa izan dela diote antolatzaileek, espero zen bestekoa.

Ibarreko parte-hartzaileak

Orokorrean, Debagoieneko ordezkaritzak lan txukuna egitea lortu zuen. Gazteenen kategoriatan ibarreko mutilek lan polita egin zuten. 16 urtetik beherakoetan Eskoriatza Kirol Elkarteko Beñat Arrieta izan zen txapelduna eta bigarren Jon Aranburu, Besaide Mendi taldekoa. 20 urtetik beherako emakumeetan Pol-Pol Mendi taldeko Irene Alvarez de Castro izan zen txapelduna; bera izan zen parte-hartzaile bakarra. Gizonezkoetan podiuma lortu ez arren, Debagoieneko Eskalatzaile Taldeko Iñaki Velasco eta Kepa Bruñak laugarren eta bosgarren postuak eskuratu zituzten. Gizonezkoen maila nagusian Markel Mendieta arrasatearra hirugarren postuan geratu zen. Iaz kanporaketetan geratu zen; aurten ostera, gora egitea lortu du Murrukixo Taldeko kideak. Mikel Arroitajauregik iaz lortu zuen txapela aurten, bigarren geratuta, Mikel Ziarrustari gasteiztarra eman behar izan dio, oso lehia estuan. Debagoieneko gainontzeko parte-hartzaileei dagokienez, Pol-Pol Mendi taldeko Xabi Lazkano zortzigarren geratu zen eta Debagoiena Eskalatzaile taldeko Mikel Velasco hamabigarren.


J.B

MARKEL MENDIETA
HIRUGARREN POSTUA

"Nire helburua aurten podiuma egitea izan da eta lortu dut, pozik nago"

Iaz kanporaketetan geratu zen baina aurten ere gogotsu aurkeztu da arrasatearra. Azkenean hirugarren postua izan da beretzat, Iker Arroitajauregi bilbotarraren ostean. Txapeldunak bezala, bere helburua bete egin du Mendietak, hark podiumera igo nahi baitzuen eta iazkenean lortu du, hirugarren geratuta.

Egindakoarekin pozik?

Zaila eta gogorra izan da, ze maila altuko jende asko etorri da aurten. Egiturak gainera ez dira nire oso estilokoak eta hori ere kosta egin zait. Oso pozik nago lortutakoarekin, ez baita erraza izan.

Iaz kanporaketetan geratu eta gero, aurten izan duzun helburua zein zen?

Lehiaketan benetan giro bikaina egoten da eta, lehenik eta behin, hemen elkartzen den lagun taldearengatik eta giroarengatik etorri naiz. Horixe da arrazoi nagusia. Oso gustuko dut txapelketa. Hala ere, beti dago lehiarako nahia eta nire gaurko helburua podiuma egitea zen eta lortu dut. Pozik hortaz.

MIKEL ZIARRUSTA | TXAPELDUNA

"Euskal Herriko txapelketa inoiz ez da erraza izaten, beti dago oso maila altua"

Boulder txapelketetan parte hartzen 17 urterekin hasi zen gasteiztarra. Sekula ez du boulderretan irabazi eta halako txapel baten bila joan zen Elgetara. Baita eskuratu ere.

Espero zenuen txapela?

Ez, berez, baina lortu dut boulder txapelketa baten irabaztea, lehen aldia izan da. Oso txapelketa polita izan da, okerrena beroa, baina bestela egun polita izan da.

Txapelketa gustatu zaizu?

Giroa benetan ona iruditu zait, bai txapelketan bertan eta baita ere herrian zehar sekulako festa egon delako.

Prestatuta zeuden blokeei ze itxura hartu diezu?

Gustatu zaizkit eta espero baino errazagoak izan dira. Hori bai, eskerrak eman behar dizkiet antolatzaileei ze guztia ezin hobeto zegoen prestatuta eta txapelketa bikaina izan da. Boulderrak ondo zeuden, bai, baina aldi berean, oso dibertigarriak ziren, erronka polita izan da, oso ondo pasatzeko modukoa.


Ziarrusta, txapelarekin. | J.B.

Eta lehia, erraza?

Inondik inora! Euskal Herriko txapelketa inoiz ez da erraza izaten. Nik zortzi bat urte daramat parte hartzen eta maila beti oso altua izan da, lehia gogorra da beti.

Jesus Arantzabal | Txirrindulari profesional ohia

"Txirrindularitza asko aldatu da; batez ere, elikadura eta prestaketa aldatu dira"

- San Antonioko lasterketak 75 urte egingo dituela-eta ekainaren 9an hitzaldia egingo du
- 60ko eta 70eko hamarkadetan izan zen txirrindularia Jesus Arantzabal bergararra

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergarak eman duen ziklista onena da Jesus Arantzabal. 60ko eta 70eko hamarkadetan ibili zen errepidean. Oraindik ere jarraitzen du ziklismoa, eta Contador duela gustuko esan digu.

Ez da ohikoa auzo lasterketa batek 75 urte betetzea.

Ez da ohikoa, ez, baina San Antonioko lasterketa izen handiko lasterketa da, profesionalen lasterketa ere izan da. Gogoan dut garai baten Barrutia, Ferraz, Morales, Loroño... etorri izan zirela. Nik korritu nuenean afizionatu mailakoa zen.

Zelan aldatu da txirrindularitza urte hauetan?

Asko aldatu da; batez ere elikadura eta prestaketa gaiak dira aldatu direnak. Gaur egun oso orientazio ona dute, guk ez genuena. Prestaketa norbanako bakoitzari zuzenduta dago, zenbat kilometro egin behar dituen neurtzen dute... Bizikleta ere aldatu da, baina aldaketa handiagoa egon da prestaketan.

Zuek nola zaintzen zenuten elikadura?

Koiperik ez hartzea kontrolatzen genuen. Gaur egun, esaterako, pasta asko jaten da eta okela gutxi. Gure garaian pasta gutxi jaten genuen, italiarrek -eta ekartzen zuten, baina, gainontzean, ez zen jaki ezaguna. Arroza, adibidez, gehiago jaten genuen. Goizetan jaten genuen arroza.

Bizikletak ere aldatu direla esan duzu. Zertan, adibidez?

Arinagoak dira oraingoak, bi kiloko aldea egongo da. Guk erabiltzen genituen bizikletak 9 kilo eta erditik gorakoak ziren eta gaur egun 7 kilo ingurukoak erabiltzen dituzte. Garai bateko bizikletek balaztak, eta aldaketak... dena eskulekuan dago orain, baina lehen koadroan zeuden eta eskuak askatu behar izaten genituen.

Nola hasi zinen bizikletan ibiltzen?

Hasiera, jende guztia bezala, koadrilan irteten hasi nintzen. Lagun artean irteten ginen eta gustatu egin zitzaidan. Zumaiako Pulpon, Danenan Zizurkilen, Errenteriako Touring-en ibili nintzen. Gurelesan ere aritu nintzen eta soldadutzara joan nintzenean bazegoen kuartelean talde bat... gero, Espainiako selekzioarekin ibili nintzen Olinpiadetara joateko gertatzen. Azkenik, Baionan eta Fagorren ibili nintzen, azken horretan lau urtez profesional moduan. Amaitu, Frantzian amaitu nuen.



Jesus Arantzabalek eta Anton Barrutiak egingo dute hitzaldia ekainaren 9an. | A.E.

Olinpiadetarako entrenatzen ibili zinen, baina azkenean ez zinen joan.

Ez; Madrilen entrenatzen 14 lagun ibili ginen, baina 12 bakarrik joan ziren. Pena hartu nuen... baina egia da orain duten balioa ez zutela garai hartan Olinpiadek. Orian ikusten duten moduan ez nuen ikusten orduan, ez ginen konturatzen zer esan gura zuten. Deseatzen nengoen joateko, baina ekimenak ez zuen gaur egun duen publizitaterik.

Profesional eta afizionatuen artean jauzi handia zegoen?

Bai; lehen ere bazegoen, orain bezala. Gertatzen dena da gaur egun afizionatu eta profesionalen artean badagoela beste maila bat Tourrerako, eta tarteko lasterketak egiten dira. Hala, hobeto prestatzen dira profesionaletarako saltoa egiteko.

"Nik uste dut gaur egun larregi sartzen direla txirrindulariekin"

"Ona da Vuelta hemendik pasatzea, zaletasun handia dago-eta hemen"

Gaur egun txirrindularitzak bizi duen egoeraz ze iritzi duzu?

Nik uste dut larregi sartzen dela. Gehiegi berba egiten da. Nik uste dut kontrolak ondo daudela, baina ez zaio eman behar horrenbesteko publizitaterik, ze modu horretan galdu egiten baita. Jendeak uste du txirrindulari gehienak dopatu egiten direla eta ez da egia. Bai, egongo dira, eta limitean ere ibiliko dira, ze medikuekin baitabiltza, eta medikuek badakite ze produktuk ematen duen positibo... baina beti daude deskuiduak... diru asko mugitzen da.

Jokatu zenituen lasterketetatik zein duzu gustukoen?

Euskal Herriko Itzulia gogoko nuen, eta lidergoa lortu nuen, gainera [1970]. Etapa amaiera Donostian izan zuen Espainiako Itzulia ere gogoan dut [1972].

Afizionatu mailan, 1962. urtean, San Antonioko lasterketa irabazi nuen.

Gaur egun teknologia erabiltzen da lasterketetan, hor dago entzungailua. Zer iritzi duzu?

Aurrerapen handia da txirrindulariendako eta zuzendariendako, baina ez, ordea, ikuskizunarendako. Ez balego, askatasun handiagoa egongo litzateke, eta ihesaldi gehiago.

Orain, entzungailuak kentzekotan daude. Nik egingo nukeena da entzungailua utzi, baina taldean 9 lasterkari izan beharrean 7 lasterkari izatera pasa. Hala, jende gutxiago egongo litzateke lasterketa kontrolatzeko, eta askatasun handiagoa.

Zuk Espainiako Itzulia jokatu zenuenean Euskal Herritik pasa zen. Orain, berriro itzuliko da. Zer deritzozu?

Bai; gure garaian Donostian amaitu zen lasterketa. Aurten hemendik pasako da, Gorlatik. Nik uste dut beti dela ona, hemen zaletasun handia dago-eta. Nik uste dut kirola gauza bata dela eta politika beste bat... joango naiz ikustera.

Zuen garaian zeintzuk ziren ziklista indartsuenak?

Gure garaian, Eddy Merckx zen onena, Gimondi, Ocaña, Poulidor ere onak ziren... Bai, bageneukan tratua Merckxekin; izan ere, oso gizon irekia zen.

Eta gaur egungo nortzuk dituzu gustuko?

Contador, Schleck anaiak, Cavendish... Schleck anaien aitarekin batera ibili nintzen Frantzian, Bic taldean.

Euskal Herrian zaletasun handia dago. Zergatik?

Beti egon da; esan daiteke gaur egun txikiagoa dela. Zerk sortzen duen hori? Ondoko herrian norbait ona irteten bada, zaletasuna sortzen du. Profesionaletara iristeko beharrezkoa da zaletasun handia izatea, bakarra esan daiteke.

HEZIKETA

Aisialdia orain elektronikoa da; nagusitzen ari da bakarrik eta eserita jolasteko joera

Teknologia berriak ez dira ez txarrak ez onak, kontua da nola erabiltzen diren

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Gero eta zabalduago dago Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) berriek inpaktu handia dutela haur eta gazteen bizitza sozialean, jokabideetan eta aisialdian.



Haurrak ordenagailu batekin jolasean. | SAN JOSE LIBRARY

Erabilera mugatu

Bideojokoak, Internet, telebista... umeek ordu askoko denbora-pasa izatea gurasoen akatsa da, ez seme-alabena. Komeni izaten da seme-alabek aukeratzen dituzten jokoak eta jolaskideak gainbegiratzea eta horretarako lagungarri izango da jolas-ekipoa toki ageri batean egotea. Hobetsi jokalari bat baino gehiagoren parte hartzea bideratzen duten jokoak eta ahal dela senitartekoak jolaskide izan. Erabilera denbora mugatzea ere komenigarria da; eguneko, gehienez 30-60 minutu (umearen adinaren arabera) eta tartean pausaldi bat eginez.

Berezko jolasaren garrantzia

Haurren jolas-jarduerek eragina dute geroko garapenean. Adituak ere bat datoz; eskolaz kanpoko jardueretan eta bideo-jokoetan denbora gehiegi emateak arriskuan jartzen du berezko jolasa, umeek sortu eta araututakoa, umeen irudimena eta sormena garatzeko ezinbestekoa dena. Egituratu gabeko jolasa ere oso mesedegarria da haurren garapenerako; talde-lana, negoziazioa, gatazkei konponbidea bilatzea eta nork bere ikuspuntua defendatzea ahalbidetzen du.

Ipuinak tresna baliagarria dira hizkuntza bat naturaltasunez ikasteko

Egitura gramatikal samurra, hiztegi sinplea eta ulermena errazteko ilustrazio handiak dituzte

L.Z. | ARRASATE

Ipuinak heziketa tresna baliagarria dira; gurasoen eta seme-alaben arteko lotura sendotzen dute, irakurzaletasuna pizten dute eta bikainak dira gaitasun linguistikoak lantzeko (ulermena, mintzaera, idazkera...). Guraso trebeak izanez gero, seme-alabak hizkuntza berri batean iniziatzeko aukera eman dezakete ipuinek.

Zientziak esana dauka haurtzaroko lehenengo urteak direla egokienak hizkuntzak ikasteko. Hizkuntzen irakaskuntzako adituen artean gehien zabalduta dagoen teoriak dio bigarren hizkuntza ikasteko metodorik onena lehenengo hizkuntza ikasi den moduan ikastea dela; entzumenaren bitartez, alegia.

Ipuin egokiak aukeratu

Haurrari hizkuntza berri batean idatzita dauden ipuinak kontatzea erabakitzen dugunean bere adinari egokituta dauden ipuinak aukeratzea oso garrantzitsua da. Aldi berean, tipografia ulerkorra duten ipuinak aukeratuko ditugu eta ilustrazioek pisu handia behar dutela hartuko dugu kontuan.

Materialik ez da falta eta sarean asko aurkituko dugu. Cuentos en inglés, Cuentos para chicos, Story time forme, Storynory, Albalearning eta Cuentacuentos atari horietako batzuk besterik ez dira.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

ADITUAREN ESANETAN

Wikiloc, mendian ez galtzeko

Juan Arbulu
TAFYDeko irakaslea



Txirrinduarekin edo oinez mendi txango bat egin nahi dugula eta ez dugula ibilbidea ezagutzen? Lasai, Internetera konexioa baldin baduzu eta nabigatzeko tresnaren bat eskura edukiz gero –ordenagailu bat edo telefono eramangarri bat– laster aurkituko duzu irtenbidea. Wikiloc web aplikazioak emango dizkizu ibilbidearen zehaztasunak: argazkiak, iruzkinak, GPS datuak eta abar.

Egun, hainbeste entzuten dugun web 2.0 moduan kontsidera daiteke aplikazio arrakastatsu hori. Wikiloc 2005. urtean Jordi Ramot izeneko kataluniar batek sortutako web aplikazio bat da. Mundu guztiko ibilbideak arakatzeko, sortzeko eta partekatzeko tresna baliotsua da.

Askea eta doakoa den software horrek azken bost urteotan izugarrizko arrakasta izan du. 2006an 60.000 erabiltzaile izatetik 2010an hiru milioi erabiltzaile izatera igaro da. Era berean, izan duen bilakaeraren isla dira ondorengo datuak: 180 herrialdetara hedatua, 18 hizkuntzetara itzulia, 156.000 ibilbide erregistratuta eta 230.000 argazki eta bideo igota.

Wikiloc web aplikazioaren bitartez aire zabaleko kirola praktikatzea maite dutenek munduan barrena dauden mendi ibilbideak partekatu ditzakete. Horrela, askea den plataforma hori aprobetxatuz eta parte hartzen dutenen elkar lanaren ondorioz edozein herrialdetako ibilbide interesgarriak eskura ditzakegu. Hori bakarrik ez edonorentzako baliagarriak eta berriak izan daitezkeen txangoak ere sarera igotzeko aukera dugu.

Ibilbideak erregistratzeko jarraitu beharreko pausuak honakoak dira. Lehenengo eta behin izena eman behar dugu aplikazioan. Erregistroa behar den moduan burutzeko izena, posta elektronikoa eta pasahitza idaztea besterik ez digu eskatzen. Izena eman ondoren ibilbidea igotzeko ondoko bi aukera ditugu: ibilbidea maparen gainean eskuz markatzea edo GPS fitxategi baten bidez ibilbidea markatzea. Bigarren aukera horrek eginiko ibilbidea GPS gailu batean aurrez erregistratzea eskatzen du. Hala, fitxategia igo besterik ez da egin behar. GPSko fitxategiak GPX formatua –GPS Exchange Format– izan behar du. Zehaztasuna badugu helburu aukera honek ematen digu eskaintzarik onena.

Webgunera igotako ibilbideak aurkitzeko aplikazioak bilatzaile propioa du. Mendiaren izena, udalerria, probintzia... bilatzailean idatzi eta idatzitako hitzarekin zerikusia duten ibilbideak ikusteko eta arakatzeko aukera izango dugu.



Udalatxen gaineko informazioa wikiloc aplikazioan. | ARIZMENDI IKASTOLA

'http://www.wikiloc.com'

Wikiloc webguneak igotako txangoak eta ibilbideak Google Earth-en ikusteko aukera ere ematen du. Ibilbide gehienak oinez edo txirrinduarekin egiteko modukoak dira. Aplikazioak, bestalde, askotariko aukerak ematen ditu: ibilbidearen profila ezagutu, jarduera mota jakin, desnibela, luzera eta altitudea kontsultatu, zailtasun maila baloratu, txangoa egiteko behar den denbora kontsultatu... Gainera, igotako argazkiak ikusteko aukera ere ematen du. Ibilbidea deskargatzeko aukera, GPS traka delakoa, ere ematen du. Informazioa partekatuz mendian ibiltzeko aukerak zabaldu egiten dira.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendipro.eu**

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK

KULTURA



Los Delinqüentes talde andaluziarrak zapatu gauean eman zuen kontzertua eta Elgetako plaza bete egin zen euren doinuez eta umoreaz gozatzeko. | JULIO CALLEJA

Ahoak, belarriak eta bihotzak ederki gozatuta, Mundumiran

- Mundu guztiko doinu, dantza eta jakiak izan dira Elgetan asteburuan
- Zapatu gauean lepo bete zen herriko plaza kontzertuez gozatzeko

IRATI GOITIA | ELGETA

Asteburuan Mundumira jaialdia ospatu da Elgetan. Zazpigarren urtez jarraian egin da kulturen festa eta oraingoan ere arrakasta itzela izan du. Elgetako kaleak lepo bete dira bailarako zein beste hainbat tokitatik etorritako jendez eta, eguzkia lagun, izan dute non gozatu: musika, kale animazioa, gastronomia...

Mundu guztiko doinuak

Munduko hainbat tokitatik etorritako musika taldeekin dantzatzeko aukera izan da, besteak beste: Kuba, Mozanbike, Frantzia, Senegal eta Espainiakoekin.

Egia esan, gustura hasten da eguna doinu kubatarrak entzunez eta eguzkiak berotzen duela. Zapatuan, 12:00etan, Habana Con Kola taldeak dantzan jarri zituen goizean goizetik Elgetan zebiltzanak. Arratsaldean, Mozanbikeko Moya Kalongo taldearen doinuekin ere ezin geldirik egon. Abeslaria taula gainetik jaitsi eta jendearekin dantzan ibili zen. Baina gauean etorri zen eztanda. Dub Inc Frantziako taldeak Elgetako plaza saltoka jarri zuen, abeslariak "*jump, jump, jump*" oihukatzen zuen, ordurako plaza beteta zegoen. Ostean etorri zen Los Delinqüentes talde andaluziarra.

Kanpokoez gain, bertakoek ere jo dute Elgetan; domekan, Arrasateko Meri Mayk eta Ain_1 taldeak girotu zuten jaia.

Kale antzerkia eta gehiago

Musikaz gain, beste hainbat ikuskizun ere izan dira, adibidez, kale antzerkia. Zapatu goizean Artea Teatro taldeak izugarrizko arrakasta izan zuen, herri guztiak hartu zuen parte Aragokikoen *Crazy Test*-ean. Barre algara ugari izan zen.

Kirolerako ere izan da tartea. Horrela, Euskal Herriko Boulder txapelketa edo BTT zeharkaldia egin dira. Ibilaldiak eta bisita gidatua ere egon dira.

Zapore eta artisau ugari

Munduko gastronomiaz gozatzeko aukera paregabea da Mundumira: pizza, kebab-a, taloa, eta patata egosiak dastatu ahal izan dira, besteak beste.

Poltsikoa xentimo gabe uzteko arriskua ere bada, izan ere artisauek jarritako postuetan, gauza zoragarriak izan dira: zilarrezko belarritakoak, narruzko poltsak, harrizko lepokoak, eskuz margotutako arropa...

Ez da zalantzarik, zentzumen guztiekin gozatzeko festa da Mundumira.

Los Delinqüentesen txalo eta takoi hotsek Elgeta berotu zuten

Los Deliqüentes talde andaluziarra izan da aurtengo Mundumirako talde izarra eta jende ugari elkartu zen zapatu gauean Elgetako plazan taldea ikusteko.

El bueno, el malo y el feo film ezaguneko soinu bandaz hasi zen andaluziarren kontzertua, pelikulako doinuak entzuten zirela irten ziren taldekideak taula gainera. Ondoren etorri ziren takoi hotsak, txaloak eta taldearen ezaugarri diren letra bereziak.Taldeko abeslariak Elgetan "*agustisísimo*" zeudela abestu zuen. Entzuleak ere gustura egon ziren flamenkoarekin, funkarekin, bluesarekin, poparekin eta rockarekin nahastutako doinu andaluziarrak entzuten.

Irrien lagunak klubak eta kanpatzeko guneak harrera ona

Aurten bi berrikuntza izan dira kulturen festan: *Irrien lagunak kluba* eta kanpatzeko tokia. Biek izan dute oso erantzun ona.

Umeen gunea kiroldegi ondoan kokatu zuten. Bertan puzgarriak, jolasak, rokodromoa, tirolina eta ohe elastikoa ipini zituzten, besteak beste. Umeak pozik: Porrotxen maskarak egiten, Mari Kalanbrerekin jolasean edo Sendavivako ohial magikoan bidaiatzen.

Beste nobedadea, kanpatzeko tokia, poligonoan jarri zuten. Zapaturako denda dezente kokatu ziren bertan. Gainera, autokarabana eta furgonetentzako tokia ere izan zen eta ugari izan ziren bertaratutakoak.

Oxel Erostarbe: "Indarrak batuta, gai gara erronkei aurre egiteko"

Elgetako alkateak, Oxel Erostarbek, balorazio positiboa egin du: "200 elgetarrek indarrak batzen ditugunean, gai gara horrelako erronkei aurre egiteko." Gaineratu du ez dela inolako arazo aipagarririk egon.

Bestalde, Euskal Herria aldizkariko Iñaki Rekaldek ere balorazio ona egin du: "Ezin hobeto joan da, uste dut aurtengoa borobil irten dela. Eguraldia lagun izan dugu eta milaka lagun etorri dira Elgetara. Gainera, aurtengoan, umeen gunea indartu dugu, kale giroa polita izan da eta gure filosofia zabaltzea ere lortu dugu. Helburu guztiak bete ditugu. Jada Mundumira jaialdi heldua dela uste dut."



Familian disfrutatzeko aukera ugari izan dira Elgetan. | JULIO CALLEJA



Kebab postuan janaria erosten. | J.C.



San Roke kalean zegoen mendi eta senderismo postuan informazioa jasotzen. | J.C.



Doinu kubatarrekin dantzan. | J.C.



Jendetza bildu zen Elgetako plazan gaueko kontzertuetarako. | J.C.



RAUL CABRERA
TXONTXONGILO SALTZAILEA

"Ez nuen Mundumira ezagutzen. Lagun bat izan zen aurrekoan eta berak gomendatuta etorri naiz. Asko gustatu zait. Eskuz eginiko txotxongiloak saltzen ditut eta salmenta nahiko ondo doa."



MANOLO RODRIGEZ
ANTZUOLA

"Parrilla argentinarreko haragia jaten gabiltza, oso ona dago. Goizean etorri garenean ikusi dugu eta orduantxe erabaki dugu hemen bazkalduko genuela. Egun pasa etorri gara."



MAITANE IGARTUA
MUNDU SOLIDARIOA HELBURU

"Gure GKEren berri ematera etorri gara, baina ez gaude tokirik egokienean, ezkutuan gaude. Ondorioz, ez da jende asko gerturatu. Gure lana egiteko bistara egon behar dugu."



SANTI PEREZ
ELORRIO

"*Irrien lagunak klubeko* zezenaren aurrean ibili naiz korrika eta gustura ibili naiz. Puzgarrietan saltoka ere aritu naiz. Jolastu ostean, afaldu eta gero akaso parranda pixka bat egingo dugu."



HECTOR ORTEGA
NORA ALDIZKARIA

"Mundumira erakusleiho bikaina da. Sua argitaletxeak ateratzen dituen produktu guztiek izaten dute harrera oso ona, jendea galdezka etortzen da eta baita udarako plan bila ere."





Areatzatik etorritako familia bat bazkaltzeko prest, hainbat jakirekin. | G. ARANA


Habana Con Kolako abeslaria . | J.C.


Mery May arrasatearra abesten. | T. MADINA


Senegalgo perkusio taldeko kidea. | J.C.


Kukubiltxo taldearen kale antzerkia ikusten umeak. | TXOMIN MADINA


Artisauen postuetan jende ugari ibili zen zer topatuko begira . | GOIATZ ARANA

MAIATZEKO SARIEN IRABAZLEAK

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Txopebenta Landetxea



Izen-abizenak:
Ignacio Toledo Lizarralde

Herria:
Antzuola

Mundumirako-ko sariak

Kamisetak

Luziano Galdos Urzelai	Oñati
Nekane Gabilondo Ugarte	Bergara
Pilar Calvo Sodupe	Arrasate
M. Angeles Arriolabengoa Unzueta	Aramaio
Mikel Larrañaga	Arrasate
Jose Antonio Auzmendi	Arrasate

Harpidetzak

Gotzon Agirre Arregi	Arrasate
Axun Otxoa Ugalde	Arrasate
Ramon Ugalde Arrieta	Elgeta
Jose Manuel Elkoroberezibar Mújica	Bergara
Beñardo Balerdi Gomez	Arrasate

Liburuak

Irene Madinabeitia Uriarte	Bergara
Jesús Belamendia Agirre	Elgeta
Jose Luis Aizpurua	Bergara

ZORIONAK, GUZTIOI !

DATUAK

3500
PERTSONA

Zapatu gauean jo zuen Mundumira honetako talde izarrak eta hori nabaritu zen. Elgetako plaza jendez lepo bete zen, inork ez zuen Los Delinqüentes taldea galdu nahi.

55
KANPIN

Aurtengo berrikuntzetako bat kanpatzeko tokia izan da, horretarako tokia poligonoan jarri zuten antolatzaileek. Animatu da jendea kanpinarekin joan eta gaua bertan igarotzera, batez ere zapatuan.

32
GRADU

Mundumira jaiak eguzkia alde izan du aurtengoan. Zapatuan egun paregabea egin zuen. Domekan, akaso, bero larregi. Termometroa 32 gradu markatzera iritsi zen.



MIREN ORMAETXEA
ELGETA

"Eguraldi ona, jende asko eta giro bikaina. Herria ezagutu ezinik gabiltza horrenbeste jenderekin. Gaur, egun osoa kalean, etxean sartu ere ez. Denetarik ikusi dugu dagoeneko eta dena gustatu zait."



HABANA CON COLA
KUBAKO MUSIKA TALDEA

"Guretzako hemen jotzea konpromiso handia da eta baita gure ilusio bat egi bilakatzea ere. Izan ere, guk Euskal Herria ezagutzen genuen, baina euskaldunek gu ez, lehenengoz joko baitugu Euskal Herrian. Gainera, guretzat plazera da zuei gure herriko musika ekartzen, zuei gure zati txiki bat erakustea. Kubako musika tradizionala joko dugu eta baita guk geuk idatzitako kanta batzuk ere. Helburua jendea dantzan jartzea da."



ARTEA TEATRO
KALE ANTZERKI TALDEA

"Ikuskizuna oso ondo joan da, oso harrera ona izan dugu eta jendeak parte hartu du. Test batzuk egin dizkiegu hemen zeuden herritarrei eta guztiak gainditu dituzte. Gure tramankuluek ere zirrara handia sortu dute jendearengan. Gu oso gustura etortzen gara Mundumirara, dagoeneko laugarrenez etorri gara eta guretzat plazera da. Asko gustatzen zaigu Euskal Herrian lan egitea."



Maite Arroitajauregi, Mursego, gaztetxeko patioan. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Saguzarra kartzelako patioan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Geruzaz geruza, biolontxelo, perkusio edo ahotsekin, soinu segiden kiribila sortuz, zuzenean eraikitzen ditu abestiak Mursegok, ondorio ia hipnotikoekin, sorginkeria moduko bat sorraraziz. Berezia da haren musika eta berezia sortutako giroa. Maite Arroitajauregi, Mursego, eta Ain_1 taldea Bergarako txoko txukunenetako batez jabetu ziren egubakoitzean, Gaztetxeko patioaz, edertasun ilun eta arraroko opari berezia ekartzeko.

Biolontxeloarekin melodia lazgarriak zabal ditzake, ala hoditxo, txirula edota txaloekin soinu-jolas komikoak osatu, Mursegok egiten duena kutxa baten sartu eta sailkatzea zaila da. Gazi eta gero gozo, garratz eta inoiz ezti, beste mundu bateko plaza bihurtu zuen eibartarrak kartzela zaharreko patioa, saguzarren gotorleku ilun bat, argia ere berezia, kandelek jaurtitako itzalak ere kantari bereziak asmatutako joko ilunean parte hartzeko gogoz baleude bezala. Giro bildu horretan atera zituen argitara Arroitajauregik bere bi diskoetako abesti bitxiak – *Bat* (2009) eta *Bi* (2010) autoekoiztuak eta Bidehutsek banatuak –, iniziatuentzat leize barruko harribitxi preziatuak direnak eta gainerakoentzat edertasun arraroko beste mundu bateko ipuin eder arrotzak, ziurrenik. Haren musika maita zenezake edo burua nahas diezazuke, ala biak aldi berean, baina zuzenean ikusi eta gero frogatuta geratzen da zergatik dabilen haren izena euskal musikazaleen artean belarriz belarri. Izena badu dagoeneko eta geroago eta interesgarriagoa da egiten duena, armonia eta instrumentazio landuagoekin. Gainetik belarririk ez kentzeko modukoa.

FITXA

GAZTETXEKO PATIOA

MURSEGO ETA AIN_1

Estiloa: Folk bitxia (Mursego) eta popa (Ain_1).

Non: Bergara.

Eguna: Egubakoitza, maiatzak 27.

Iraupena: Bi ordu eta erdi.

Ain_1ekoek – Bergaran estreinakoz, kideetako bat herriko alaba bada ere – Mursegok utzitako giro berezian kabi egin eta kolore beltz eta gorritan entzuleekin jolasean jarraitu zuten. Poesia, dantza eta pop abesti lasai eta leunak. Goxoa izan zen Arrasate, Bergara eta Gasteizko kideek osatzen duten neska taldearen ikuskizuna.

Aramaioarrak nagusi bertso-eskolen txapelketan

Arabako bertso-eskolen egunа ospatu zuten zapatuan Legution eta egun horretan bertan ere jokatu zuten eskolarteko txapelketa, txiki eta handien mailetan. Txikien mailan, Peru Abarrategi sailkatu da Euskal Herriko eskola arteko txapelketako finalerako; ekainaren 18an ospatuko dute. Handien finalean ere aramaioar bat geratu da bigarren: Paula Amilburu. Gasteizko eskolako Amaia Lasaga izan da lehena kategoria horretan. Guztira Arabako 16 eskoletako kideek hartu dute parte bertso-eskolen egun handian Legution, saio eder askoekin.

Eguaztenean 'King Kong' Emakumea antzezlana Kultur Aten

Arrasateko Emakume Txokokoek *Emakumeak eszenan* antzerki emanaldi sortaren barruan ekainaren 1ean saio bikoitza antolatu dute. Batetik *King-Kong neska* lana aurkeztuko du Josune Monton –King Kong emakumearen teoria oinarritzat hartzen duen lan feminista– antzezleak eta bestetik Jabetze Eskolako ikasleek emanaldi berezia egingo dute. Kultur Ateko areto nagusian izango da 19:00etan. *Emakumeak kameraren aurrean* izeneko ikastaroa egin dute ikasleek eta bertan jasotakoak eskainiko dituzte. Saio hau gazteleraz izango da.



Irati Agirreazaldegi gai-jartzailea, arratsaldeko saioko bertsolariekin. | JULIO CALLEJA

Labayen eta Egaña buru, Aretxabaletako saioan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen faseko azkenaurreko saioa jokatu zen atzo

J. B. | ARETXABALETA

Atzo, domeka, goizeko eta arratsaldeko saio banatan, jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen faseko azken aurreko saioa. Ibarreko ordezkari bik hartu dute parte: Jokin Labayen arrasatearrak eta Urko Egaña oñatiarrak, biak ere, hurrenez hurren, arratsaldeko saioan lehen eta bigarren postuak eskuratu zituztenak. "Koplatan eta hamarreko txikietan" ibili zen gusturen Labayen, hark azaldutako moduan, hala ere, ez zuen esperotako emaitza lortu. Puntuekin, hurrengo fasera igaroko da arrasatearra, udazkenean hasiko dena. Egañari dagokionez, bigarren postua eskura zuen. Egokitu zaizkion gaiekin "oso pozik" egon zen atzokoan Egaña baina egindako lanaz galdetzean ez dio gauza berdina "zenbait akatsengatik", batez ere kartzelako saioan. Hala ere egindakoarekin pozik dagoela dio Urko Egañak.

Lehen faseko azken saioa datorren igandean izango da Urretxun eta behin hori amaituta udazkenean hasiko dira bigarren fasearekin.

Bergarako musikari gazteek egun handia izan zuten zapatuan

J. B. | ARRASATE

Musikari gazteenen eguna izan zuten Bergaran zapatuan Musika Eskolako Udaberriko kontzertuaren aitzakiatan. Urteroko ekitaldi klasikoa dute Bergarako artista txikiek baina frontoiaren jaun eta jabe egin baino lehenago trikitilariek herria alaitu zuten. Kontzertua 19:00etan hasi zen eta Suzuki taldeak, akordeoi orkestrak, txistulari taldeak, haize taldeak, trikiti taldeak, soka taldeak, hasiberrien eta haurren abesbatzak eta Gazte Banda eta orkestra sinfonikoak jo zuten. Gainera, aurten Gazte Bandak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu eta atzo Donostiako *Olatu talka* ekimenean hartu zuten parte haur abesbatzekoek.



Soka taldearen saioa. | JULIO CALLEJA

GURE MUSIKA TALDEAK

THE ROCK SIFREDI BAND



The Rock Sifredi Band taldea zuzenean. | JON IRAUNDEGI

"Rock-and-rolla, gure ustez, jarrera da; gauzak pentsatu eta baloratzeko modua"

- 'La primera paz mundial' lehen diskoa kaleratu du talde donostiarrak
- Letra zuzenak, dibertigarriak eta doinu alaiak dira nagusi

MAIDER ARREGI | ARRASATE

The Rock Sifredi Band taldearen rock-and-rollak dantza egitera gonbidatzen gaitu. Dibertitzeko konposatzen dutela kontatu digu laukote donostiarrak.

Zer aurkituko dugu diskoan?

Mundu hobea edukitzea posible dela ikusteko, adibide bat; jendea zoriontsuago egiten duen disko bat. Positibotasuna aldarrikatzen dugu, oraindik arazo unibertsal asko dago: guduak edo *Sálvame Deluxe*, adibidez. Musika alaia eta freskoa, hala esaten digute diskoa entzun eta kontzertuetara datozenek; ez dakigu zergatik, baina neskei asko gustatzen zaie gure musika. Kar-kar.

***La primera paz mundial* jarri diozue izena diskoari; zergatik?**

Ondo dago izenburu bezala, gure abesti baten izena da eta asko gustatzen zitzaigun. Gudu epe asko izan da historian, baina mundu osoko bake eperik ez da izan oraindik. Musikak mundua hobetzen duela pentsatzen dugu; diskoa horren adibidea da.

Obama Bakearen Nobel saridunak huts egin duela diozue.

Ez dugu Obamagatik soilik esaten, oso serio hartzen dituzten horiek.

***Gato Negro* abestian Edgar Allan Poe omendu duzue.**

Musikaz gain, beste erreferentzia batzuk ere baditugu. Idazterakoan, musikaz gain, irakurtzen duzunak edota ikusten duzun pelikulak edo telebistako edozein edukik ere badute eragina. Poeren giro-tzeko abilezia bakarra da. Haren kontzeptu orokorra geneukan buruan. Baina egia da Obamaren gizonek Bin Laden hil zuten egunean guk diskoa jaso genuela.

Letra zuzenak erabiltzen dituzue.

Bai; letrek garrantzi handia daukate. Laukoteko hiruk konposatzen dugu eta zenbait diferentzia ager daitezke. Batzuetan poetikoagoak dira, bestetan ipuin laburrak. Beti saiatzen gara, hala ere, umoretsuak diren abestiak sartzen, dibertitzen saiatzen gara konposatzerakoan. Ez zaigu gustatzen beti negarrean dauden musikariak, edo euren buruak ipuinetan sumatzen den giro ilunean imajinatzen genuen katu beltz hori.

Ongi eramandako betaurreko beltzekin eta jarrera egokiarekin maitasuna lor daiteke?

Noski, maitasuna eta beste gauza asko; jarrera egokiarekin lor daitezke, nahiz eta askotan oso zaila dela pentsatu. Hemen ere positibotasuna daukagu, lehenengoan lortzen ez bada, aurrera, makurtu gabe.

Bluesarekin ere ausartu zarete.

Bluesarekin oso eroso sentitzen gara. Taldea osatu gabe geneukanean, elkartzen ginenean bluesa jotzen genuen. Oraindik kaxatan dauzkagu abesti propioak! Bluesa barruan daramagu.

Los Rodriguez, Calamaro, Tequila... zer dira zuendako?

Talde garrantzitsuak dira guretzako. Horien abestiak jotzen genituen; baita Loquillo, Burning eta Gabinete Caligarirenak. Suposatzen dugu hori derrigorrez nabarituko dela. Askotan konparatu gaituzte eta gu gustura! Gure musika entzun nahi duenak *www.myspace.com/therocksifrediband.com* helbidean dauka aukera.

ZERTZELADA



LA PRIEMRA PAZ MUNDIAL

Estiloa: Rock-and-rolla eta bluesa.
Egilea: The Rock Sifredi Band (Donostia, 2011).
Argitaletxea: Autoekoizpena.
Iraupena: 23 minutu.

Umorearen eta rockaren nahasketa

Rock & rolla egiteaz aparte, musika estilo hori bizitza estiloa ere badela frogatzen duen taldea da The Rock Sifredi Band. Estiloa zaharra da, ez dute ezer berrik egin, baina zertarako? Lehen abestitik diskoa amaitzeraino dantzan jartzen zaituen diskoa da *La Primera Paz Mundial*. Musika dantzagarria eta umorez beteriko letrak dira talde honen errezeta bakarra. Diskoan erraz antzeman daiteke Tequila, Los Rodriguez edo J. Teixi Band taldeek The Rock Sifredi Band-en eragin handia izan dutela eta baita ere, Rolling Stones edo The Doors taldeak. Rockaren iturri handietatik edan dute eta abestiak egiterakoan ez dute kalerik egin. Talde donostiarrarena egun aspergarrietan alaitzeko diskoa da.

ANDER MONEDERO

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Muntsaratzen etxea salgai. Bilogela, bikomun, egongela, sukaldea eskegitokiarekin, balkoia, garajea eta trastelekua. Laberria. Oso polita. 615-00 72 16.

Aramaio. Etxe adosatua salgai. 96 m2ko lorategiarekin. Lau logela eta hiru komun. Bi autorendako garajearekin. 635-70 18 81.

Arrasate. 57 m2ko etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua, berritua eta jantzia. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649-03 91 13.

Arrasate. Eguzki dorrean 78 m2ko etxebizitza salgai. Eraberritua eta oso eguzkitsua, dena kanpoaldera begira. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 m2ko garaje itxia aukeran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650-01 05 15.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Hiru terraza. Oso eguzkitsua eta dena kanpoaldera begira. Jantzita utziko genuke. 687-11 08 92.

Bergara. Martzial Agirre kalean (espoloia) 105m2ko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 m2ko garajea, bi autorendako, eta 11 m2ko ganbararekin. 608-15 45 25

BERGARA
Martokon etxea salgai
625 70 84 55

Bergara. Atiko duplexa, eraiki berria, salgai San Lorentzo, Madinan. 6. solairuan. 18 metro koadroko terraza egongelan eta 4 metrokoa sukaldean. Beheko sua egongelan. Sukaldea guztiz hornitua. Bi logela eta bi komun. Loft moduko 44 metroko duplexa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 71 48 30

Bergara. San Antonen etxebizitza salgai. 65 metro koadro. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trastelekua terrazarekin. Urbanizazio pribatuan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 45 58 51

Durango. Atiko zoragarri bat dugu salgai Durangoko alde zaharrean. Erabat berriztaturik dago, duela bi urte. Erabat jantzita. Gas instalazioa egin berri dugu. Oso argitsua da. Deitu: 659 425 890. aotxotorena@yahoo.es 659-42 58 90.

Etxarri-Aranatz. Pisua salgai. 84 m2, 3 logela eta berriztatua (berogailuak, leihoak...) salmentaren prezioa 108.000 euro. Hots egin 654-23 41 02 telefonora.

Itsasondo. Etxebizitza lursailarekin salgai. 92 m2ko etxebizitza eta 111m2ko lursaila. 3 logela, 2 komun, sukalde hornitua, egongela, tendedero, 2 balkoi, eta ganbara. Toki lasai eta argitsua. 41.000.000 pta. Deitu: 615-70 56 10 / 653-74 94 66 zenbakietara.

Oñati. Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647-24 80 02

Oñati. Etxebizitza salgai Bidebarrietan. Hiru logela, bi bainugela, ganbara (etxearekin bat eginda) eta garajea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 79 88 12

Peñiskola. Bungalow-a saldu edo errentan ematen da Peñismar II auzoan. Prezio onean. 600-89 47 75.

Tolosa. Altzariz guztiz hornitua. Erdigunean, parkegune haundi baten ondoan. Garajea eta trastelekua ditu. Prezio interesgarria. Interesatuek, deitu 667-49 25 57 telefono zenbakira.

102. ESORI

Durango. Baserria erosiko nuke Durangaldean, lursail apur batekin. Ez du inporta zein egoeran dagoen(erreformatu behar bada, etab). Prezioa 250.000 euro(-negoziagarri) Telefono zenbakia 618-93 62 14

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Nafarroa etorbidean etxebizitza errentan ematen da hiru ikaslerentzat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 93 78 24

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela. Jantzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629-79 97 30 / 671-14 99 63

Donostia. Apartamentua ematen da errentan ondarretan, uztailerako. Bi logela eta bi komun. Garajearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630-08 24 17

Elorrio. Toki onean, Elorrio erdialdean 100 m2-ko pisua alokagai. 3 gela, ezkaratza, saloia, 2 komun, igogailua. Sartzeko prest. Deitu: 605-72 12 73 (arratsaldez).

Eskoriatza. Baserria ematen da errentan. Berriztua. Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean. 693-80 40 47.

Peñiskola. Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Beheko solairuan, lorategiarekin eta txirristadun igerilekuarekin. Uztailerako. Deitu 948-41 00 79 / 616-95 04 00 telefono zenbakira.

Torrevieja (Alacant). Torrevieja bungalowa alokatzen da. Urbanizazio pribatuan, gune berdeak eta igerilekuak. 3 logela, egongela, sukaldea, solariuma,... Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615-77 96 22 (Itxaso)

Vieux Boucau (Landak). Apartamentua alokatzen dut udan landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza. Apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista, indukziozko sua, frigorifiko handia... Leku bikaina. Harremanetan jartzeko telefonoak: 94-673 27 69 /656-75 95 37joseba@erroteta.com

Oropesa del mar (Castello). Marina Dorren 4-6 pertsonentzako apartamentu berria alokagai. Udan eta urte osoan zehar. Aste bat, hamabostaldia edo hilabete baterako. Itsasora begira, hondartzatik 150 metrotara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza handia. Garajea. Igerileku handia eta umeentzako txintxaunak. Leku lasaia. Ez dira animaliak onartzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 214 924. Marijo

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Logela bakarreko apartamentua hartuko nuke errentan. Merke izan beharko luke. 634-40 64 65

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Deba Garaia Inmobiliaria
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri. Aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Martoko. 70 m². Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 m². Terrenoarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 m². Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 m². Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Burdiñate 53 m². 162.273 €.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761€.
- Aranerreka 80 m². 189.319€.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 51 m². Terrazarekin. 102.000€.
- Zubiaurre 81 m². Igogailuarekin. 183.909€.
- Zubieta 55 m². Berritua. 150.000€.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 m². Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.

Antzuola:
- Ondarren garajea salgai. 36 m².
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK**: 249.210 €tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi, hiru edo logela gehiagokoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-53 36 72 / 677-73 79 59

Debagoiena. Baserria hartuko nuke errentan prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669-17 09 51

Elorrio. Bikote euskalduna alokairuko etxe bila. Biok lanean. Deitu edo idatzi. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653-72 81 87

Elorrio. Pisu jantzi baten bila nabil, alokatzeko, Elorrion. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94-658 21 91

105. ETXEAK OSATU

Bergara edo inguruan, logela bat ahartu nahi nuke errentan. Kontratuarekin.697 62 59 57

Bergara. Pertsona bat behar da Bergarako Bolu auzoan etxebizitza osatzeko. Interneta dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 85 86 68

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Santakrutz 25-27an. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 630 46 36 71

Bergara. Garaje itxia salgai Aranerrekan. Tarteko solairurekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 629 79 97 30 edo 671 14 99 63

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrioko erdialdean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660-45 87 56

203. ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje itxia alokagai Elorrion, kotxe bat eta trasteak sartzeko tokiarekin. Nizeto Urkizu kalean dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660-45 87 56.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia 8:00etatik 14:00etara. Deitu 695 70 35 25 telefonora

BERGARA
Bi urteko esperientziadun neska behar dugu barra eta jangelarako.
943 76 59 19

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Esperientziadun emakumea adinekoak zaintzeko gertu; egunez zein gauez. 943-53 33 92

Arrasate edo Aretxabaleta. Neska euskalduna, tabernan lan egiteko prest. 637-85 88 27.

Arrasate edo Aretxabaletan. Emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. 685-21 24 89 / 662-57 53 46

Arrasate. Bertako emakume euskalduna, 52 urtekoa, lanerako prest. Nagusiak zaintzen aritua naiz. 943-79 60 89

Arrasate. Emakumea behar da umea zaintzeko eta etxekolanak egiteko. 695-70 35 25

Arrasate. Emakumea behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia 08:00etatik 14:00etara. 695-70 35 25.

Arrasate. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Neska gertu ile-apaintzaile laguntzaile jarduteko edo garbiketa lanetarako. Deitu 685-21 24 89 edo 662-57 53 46 zenbakira.

Arrasate. Garbiketa lanetan jardungo nuke, orduka. Maite. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696-88 93 73.

Arrasate. Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak egin, atariak garbitu edo edozein lanerako prest, orduka ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659-55 27 16.

Arrasate. Ingeleseko eskolak ematen ditut udan zehar. Maila guztiak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688-64 12 56

Arrasate. Arrasateko irakaslea eskola partikularrak udan emateko prest, 6-12 urte bitarteko umeak. Esperientzia handikoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-75 05 26

Arrasate. Esperientziadun neska errumaniarrak etxe zein atariko garbiketak egingo lituzke. Plantxa egiteko ere bai. Arduratsua naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634-80 49 91

Arrasate. Emakume euskalduna gertu zapatuetan, 09:00etatik 11:00etara; plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-54 17 27

Arrasate. Arrasateko neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-41 24 79.

Azpeitia. Helduak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiteko prest. Umeak zaintzeko ere prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695-74 88 35

Beasain. Beasainen emakume euskaldun bat behar da 2 urteko haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu 656-75 93 81 telefono zenbakira (arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara).

Bergara. Magisteritza ikasten ari den neska euskalduna eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615-76 29 25

Bergara. Neska Bergararra gertu astelehenetik ostiralera nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 943-53 28 60.

Bergara. Bergara. Neska gertu 08:00etatik 10:00etara etxeko lanak egiteko. 656-73 45 11

Bergara. Etxeko lanak egin edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665-75 41 32.

Bergara. Emakume eskarmentuduna gertu etxeak garbitu edo adinekoak zaintzeko. Deitu 650-17 74 87/ 943-76 48 26 telefono zenbakietara

Bergara edo Arrasate. Neska gaztea eta euskalduna naiz, eta aste barruan arratsaldez umeak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntza ikasten nabil. Umeekin esperientzia badaukat, eta autoa ere badaukat. Lanerako prest nago. 626-19 68 85

Debagoiena. 48 urteko emakumea gertu garbitasun lanetan edo edadetuak zaitzen jarduteko, orduka. Autoa daukat eta baserrietara ere joateko prest nengoke. 653-72 30 95.

Debagoiena. Esperientzia daukat ostalaritzan eta baita etxeko lanak egiten, umeak zaintzen eta eskola partikularrak ematen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615-72 72 86

Debagoiena. Edozelako garraio lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628-51 22 78.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara. Finkora arratsaldez edo gauez deitu, mesedez. Deitu 943-71 53 74 / 695-73 87 95 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Edozelako garraio lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628-51 22 78

Debagoiena. Eskarmentudun emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-78 85 27

Debagoiena. Gizonezkoa gertu edozelako lanetarako. 680-75 14 88

Debagoiena. Gizona gertu edozain lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654-24 13 27

Debagoiena. Neska arduratsua gertu ume zein nagusiak zaidu edo garbiketa lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 681-27 99 54

Debagoiena. Neska gertu garbiketa zein etxeko lana egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633-46 49 50

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Erreferentzia onak ditut. Berehala lanean hasteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638-93 11 48

Debagoiena. Neska gertu etxeak garbitzen edo sukalde laguntzaile lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630-20 12 03.

Debagoiena. Neska errumaniarra, arduratsua eta eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-87 44 47

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606-40 99 37

Debagoiena. Neska eskarmentuduna gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Ana Luisa de los Santos. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 673-78 08 99

Debagoiena. Neska gertu ume, edadetu zein gaixoak zaintzeko. Baita etxeak garbitzeko ere. Deitu 943-771099 edo 617-66 70 05 zenbakietara.

Debagoiena. Neska euskalduna prest umeak zaintzeko goiz eta arratsaldez. Esperientzia daukat umeak zaintzen eta gizarte lana ikasi dut. Garbiketa lanetarako prest. Kotxea ere badaukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688-64 19 25

Debagoiena. Neska gertu ume, edadetu zein gaixoak zaintzeko. Baita etxeak garbitzeko ere. Deitu 943-771099 edo 617-66 70 05 zenbakietara.

Debagoiena. Neska gertu asteburuetan edo gauetan nagusiak zaintzeko. Baita elkarte eta abarretan garbiketak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-09 46 26

Debagoiena. Neska gertu etxean bertan bizi izaten adineko ak zaintzeko edo bestela, orduka, garbiketa lanak egiteko. Baita atariak garbitzen edo egoitzatan jarduteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 682-31 97 37.

Debagoiena. Psikologia ikasten ari den neska gaztea ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-36 56 62

Debagoiena. Sasi garbiketak egingo nituzke, debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-73 79 02

Debagoiena. Tabernetan lan egingo nuke sukaldari edo laguntzaile bezala. Baita orduka ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619-92 40 86-

Debagoiena. Ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan jardungo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 663-65 78 43

Debagoiena. Umeak zaintzeko prest. 20 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680-17 33 61

Durango. Portalen edo etxeen garbiketarako, umeak edo nagusiak zaintzeko lan bila. Aste bitartean eta aste buruetan. Externa edo interna. Esperientziarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628-00 22 17

Durango. Pertsona nagusia edota umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako lan bila. Esperientzia eta erreferentziekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697-12 64 38.

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interna edo externa. Orduka edo gauez. Lanaldi erdia edo osoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603-95 41 94

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interna edo externa. Orduka edo gauez. Lanaldi erdia edo osoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662-53 27 39

Durango. Pertsona nagusiak zain gaixo daudenak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-74 57 23

Elorrio. Irakasle-ikasketak egiten diharduen ikasle euskalduna ekainean eta uztailean lan egiteko prest: umeak zaintzen, klase partikularrak ematen edo dendari moduan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685-71 46 27

Zarautz. Gizon euskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-73 08 08

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. 11 urteko bati euskara eskola partikularrak emateko norbait behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 692 51 79 21 Alicia

Bergara. Bergaran 4. DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Orain hasi eta uztailean zehar ere bai. 21:00etatik aurrera deitu mesedez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-76 03 75

Elgeta. Batxilergoko bigarren mailako matematika eta ingeleseko klaseak emango dizkidan norbait behar dut. Deitu 617 24 82 28 telefonora.

502. EMAN

Aretxabaleta. Neska gazte euskalduna udako hilabeteetan (ekaina eta uztaila) haurrak zaintzeko gertu. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 696 44 43 99

Arrasate. Arrasateko irakaslea eskola partikularrak udan emateko prest, 6-12 urte bitarteko umeak. Esperientzia handikoa. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 635 75 05 26

Arrasate. Ingeleseko eskolak ematen ditut udan zehar. Maila guztiak. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 688 64 12 56

Arrasaten eskola partikularrak. Goi-mailako telekomunikazioetako ingenieritzako ikaslea, Arrasaten DBH-ko eta batxilergoko eskola partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 02 52 81

Bergara. Ingeniaria, Bergaran ekainetik aurrera arratsaldez klase partikularrak emateko prest, baita hurrengo ikasturtean zehar ere. LH-tik hasita batxilergorarte. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685-70 17 09

Bergara. Eskola partikularrak ematen dira.

Bergara. Eskola partikularrak emateko gertu nago. DBH eta Batxilergoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628-51 22 78.

Debagoiena. Itzulpengintzako ikaslea ingeleseko nahiz beste ikasgaietarako errefortzu klaseak emateko prest. Ekainean, uztailean zein abuztuan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626-96 06 38

Debagoiena. Ingelesa. Eskola partikularrak ematen ditut. Ordutegi malgua. Esperientzia handia daukat. Taldeka nahiz banaka. 15 euroan ordua. Banaka. Eskoriatza, Arrasate edo inguruak. Alemaniera ere eskeintzen da. Deitu konpromezurik gabe. 635-12 87 82 / 943-25 05 79

Donostia. Klase partikularrak Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan: 628-04 15 26.

Gitarra eskola partikularrak Durangon. Gitarra eskola partikularrak durangon. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazza, funka eta abar. Eskalak, akordeak, erritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650-17 22 85

6. MOTORRA

601. SALDU

Nissan Navara 4x4 ibilgailua salgai. Egoera onean. 2005ekoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 93 46 95

Renault megane classic salgai. Renault megane classic salgai. 700-800 euro. 5 ate. Oso ondo zainduta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669-83 87 68

Autokarabana salgai. Hymer perfilada autokarabana salgai. 4 plaza. Motorea 2800jtd. Oso ondo zaindua. Extra guztiak ditu: tvc, antena parabolikoa, bizikletak eramatekoa, moskiterak, dutxa,... Beti garajean egon da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637-80 88 01 (Pilar).

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. 656-77 29 94

Basurdeak salgai. Basurdeak saltzen dira. 678-72 75 72

Txakurkumeak. Border Collie arrazakoak. 647-41 93 63

703. EMAN

Txakurra ematen da opari. Tamaina erdikoa. Laguntako eskaintzeko egokia. Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 72 82 87

Txakurra ematen da opari. Tamaina erdikoa. Laguntako eskaintzeko egokia. Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647-72 82 87

704. BESTELAKOAK

Basurdeak erosten dira. Basurde arrak erosten dira. 90 kilo baino gehigokoak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678-72 75 72

8. DENETARIK

801. SALDU

Akazia taketak saltzen dira. Akazia taketak saltzen dira neurri guztietan. Eskuz eginda. Landa, mendi edo mahastientzako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619-08 82 33.

Arrasateko gimnasio baterako biurteko bonoa salgai. 398 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653-72 22 54.

Bizikleta eliptikoa salgai. Berri berria, oso gutxi erabilia dagoen bizikleta eliptikoa salgai. Erabiltzen ez dugulako saltzen dugu. Modeloa: Domyos ve 680 (decathlon). 250 eurotan saltzen dugu. Informazio gehiagorako deitu: 686-89 77 32

Bizikletak garraiatzeko remolke profesionala salgai. 8 bizikleta eramateko aukera, era seguru eta erosoan. Remolke homologatua eta lokarri sistema profesionala. Errepideko zein mendi bizikletak garraiatzeko aukera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655-70 67 13 ilezaun@gmail.com.

Egongelako altzariak salgai. Egongelako altzariak salgai: hiru eta bi pertsonarendako sofa bana eta telebista jartzeko altzaria. Logela, armaitu, bi gau -mahai eta 1,35eko oheak osatua. Berriak dira. Prezio interesgarria. Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637-00 10 80

Ezindu fisikoentzako Scooter Invacare Solar/leo aulkia, motor itxurakoa, salgai. Urtebete du. Oso egoera onean dago. 1,22 x 0,59 neurtzen du. 850 euroan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630-38 91 22

Jangelako jazarlekuak salgai. Ikeako 4 gilbert jazarleku dira (erref.: 201.127.18). Beltz kolorekoak dira eta muntatuta daude. Ia erabili gabe daude. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-74 26 44.

Jangelako mahaia salgai. Ikeako bjursta mahaia da (erref.: 301.162.64), 4-8 pertsonek jan dezakete bertan. Beltz kolorekoa da eta muntatuta dago. Ia erabili gabe dago. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-74 26 44.

Mendi bizikleta salgai. Bigarren eskuko mendi bizikleta, egoera onean, neskendako edo tamaina ertainekoa. Prezioa negoziatzeko moduan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-72 03 65.

Mendiko bizikleta. Orbea lanza mendi bizikleta paregabea salgai. Foc orkillarekin, diskodun frenoak, kalak... Oso bizikleta ona da eta ezin berriago dago. Merezi du ikusteak. Beste behar ekonomiko batzuk ditudalako eta 3 aldiz erabili dudalako daukat salgai. Deitu eta ikusi konpromisorik gabe. Aukera ezin hobea. Argazkiak bidaltzeko aukera ere badago. Mila esker. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657-55 46 46

Negutegirako ate bila. 8,5 metro zabaleran duen negutegi baterako aten bila nabil, alboak estaltzeko. Ordaintzeko prest nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-73 84 75.

Scooterrarentzat parabrisas pantalla. Scooter motorrarentzat haizearentzako pantalla, bere torloju eta guzti. 50 euro. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686-897732

Umeen karroa salgai. Umeen karroa salgai, masicosia, kapazoa eta aulkia. Bebecar markakoa, ia berria, ondo zainduta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608-32 19 01 (Vanesa)

802. EROSI

Aretxabaleta. Ortua egiteko lursail txikia hartuko genuke aretxabaletan edo gertu. Errentan, lagata edo erosita. 685-72 04 57.

Baserri bila bergara, antzuola edo elgetan. Baserria erosi nahi dugu bergara, antzuola edo elgetan. Berdin dio egoerak, jausita badago ere. 665702192 telefonora deitu.

Baserri bila Durangaldean, erosteko. Baserria erosiko nuke Durangaldean, lursail apur batekin. Ez du inporta zein egoeran dagoen (erreformatu behar bada, etab). Prezioa 250.000 € (negoziagarri). 618 936 214.

Bergara. Lursaila erosiko nuke bergara edo Oñatin. Errentan hartzeko ere aukera, baina nahiago dut erostea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669-17 09 51

805. TRUKATU

Moduloa Bañaresen truke an emango nuke. Moduloa. Banaresen kokatua, trukatuko nuke autokarabana bategatik. Denetarik dauka; etxe txiki bat da. Umeentzako toki aproposa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657-79 06 86

806. GALDU

Bergara. Ume betaurrekoak galdu dira San Martin ikastetxe inguruan. Arrosa kolorekoak dira. Deitu 653 74 36 32 telefono zenbakira.

Eguzkitako betaurrekoak galdu. Asteburuan eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Etxarri Aranatzen. Opatu dituenak beleixe irratian utz ditzala (Etxarri).

Txakurraren korrea koloreduna ahaztu dut arrasaten. Txakurraren korrea koloreduna ahaztu dut arrasateko monterron jauregi parean dauden bankuetan. Aurkitu duenak dei dezala mesedez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609-55 62 10

Walkie-talkiea. galdu nuen Urkulun parapentean jaisterakoan. Yaesu VX110 markakoa. Aurkitu baduzu deitu. 659 72 06 64 telefonora.

807. AURKITU

Aretxabaletan giltzak aurkitu. Aretxabaletako iralabarri plazako garajeen sarrera alboko edukiontzien inguruan giltzak aurkitu dituzte. Udaletxean galdetu. 943-79 86 21

Txirrindulari betaurreko graduatuak aurkitu Irañetan. Maiatzaren 15ean, Irañeta aldean, txirrindulari betaurreko graduatuak zituen estutxea opatu zen. Faltan dituenak hots egin dezala 687-03 17 93 telefonora.

9. HARREMANAK

902. HARREMANAK

Emakume lagun laztantxoaren bila. Kaixo! hitzegitea (euskeraz edota erderaz), musika, zine-antzerkia, ateraldi kulturalak, bizikleta, masajea, natura etabar gustoko dituen donostiako gizon atsegina antzeko emakume laztantxoa ezagutu nahiko luke. Nire euskerazko maila ez da oso altua, gaztelaniaz hobeto moldatzen naiz. Hobe donosti ingurukoa izanda, baina irekita nago. Ezkongabea naiz. 616120310

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil, 43 urte ditut, altua eta morenoa naiz. Amodiozko erlazio sendo baten bila nabil. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara 609481124.

Donostia Alde Zaharreko Joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. aldezaharrekojoaldunak@gmail.com

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Iraeta. Etxabe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.

Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.

Zarautz. Langako plaza (Salbiden). 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.

Zarautz. Azkenportu. 57 m2tako 3 logelako etxea. Berrituta dago. Oso prezio onean. 46.000.000 Pezeta.

Zarautz. 4. pisua igogailurik gabe. 2 logela. Berritu beharra dago. 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegren. 3 logela eta 2 bainugela. Etxe handia, terrazarekin. Oso prezio onean. 47.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

INMOKOSTA
INMOBILIARIA
S A L D U

ARROA BEHEA. 3 gela, egongela, sukaldea, bainugela, balkoi handia. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Garaje itxia. **210.350 euro (35 milioi pezeta)**

GETARIA. SAHATSAGA. DUPLEX ZORAGARRIA. 3 GELA, jan-egongela handia, 2 bainugela, sukaldea, balkoia eta solariuma. Igerileku gune eta guzti.

ORIO. ERAIKUNTZA BERRIA. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, bainugela, komuna, dena kanpora begira eta eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.

ORIO. Familia bakarreko etxe zoragarria. 3 solairu. 130m2 eta atikoa. Lorategia eta terrazak. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.

ZARAUTZ. ZIGORDIA kalea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. **276.470 euro (46 milioi pezeta)**.

ZARAUTZ. VISTA ALEGRE. 3 gela, sukaldea, bainugela, saloia. **211.490 euro (48.5 milioi pezeta)**.

ZARAUTZ. IXPILLA. 2 gela, saloi-jantokia, sukalde hornitua, bainugela. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.

ZARAUTZ. ARITZBATALDE. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, 2 bainugela, balkoia. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea. **414.700 euro (69 milioi pezeta)**

ZARAUTZ. ERDIALDEAN. 85m2. 2 logela, egongela ederra, sukalde hornitua, despentsa, bainua. Igogailua.

ZARAUTZ. MENDILAUTA. 3 logela, egongela bista ederrekin, sukalde hornitua, 2 bainu, balkoia, garajea. Aurretiko bistak.

ZARAUTZ. Etxe bat alokatu nahi dut udan.

943-83 55 18
www.inmokosta.com
Orape, 20 - behea • 20800 Zarautz

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

SALGAI

LEZO Baserri etxea. Solairu bakarra. 4 logela. Terrenoa. 36.500.000 pta.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Sartzeko. 39.000.000 pta.
AMARA Altua. 65 m2. 3 logela, sukaldea, bainugela. Berritzeko. 34.460.000 pta.
AMARA Madril hirib. Terraza. 2 logela, egongela, sukalde-jangela, bainugela. 49.000.000 pta.
AMARA Dena kalera. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. 63.000.000 pta.
AMARA 85 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Dena kanpora. 51.700.000 pta.
ANTIGUA Benta Berri. 90 m2. Altua. Terraza. Garajea, trastelekua. Polita.
ZENTROA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Sartzeko. Balkoia. 39.500.000 pta.
MARTUTENE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkinga. 28.990.000 pta..
HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kalera. Berritua. 33.6000.000 pta.
ANORGA TXIKI. Oso polita. 3 logela, sukaldea, bainugela. Terraza handia. Trastelekua eta garajea, nahi izanez gero. 52.500.000 pta.
ERRENTERIA Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 25.900.000 pta.
PASAI DONIBANE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 23.800.000 pta.
USURBIL 10 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Tximinia. Terrenoa. 43.500.000 pta.


IKASLEENTZAKO ALOKAIRUAK

AMARA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 700 euro.
AMARA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 1.100 euro.
HERRERA Etxe berria. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 800 euro.

ALOKAIRUAN

ERDIALDEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 700 euro.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 1.000 euro.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 800 euro.
BIDEBIETA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 725 euro.
GROS Iparragirre. 2 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 890 euro.
USURBIL 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Polita. 690 euro.

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA



Euskararen debekua izeneko artikulua. | GOIENA

Euskal Wikipedian 100.000 artikulutik gora dago jadanik

Abian da, aldi berean, Wikipedia Gizateriaren Ondare egiteko kanpaina.

JON BEREZIBAR | ARRASATE

100.000 artikuluena marka da eta dagoeneko igaro du euskarazkoak, modu nahiko esanguratsuan gainera, *Euskararen debekua* artikuluarekin. Euskaraz edukiak igo ohi dituztenen artean adostu zuten mugarria ipiniko zuen artikulua horixe izango zela eta aurreko domeka goizaldean kargatu zuten. Gaur egun euskaraz 100.580 artikulu daude eta 186.023 orri guztira (eztabaida foroak eta antzerakoak zenbatuta). Zifra potoloagoak ere eman daitezke, esateko, sortu zenetik 2.141.642 aldaketa egin direla edota 26.281 erabiltzaile daudela erregistratuta gaur egun.

Gizateriaren ondare "digital"

Wikipedian 32tik gora hizkuntzatan idazten da eta, hain zuzen, UNESCOk Gizateriaren Ondare digital izenda dezan kanpaina hasi dute Wikipediaren fundatzaileek. Erabiltzaileen ekarpen boluntarioekin osatzen den on-line entziklopediaren hautagaitza babesteko sinadurak batzen dihardute webgune baten bitartez. Aurten, hain justu, ekimenak entziklopediaren hamargarren urteurrenarekin bat egin dezala gura dute -eta sustatzaileek. Jakintza aske eta partekatuaren ikurretako bat izatea gura dute Wikipedia, "zibilizazioaren historiak jakintzaren elkartrukerako leku berdingabea" izan dela azalduz. Momentuz UNESCOk ez dauka ekimen digitaletarako kategoria berezirik eta hori aldarrikatzeko ere bultzatu nahi dute kanpaina hori.

Inprimatuak baino liburu digital gehiago saltzen dira Amazonen

Konpainiak berak emaniko datuen arabera Kindle irakurgailurako 100 liburu inprimatu saltzerako 105 elektroniko saltzen dituzte. Amazonetik bertatik diote lehenago edo geroago gertatuko zela jakin arren "harrituta" daudela "azkar" etorri delako aldaketa. 2007an hasi ziren Kindle-ak saltzen.

Spotifyren zerbitzua eskaintzekotan da Facebook

Streaming bidezko musikaren liderrarekin elkartu eta zerbitzua sare sozialaren bitartez ematen hastekoak dira. Bi zerbitzuen arteko integrazioa eskaintzekotan dira baina oraindik ez dute iragarri noiztik aurrera egongo den erabilgarri, Google eta Applekin duten lehian posturik ez galtzeko saiakera hau.

Estatutik kanpoko kontaktuak onartzen hasi da Tuenti

Espainiar jatorriko sare sozial Estatutik kanpoko altak eta kontaktuak onartzen hasi da. Gonbidapen bidez ematen da alta zerbitzuan eta Espainiatik kanpo kontua zabaltzeko dagoeneko kontu bat duenak bidali beharko dio erabiltzaile berriari. Tuentiren erabiltzaileen %64, 24 urtetik beherakoa da eta 11 milioi erabiltzaile ditu.

Ordainketak mugikor bidez egiteko zerbitzua aurkeztu du Googlek


Google Wallet dauka izena eta NFC teknologia darabil. Mastercarden bermea jaso du jada baina momentuz New Yorken bakarrik erabil daiteke, 120.000 negoziotan. Mugikorra, internet eta GPSa erabiltzen ditu zerbitzuak irakurgailu berezien bitartez. Eskaintza mugikorrean jasotzen da eta ondoren onartu.



Google Wallet. | ENGADGET

HTML 5 estandarra ofizial egiteko prozesuak aurrera

Hizkuntza hori garatzen dabilen W3C partzuergoak dagoeneko berrikuspen fasea ireki duela iragarri du eta horrekin interneteko exigentzia tekniko guztiak betetzen dituztela frogatzea da asmoa eta beharrezko aldaketak proposatzea. Datorren urtarrilaren 31ra arte egongo da zabalik prozesu hau eta 2014rako onartua izatea espero da.



GOIENA

Blog berria: Turutarena

Goiena.net-eko komunitatean blog berria aurkituko duzue aurreko astetik. Turutarena dauka izena eta Erramun Turutarenaren bloga dela dio goiburuan. " Ur gainean dardarka, nenufare edota igelbelar, interneteko belardi umeletan. Emari, lehorte eta itsasikaren menpe. Han eta hemen, betiko bedi diraueino. Ongi etorri", hori, bere agurra.

Eustatek EAEko erabiltzaileen datuak eman ditu

J.B. | ARRASATE

Eustatek 15 urtetik gorako Internet erabiltzaileen datuak kaleratu berri ditu eta 2011ko lehen hiruhilekoan 1.071.300 dira erabiltzaileak, adin horretako Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %56,8. Honekin, aurreko urteko aldi beretik, %4,2 hazi da kopurua.

Gehien Bizkaian igo da zenbatekoa baina oraindik ere Gipuzkoak jarraitzen du konparazioan erabiltzaile kopuru handiagoarekin. Datuetan, nabarmentzeko da, baita ere, 55 eta 64 urte artekoen artean egondako hazkundea; %6,1 egin du gora. Datuen artean bitxia da konektatuta ematen den denbora gutxitu egin dela. Bataz besteko iraupena 46 minutukoa izan da lehen

Wifiari buruzko ardura agertu dute Europar Batzordetik

J.B. | ARRASATE

Jendearen osasunarengan izan dezakeen eraginarengatik ikastetxeetan wi-fi eta telefono mugikorrak debekatzearen alde egin du Europako Kontseiluak txosten baten bitartez. Haren arabera, "eremu elektromagnetikoek fauna, flora eta osasunarengan eragin kaltegarria dutela egiaztatzen duten nahikoa froga badira, arrisku haien aurka babesteko". Debeku eskaeraz gain, sentsibilizazio kanpaina abiatzeko deia ere egin dute batzordetik, teknologia horiek arriskutsutzat joaz. Txostenean bertan, gainera, "pertsona elektro-sentikorrei" buruz hitz egiten da eta haiei arreta emateko eskatu; antena, telefono eta haririk gabeko komunikazio tresnei buruzko ikerketa gehiago eskatu dituzte, azke-

Gero eta ardura handiagoa, datuen pribatutasunarekin

J.B. | ARRASATE

Espainiako Datuen Babeserako Agentzian %56 hazi dira erreklamazioak. 2010eko datuak dira emandako azkenak eta aldizkari ofizialetako, hedabide digitaletako, epaitegietako sententzietako edota bilatzaileetako informazioa ezabatzeko erreklamazioak dira gehien bat. Honekin batera, gero eta gehiago dira kexak, esaten dutenak Google, Facebook edota Myspace moduko lekuek informazio pertsonala ematen dietela iragarleei. Aipatutako agentziak 4.302 ikerketa abiatu zituen iaz eta gehienak telekomunikazioen esparruari dagozkio. Aurreko urtearekin konparatuta, %4 egin dute gora ikerketek. Sare sozialen gaineko zaintza eskatzeko erreklamazioek ere gora egin dute epe berean.

TELE-BEGI



AINHOA VITORIA

OPRAH 25 urtez

Forbes aldizkariaren arabera, XX.mendeko emakume afroamerikar aberatsena da Oprah Winfrey. 25 urte bete ditu Estatu Batuetako The Oprah Winfrey Show telebista saioa aurkezten. 25 urte estatubatuarren arratsaldeak betetzen. Oscar saria irabazteko izendatua izan da eta Emmy sariak ere baditu.

The Oprah Winfrey Show historiako lehen talk show -a izan da eta historian gehien ikusi dena, gainera. Baina Oprah nekatu egin da eta beste proiektu batzuetan pentsatzen hasi da. Agurrak ere ospatzeko modukoak direla erakutsi du eta, horregatik, Estatu Batuetako hainbat ezagun gonbidatu zituen bere festa erraldoira. Ez zen inor falta: Madonna, Michael Jordan, Stevie Wonder, eta Aretha Franklin, besteak beste. Gonbidatuen zerrenda izan daiteke bere influentzia nolakoa den ikusteko modurik aproposena.

Festa ospatu ondoren, maiatzaren 25ean amaitu zen The Oprah Winfrey Show. Askok faltan botako dute hemendik aurrera Oprah baina berak argi esan zuen: "Ez dut agur esango, gero arte baizik".

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 30



Zegama-Aizkorri maratoia

20:45

Domekan egindako Zegama-Aizkorri mendi maratoiko irudiak erakutsiko ditugu eta gertatu zenaren berri ere emango dugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 Klik
15:45 28.Klip
16:15 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:15 Nere herrie
18:30 Leku txiki bat
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 31



UEMAren gaineko elkarrizketa

19:45

Jon Bollar UEMAko lehendakaria elkarrizketatuko dute *Magazinea*-n Eneko Azkaratek eta Arritxu Barrusok.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:20 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Hamaika.bit
16:30 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Solasaldiak
18:15 Bizitegia
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Bizitegia
21:15 Magazinea
22:15 Harmailatik
23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 1



'27 ordu' filma ikusgai

20:45

Tertulia saioan zinema solasaldia egin eta gero, Montxo Armendariz zinemagile nafarraren *27 ordu* filma eskainiko dugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:45 Hamaika.bit
16:15 28.Klip
16:45 Berriak
17:15 Bizitegia
18:15 Gipuzkoa kultura
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Filma: 27 ordu
23:05 Magazinea
23:45 Magazinea

EGUENA, 2



Mundumira hizpide

22:15

Gipuzkoa kultura saioan Mundumira kulturen jaiak Elgetan eman duena ikusi ahal izango dugu, besteak beste.

13:15 Marrazki bizidunak
13:15 Solasaldiak
13:45 Kantari
14:15 Berriak
14:45 Onein
15:15 Hamaika.bit
16:15 Filma: 27 ordu
18:45 Onein
19:15 Berriak
19:45 Kantari
20:45 Tertulia
21:15 Gipuzkoa kultura
22:15 Bizitegia
22:45 Magazinea

EGUBAKOITZA, 3



Mireia Epelde txirrindulariarekin

22:45

Erlo telebistak ekoiztutako *Bi tartean* saioan Mireia Epelde txirrindularia elkarrizketatuko dute aste honetan.

13:45 Marrazki bizidunak
14:15 Kantari
14:45 Onein
15:15 Berriak
15:5 Tertulia
16:15 Leku txiki bat
16:45 Onein
17:15 Berriak
17:45 Berbetan
18:15 Ur eta lur
18:45 Leku txiki bat
19:15 Berriak
19:45 Kantari
20:45 Magazinea
21:15 Gipuzkoa kultura
22:15 Magazinea
22:45 Bi tartean
23:15 Filma: 27 ordu

ARRASATE IRRATIA

Badator Kantari eta aurtengo nobedadeen gainean jardungo gara

Kantari karaoke ikuskizunean izena emateko epea gaur zabaldu da eta saioari buruzko xehetasunak jasoko ditugu Amaia Txintxurreta aurkezlearen eskutik. Besteak beste, hitz egingo dugu dantza bideoei buruz, zein abesti berri izango diren, ikuskizunekin noiz hasiko diren...

Ino Galparsoro orain arte Arrasateko alkate izan denari elkarrizketa

Martitzeneko irratsaioan, goizeko 10:30etan, Ino Galparsoro gonbidatuko dugu Arrasate Irratiko uhinetara. Agintaldiari buruz jardungo gara berarekin eta baita aurrera begirako asmoen gainean ere. Entzuleok parte hartzeko aukera izango duzue 943 25 05 05 telefonora deituta.

Azken geltokirako, gure entzuleen tarterako, gonbidapena

Astelehenetik egubakoitzera bitartean egiten dugun *Igo autobusera!* irratsaioko azkeneko geltokia entzuleendako tartea da. Bada, gonbidapena luzatu nahi dizuegu bertan parte hartzeko. Bidali zuen zorion agurrak edota oharrak *irratia@goiena.com* helbidera edo deitu 943 25 05 05 zenbakira zuen mezua uzteko.

TELE-ALBISTEAK

Eman izena Kantari karaoke ikuskizunean, gaurtik hasita

Gaurtik egubakoitzera bitartean eman izena Kantari karaokean; animatu eta parte hartu

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

4, 3, 2, 1... aurrera! Badator Kantari beste behin ere Debagoieneko ume eta gaztetxo guztiak kantuan eta dantzan jartzeko asmoz eta gogoz.

Ilusioz beteta gatoz hirugarren aldiz karaoke ikuskizunarekin. Gogoratu lehenengo edizioan bailarako 600 gaztetxotik gora ibili zirela abeslari eta dantzari, eta bigarrenean 800 artista baino gehiago igo zirela Debagoieneko aretoetako eszenatokietara. Aurten zuk izan nahi baduzu protagonista, ez galdu aukera eta hartu parte Kantari karaoke ikuskizunean; zeu izango zara artista.

Eman izena

Gaur, astelehena, hasten da Kantarin izena emateko epea eta egubakoitzean, ekainaren 3an, amaituko da. Beraz, astebeteko epea daukazu lagunak bilatu eta hiru eta bost pertsona bitarteko taldea osatu ondoren, Kantarin izena emateko.

Dagoeneko zuen ikastetxeetan egongo dira karaokean izena emateko bete behar diren eskuorriak, beraz, eskatu zuen irakasleei fitxa horiek eta bete zuen datuekin.

Beste bi bide ere badituzue izena emateko: Goienako egoitzaren batetara etorrita edo sarean www.zugaz.com helbidean.



Maite Albes dantza gidaria eta Amaia Txintxurreta aurkezlea. | XABI URTZELAI

Dantza bideoak

Aurten gainera, koreografien bideo bereziak egingo ditugu, Maite Albes dantzari ezagunak gidatuta. Horrela, gaztetxoek dantzak etxetik ikasi ahal izango dituzue, Internet bidez, eta koreografietan zuen aportazioak ere ongi hartuak izango dira. Hau da, kantuetan pausu berriak sartu nahi badituzue, aukera izango duzue. Beste taldeen dantzak ikusteko eta ikasteko aukera ere egongo da koreografien bideo dibertigarri horien bitartez.

Ondo pasatzeko asmoz

Ondo pasatzea da gure asmoa eta horretarako bidelagun izango ditugu hainbat estiloetako euskal kantuak; betiko kantu zaharrenetatik hasita, modernoetaraino.

Hiru eta bost pertsona bitarteko taldeak osatu beharko dituzue

Koreografia bideo dibertigarriak egingo ditugu dantzak ikasteko

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Iraitz Etxagibel Ruidiaz
Ekainaren 3an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik Stephani, Sportacus lagunarentzako.



OÑATI
Lide Aramendi Diaz
Ekainaren 2an, urtebete. Zorionak, *pitu*! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze egunian eta merienda goxo-goxua prestatu. Txokomarrubizko patxo asko etxeko danon eta, batez be, aittatxo eta amatxoren partetik.



ESKORIATZA
Enara Urrutia Lasagabaster
Ekainaren 2an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat amatxo eta aitatxoren partetik.



BERGARA
Naroa Ugarte Leturia
Ekainaren 2an, 6 urte. Naro, printzesa, zorionak zure seigarren urtebetetzien. Gure argitxua zara. Mila patxo. Garazi, Libe, aitatxo eta amatxo.



OÑATI
Lide Arregi Markuleta
Ekainaren 2an, 5 urte. Zorionak, Lide! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian etxekuon partetik.



ARRASATE
Leire Agirre Leibar
Ekainaren 2an, 10 urte. Zorionak, Leiretxo! Ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat etxekoen partetik: aitatxo, amatxo eta Maddalen. Gertatu merixendie!



ESKORIATZA
Nahia Mendez
Ekainaren 1ean, 8 urte. Zorionak, Nahia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, aitatxo eta amatxoren partetik. Maite zaitugu!



OÑATI
Luken Beltran de Guevara De Miguel
Ekainaren 1ean, 2 urtetxo! Aupa, txapeldun! Etxekoen partetik. Muxu eta "*abrazito*" handi bat.



OÑATI
Luis eta Ander Dacosta
Ekainaren 1ean, Luisek 38 urte eta Anderrek, 6. Zorionak, bikote, Aida eta amatxoren partetik. Oso ondo pasatu zuen eguna, tarta ederra jango dugu-eta.



ARETXABALETA
Naiara Gutierrez Olave
Maiatzaren 31n, urtebete. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze egunean. Muxu handi bat familikoen eta bereziki Julenen partetik.



ARETXABALETA
Josu Unamuno
Maiatzaren 31n, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat, aitatxo. Unai, Udane eta Tereren partetik.



ESKORIATZA
Maider Hernandez Baños
Maiatzaren 30ean, 8 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean, zure familiaren partetik. Ea zenbat opari daukazun. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA
Aimar Basabe Arkauz
Maiatzaren 30ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Zu bai konkistaroria! Urte askotarako etxekuon partetik. Aupa Erreala eta aupa UDA!




BERGARA
Suhar Agirrebeña Sanchez
Maiatzaren 30ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Konturatu orduko bost urtetxo! Patxo handi-handi bat eta mila zorion Bladi, Jule, aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partetik.



BERGARA
Aratz Sotil Barrio
Maiatzaren 30ean, 2 urte. Zorionak, Aratz! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu handi bat familixa guztian partetik!



OÑATI
Malen Arabaolaza Sanchez
Maiatzaren 30ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat zure familixian partetik, sorgintxo!



BERGARA
Malen Elkoro eta Nerea Arrese
Maiatzaren 30ean, 3 eta 31 urte; Malen eta Nerea ama-alaben urtebetetzea da. Ondo-ondo pasatu familia guztiaren partetik, eta han eongo ga danok astelehenian meriendarako. Ole!



BERGARA
Aratz Domenech Iñarra
Maiatzaren 30ean, 4 urte. Zorionak, pitxi. Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu potolo eta belarritik tirakada handi bat aitatxo, amatxo, Gorka eta etxeko denon partetik. Txokolatea eta zuk egindako pastela jango dugu. Muxuak!



OÑATI
Jon Altube
Maiatzaren 29an, 31 urte. 31 tirakada fuerte belarrietatik eta muxu pottolo ugari Lexuri eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu, aitatxo!



OÑATI
Andrea Zamakola
Maiatzaren 29an, 4 urte. Zorionak, gure printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Irati Martinez Zabala
Maiatzaren 29an, 7 urte. Zorionak. Benetan neska handia egiten ari zarela. Ondo pasatu zure eguna eta baita beste danak ere. Muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
Aner Aranzadi Umerez
Maiatzaren 29an, 3 urte. Zorionak, Aner! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta musu handi bat Aretxabaletatik.



ESKORIATZA
Elena Arizpeleta
Maiatzaren 28an, 43 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu eta ederto bukatu zure eguna. Asko maite zaituzten zure senarraren eta zure semeen partetik. Muxu handi bat.



BERGARA
Aimar Salaberria Cossio
Maiatzaren 28an, 5 urte. Zorionak, Aimar! Zure egunean fenomeno pasatu eta muxu handi-handi bat etxekuen, eta bereziki, zure Maiaren partetik.



ARRASATE
Mirari Plazaola
Maiatzaren 27an, 7 urte. Zorionak zuri, zorionak beti... Patxo handi bat Bergara aldetik.



ESKORIATZA
Ainhize eta Malen
Maiatzaren 26an, 2 urte. Zorionak, *potxolas*! Ondo-ondo pasatu eguna. Opari asko-asko jaso eta primeran pasatu! Etxekoen, familia, lagun eta denon partetik! Zorionak, bikote! *Wapas*!



ANTZUOLA
Ekain Irizar Fernandez
Maiatzaren 25ean, urtebete. Zorionak, mutikote! Muxu potolo batzuk etxeko danen partetik.



ANTZUOLA
Aiantze Irizar Iztueta
Maiatzaren 25ean, 3 urte. Zorionak, *bitxita*! Muxu potolo batzuk etxeko danen partetik.



OÑATI
Araitz Urcelay Zabala
Maiatzaren 25ean, 4 urte. Zorionak, *pitufa*! 4 urte bete dituzu jada. Elegante pasatuko dugu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat. Oinatz eta Iraide.



BERGARA
Maialen Jauregi Elorza
Maiatzaren 25ean, urtebete. Zorionak, sorgintxo, etxekoen, Aneren eta laguntxoen partetik. Eutsi irribarreari. Pa, pa eta pa.



ARETXABALETA
Endika Uribarren
Maiatzaren 25ean, 16 urte. Zorionak, Endi! Jada 16 urte bete dozu, e! Gure etxeko txikitxuena handiketan dabil! Muxu handi bat etxekuen partetik!



OÑATI
Ekain Markuleta Inza
Maiatzaren 24an, urtebete. Zorionak zure lehen urtebetetzean. Patxo bat familixa danan partetik.



OÑATI
Gari Salazar Guridi
Maiatzaren 24an, urtebetetzea. Zorionak bihotzez gure txikiari, Malen bere arreba eta familia guztiaren partetik. Muxu bat, potxolo!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu.
Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz:
izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.


Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Inar Arroyo Madera

Soraluze 2,900Kilo. Maiatzaren 24a. Gurasoak: Ubane eta Pablo. Argazkian, umea amarekin.



Inge Berridi Errasti

Aretxabaleta 3,530Kilo. Maiatzaren 23a. Gurasoak: Aran eta Xabier. Argazkian, umea amarekin.



Alain Davila Iza

Bergara 3,640Kilo. Maiatzaren 23a. Gurasoak: Isortxe eta Gorka. Argazkian, Amatxo eta aitatxorekin



Ioseba Sanchez Lorente

Antzuola 4,170Kilo. Maiatzaren 26a. Gurasoak: Raquel eta Jordan. Argazkian, umea lotan.



Mireia Barreno Arza

Oñati 3,480Kilo. Maiatzaren 26a. Gurasoak: Kristina eta Oskar. Argazkian, umea amarekin.



Hodei Aranzabal Fernandez

Antzuola 3,160Kilo. Maiatzaren 25a. Gurasoak: Pili eta Jokin. Argazkian, umea aitarekin.



Alaia De la Cruz Torres

Arrasate 3,630Kilo. Maiatzaren 26a. Gurasoak: Mireia eta Diego. Argazkian, Alaia amama Lourdesekin.



Erik Quintas Gomez

Eskoriatza 3,750Kilo. Maiatzaren 22a. Gurasoak: Estibaliz eta Fran. Argazkian, umea gurasoekin.



Paul Etxebarria Perez de Lastra

Durango 3,380Kilo. Maiatzaren 20a. Gurasoak: Leire eta Aritz. Argazkian, umea gurasoekin.



Jokin Guzman Orobengoa

Arrasate 3,490Kilo. Maiatzaren 21a. Gurasoak: Gurutze eta Aitor. Argazkian, Jokin amama Pilarrekin.



Danel Mancebo Terrazas

Arrasate 3,550Kilo. Maiatzaren 22a. Gurasoak: Amaia eta Celestino. Argazkian, umea gurasoekin.



Ander Leibar Martinez

Arrasate 3,220Kilo. Maiatzaren 21a. Gurasoak: Eva eta Oscar. Argazkian, umea amarekin.



Luken Olalde Agiriano

Oñati 3,090Kilo. Maiatzaren 21a. Gurasoak: Aitziber eta Asier. Argazkian, umea amarekin.



Oihan Ramirez Fernandez

Arrasate 3,200Kilo. Maiatzaren 21a. Gurasoak: Erika eta Alberto. Argazkian, umea amarekin.



AI, ENE!

Kaleak zelatatzeko modu berria



Zorionez edo zoritxarrez, ohituta gaude kaleetan kamarak ikustera. Helburu bera izan arren, teknika honi ezin orijinaltasuna ukatu.
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Igoera hau egin dudan moduagatik, lotsa sentitzen dut neure buruarekiko".

JUANITO OIARTZABAL | MENDIGOIZALEA

Gasteiztarra ez dago gustura bere azken abentura egiteko moduarekin. Gaineratu du, duen adinarekin, bera igoko duten pertsonekin inguratu behar duela eta ez alderantziz. Juanito, duzun adinarekin, egokiena ez al litzateke erretiratzea?
www.elcorreo.com

EGURALDIA



Max. 22º
Min. 13º

Zaparrada txiki batzuk botako ditu, baina noizean behin trumoi-ekaitzak ere joko du.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2011-05-30
HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Mikel Aranburu Realeko kapitaina oporretan dago, baina Zubietara joaten jarraitzen du, datorren denboraldia ondo hasteko belauneko lesiotik errekuperatzera. | **XABIER URTZELAI**

"Lagunekin komunikatzeko nahiago dut modu tradizionala"

1. Badakit elkarrizketak erantzuteko deseatzen egoten zarela.
[Barre] Bai, bestela ere urtean gutxi egiten ditugu eta...

2. Oporrak hartu berri, zure etxe azpian futbolean dabiltzan gazteei ihes egin die baloiak, eta zuregana dator. *Vade retro Satanas!*
Egia esanda, momentu honetan bai. Belaunetik izorratu samar amaitu dut denboraldia, eta, igual, eskuarekin itzuliko nieke baloia.

3. Bizitza osoa txuri-urdin jantzita. Imajinatzen duzu zeure burua beste elastiko batekin?
Kamiseta berdearekin ere jokatu izan dut, eta asko gustatzen zaidan kolorea da hori. Ea, baina, kamiseta berde horrekin noiz jokatzen dugun partidu ofizialik.

4. Pozik egongo dira Gipuzkoako kardiologoak, realzaleei sufriarazten diezuen guztiarekin.
Bai; Bartzelonako zaleak ondo ohituta daude, eta gureak sufritzera ohituta. Akaso, kardiologo bakarren bat haserre ere egongo da, lanez lepo dabilelako.

5. Belaunak ematen dizu eguraldi aldaketen berri?
Ba, batzuetan bai. Izan nuen lesioa kontuan hartuta, nahiko konforme nago nire belauna zelan aguantatzen dabilen ikusita, baina urtean zehar eguraldi aldaketa handia badator, belaunak egiten dit iragarpena, bai.



JON POZO

6. Nire kintako futbol jokalariak dagoeneko erretiroan pentsatzen hasita zaudete. Zahartzen nabilen seinale?
Gaztetu ez zara egingo, behintzat. Baina gure kintakoak sasoi onean gaude oraindik.

7. Gutxi batzuk sufritzen, eta gainerakoak ondo bizi izaten. Ligaz ala krisiaz ari naiz?
Futboleko sufrimendua neurrian hartu behar da. Uste dut futbolak sortzen duen sufrimenduaz alderatuta asko direla larri dabiltzan familiak. Ea egoerak hobera egiten duen...

8. Kirolari batzuk topera dabiltza sare sozialetan; ez zaitugu halakoen oso zale imajinatzen.
Komunikatzeko modu horiek duda barik oso erabilgarriak dira, baina neurrian. Nik lagunekin komunikatzeko nahiago dut modu tradizionala, aurrez aurrekoa.

9. Zer dute Arrasateko santamasek?
Bada, duela 20 urte inguru elkar ezagutu genuen lagunak batzen garen eguna da, urteroko hitzordua. Futbolak eman digun gauza on horietako bat.

10. Munduko Txapelketako sari banaketan, Iker Casillas taldekideak kopa pasa behar dizun momentuan esnatu egin zara...
Ez da, bada, bete nahiko nukeen ametsa [Barre]. Gure selekzioa, orain momentuan, Munduko Kopa jokatzetik urrun ikusten dut.

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Lurraldeekin harremana sendotu"

"Beste gauza askoren artean, Euskal Herriko lurralde guztiekin harremanak estutzen ahaleginduko nintzateke, baina kolpean esateko... Dena dela, ez dut nire burua lehendakari moduan ikusten, baina lehendakari izatera iritsi diren beste zenbait ere ez ditut oso fin ikusten".

BIHARAMUNA



MARKOS BALENTZIAGA

Kargu banaketaren azoka

Hauteskunde-ondoko kargu-banaketaren jaia zabalik da eta ni ere horra noa. Ez dut ahazten dena dela negoziagai eta, regateoa, lege bakarra. Lotsa etxean gordeta noa.

Eguen gauean dihardut idazten. Orain arte ez dut nik proposatzen dudanaren antzekorik irakurri ez entzun; kontrakorik, bai. Hauxe da nirea: zergatik ez dituzte negoziatzen EAJk, Bilduk, PSEk, NaBaik eta PSNk (eta EBk) Nafarroako Gobernua eta Gizpuzkoa eta Arabako ahaldun nagusitzak eta Iruñea, Gasteiz eta Donostiako alkatetzak? Ondo dakit, bai, gatza eta piperra xehetasunetan daudela.

Era berean, badakit PSEk eta PSNk Madrilen bedeinkazioa behar dutela –Rouco monsinorearena ez, PSOErena– ezer erabakitzeko, baina PSOEren eta EAJren aginte -grina ere –horiena batez ere– ez da makala.

Ondorioak? UPN nafar agintegune nagusietatik kanpora eta, Araban, PP agintea beste batean eskuratzeko beroketak egiten lagatzea.

Jakinekoa da hau guztia bihurria dela, baina merkatuaren legerik ez du hausten. Eta, azokaren ertzeraino iritsita, PP noiz hasiko da Euskadin ere hauteskunde autonomikoak aurreratzea eskatzen?

